# Goienkaria

2008ko martxoaren 14a > Egubakoitza > VIII. urtea > 324. zenbakia > Doan banatzekoaa

www.goiena.net




"Biolentzia dagoen tokietan inberti daiteke, hango gizartea ezagututa"

**Alonso Ortiz**
Irakaslea > 09


**G2a** **Oñatiko berso eskolak 25 urte bete ditu** > 43-44

**BERGARA**
**Erramu-zapatuko feria handia egingo dute bihar erdigunean** > 25

**ANTZUOLA**
**3,7 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak** > 36

**KIROLA**
**Oñatiko XVII. duatloiak Gipuzkoako denboraldia bihar, zapatua** > 40


**INGURUMENA** > KLIMA ALDAKETA

# Aldaketa klimatikoaren kalteak galarazteko hamar urte ditugu

**UNESCO ETXEA** Arrasaten aurkeztu du Nazio Batuek egindako klima aldaketaren gaineko txostena, asteon

**GIZAKIA** Klima aldaketak giza garapenean eragin ezkorra du; kaltetuenak garapen bidean dauden herrialdeak izango dira

**ALDAKETAK EAE-N** Neurriak hartu ezean, kostaldean 3-5 gradu igoko da tenperatura udan eta 1-2 gradu neguan > 02-03

## Ezkontzen gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera, 16 orriko gehigarria ezkontzen gainean, koloretan.




## Debagoieneko Turismo Bulegoak bisitariak hartzeko prest

Aste Santua gainean dugu eta eguaztenetik, martxoaren 19tik, hasita, Debagoieneko turismo eskaintzaz gozatzeko modua izango dugu etxekook zein kanpokoek. Hori horrela izan dadin, ibarreko Turismo Bulego guztiak irekita daude eta eskaintza zabala prest dute, hala nola, Oñatin, Bergaran, Eskoriatzan, Leintz Gatzagan eta Arantzazun. Joan eta gozatu. > 15




**BERGARA** San Martin plazan dago bulegoa; irudian arduradunak: Itziar Santano eta Onintza Berasategi. X.U.



## Aste Santuko oporraldia

Oporrak hartuko ditugu martxoaren 25a bitartean. Hori dela-eta, GOIENKARIAren hurrengo zenbakia martxoaren 28an argitaratuko dugu. *Asteleheneko Goienkaria*-koa, berriz, 31n.

**OSASUNA** > LEUZEMIA

## Oñatiko gaztea, emaile bila

Vanessa Hernandez da, 27 urteko gaztea eta hezur-muin emaile bateragarri baten bila dabil > 06

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-42
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55


**ATENTATUA** > ONDORIOAK

## Udala apurtu da Arrasaten

EB-Zutik taldeak apurtu du; bestetik, EAE gobernutik kentzeko zentsura mozioa aurkez lezake PP alderdiak > 04

**HEZKUNTZA** > KANPAINA

## Hezkuntza Sistema Nazionala

Hori aldarrikatzeko kanpaina ibiltaria egingo du EHBE taldeak, eta bailaran hasiko da, martxoaren 31n. > 07




**INGURUMENA** > KLIMA ALDAKETA

# Klima aldaketak giza garapenean zein eragin duen, eztabaidarako gai

**TXOSTENA** Nazio Batuek iaz Brasilian aurkeztutako klima aldaketaren gaineko txostena aurkeztu du Unesco Etxeak asteon Arrasaten

**GARAPEN BIDEAN** Klima aldaketak garapen bidean dauden herrietan eragin handiagoa duela azpimarratu zuten mahai inguruan

**HIZLARIAK** Txostena aurkezteaz gain, klima aldaketaz jardun zuten hainbat aditu, hidrogeologo, ingurumen teknikari eta ingeniarik

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

Nazio Batuen programaren giza garapenerako txostena, klima aldaketaren gainekoa, aurkeztu du asteon Unesco Etxeak Arrasaten, Goiena Komunikazio Zerbitzuen eta Udalaren laguntzaz. Nazio Batuek urtero txosten bat kaleratzen dute. Iazkoa uraren gainekoa izan zen; teknologiak giza garapenaren aldaketan zein eragin duen aztertu zuten beste batean; eta oraingoa aldaketa klimatikoaren gainekoa izan da. 2007an Brasilian aurkeztu zuten eta horren ondoren aurkezpenak egiten dihardu Unesco Etxeak Euskal Herrian barrena.

Arrasaten, Kulturaten egin zuten txostenaren aurkezpena martitzenean. Unesco Etxeko ingurumen arduradun Josu Sanzek azaldu zituen txostenaren nondik norakoak honako laburpena eginez: "Txostenak dio nola aldaketa klimatikoak eragiten duen giza garapenean, batik bat zein eragin txar dituen azaltzen du. Ez muturreko fenomenoetan soilik, baizik eta, esaterako, pobrezia areagotu egiten du beste herrialde batzuetan. Hori da Nazio Batuek eman nahi duten ikuspegia".

**TXOSTENAREN LABURPENA**

Txostenak berak hainbat ideia azpimarratzen ditu. Besteak beste dio: "Froga zientifikoek erakusten dute mundua ataka gaizto baterantz doala, eta ataka horretara iritsirik ezinezkoa izango da hondamendi ekologiko atzeraezina saihestea".

Klima-aldaketak zein ondorio izango dituen begi-bistakoa dela gaineratzen du txostenak. Lehorte, uholde eta ekaitz arriskua gero eta handiagoa dela. Gainera, milurteko helburuei eta giza garapenari eragiten die eta desorekak sakontzen ditu.

"Txiroak sufritzen ari dira eta are gehiago sufritzeko daude klima-aldaketarekin. Eurek dute giza garapenean kalte handien jasateko arriskua; giza garapen txikiko tranpak areagotuko dira hala", hori da txostenak azpimarratzen duen beste ideia bat.

Hala ere, dio kalteak galarazteko aukera dagoela, baina hamarkada bat baino gutxiago daukagula horretarako: "Munduak badu aski baliabide finantza aldetik eta baita gaitasun teknologikoa ere. Egoera zein larria den konturatzea, giza elkartasuna eta interes kolektiboa falta da".

**"Txostenak azaltzen ditu giza garapenean klima aldaketaren eragin txarrak ; ez soilik muturreko fenomenoetan, baizik eta baita pobrezia areagotzen ere"**

**"Ezer egin ezean 2012rako %36ra igoko lirateke isurketak; Eusko Jaurlaritzaren klima aldaketaren aurkako 2008-2012 epealdirako planak aurreikusitako neurriekin, ordea, %14ra"**

Josu Sanzek jakinarazi zuen zein diren klima aldaketak ekarriko dituen arriskuak: "Klima aldaketak honako arriskuen bidez eragin dezake giza garapenean: nekazaritza ekoizpena txikituz; ur eskasia areagotuz; muturreko klima-fenomenoak jasateko arriskua handiagotuz; ekosistema kolapsatuz; eta osasun arriskuak handituz".

Hitzaldia amaitzeko Sanzek esan zuen berehala ekin behar diogula lanari: "Mundu zatikatua gara, baina ekologia aldetik guztiok dugu guztion beharra. Elkartasuna eman behar diegu herri txiroei, haiek izango dira klima aldaketa sufritzen lehenak. Herrialde guztiei eta giza komunitateari egiten die dei txostenak, denon artean berehala lanari ekiteko eta ikuspegi eta balio partekatuen oinarria erabakitzeko".



**MAHAINGURUA** Izaro Basurkok, Gorka Buenok , Iña

**PLANA, KLIMA ALDAKETAREN AURKA**

Josu Sanzen ostean, Eusko Jaurlaritzako Ihobe Ingurumen Sozietate Publikoko teknikari Izaro Basurkok hartu zuen hitza. EAEko hainbat adierazleren berri

## Aurkezpeneko emisioa konpentsatuko dute garapen iraunkorreko proiektuak bultzatuz

Kulturateko aurkezpenera nondik eta nola gerturatu ziren galdetu zieten Unesco Etxekoek entzuleei. Gehienak Arrasatetik bertatik oinez joan ziren, ibarretik besteak eta ingurutik gainontzekoak, autoz zein garraio publikoa erabiliz.

Emaitzak jaso ostean, kalkulatu nahi zuten ekitaldiak sortutako emisioak zenbatekoak izan ziren. Horretarako, joan-etorria ez ezik banatutako esku-orriak ere hartu zituzten kontuan.

Ondoren, sortutako emisioak konpentsatzea da asmoa. Konpentsazioa garapen iraunkorreko proiektuak bultzatuz eta berotegi efektuko gasen murrizketa eragiten duten proiektuak abiaraziz egingo da. Horrela, ekimenak emititu duen gas kopuru bera batuko da karbono balantze neutroa lortuz.

Konpentsazioaren bitartez, klima aldaketan isurketak duen eragina txikitzeaz gain, garapen iraunkorraren oinarriak sendotzen dituzte: ingurumena babestuz, familia plangintza bultzatuz, elikadura hobetuz, ustelkeriaren aurka eginez eta bakea sustatuz.

Kasu honetan, Unesco Etxeak klima aldaketaren aurkako Ekopass elkartearen bidez egingo du konpentsazioa. Ekopassen proiektuen artean dago Wangari Mattai Nobel Sariduna buru duen Green Belt Movement erakundearen Kenyako baso-berritze proiektua, garapen eta genero alorretan Kenyan dituen proiektuetan.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR

**Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren Langileen Kontseilu Sozialak Isaias Karraskoren hilketa bortitza kondenatzen du.**

**Bere familia guztiari gure dolumina adierazi nahi diogu.**



...ki Antiguedadek eta Josu Sanzek hartu zuten parte aurkezpenean. IRATI AGIRREAZALDEGI

eman zuen, eta, horretaz gain, 2008-2012 epealdirako Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana azaldu zuen.

Esan zuen zein aldaketa espero diren EAEn: "Esaterako, kostaldean, udan, 3-5 graduko tenperatura igoera aurreikusten da eta neguan 1-2 gradukoa; barruan, pixka bat gehiago. Emisioei erreparatuta ikus genezake industriako isurketak konstante mantendu direla; garraioarenak, aldiz, bikoiztu egin dira 1990a ezkero eta bizitoki eta zerbitzuenak ere handitu egin dira".

Datuen ostean, planaren lehentasunak zein diren argitu zuen: "EHUrekin batera egindako azterketek diote ezer egin ezean 2012rako %36ra igoko liratekeela isurketak eta planak aurreikusitako neurriekin %14ra. Planaren helburuak dira isurketak %14ra murriztea; gure basoen xurgatze ahalmena handitzea; baliabide naturalen gaineko arriskua minimizatzea; eta pertsonen osasunerako, hirietako habitataren kalitaterako eta sistema sozio-ekonomikoetarako egon daitezkeen arriskuak minimizatzea".

**ENERGIA BERRIZTAGARRIAK**

Ingeniaritza eskolako Gorka Buenok hartu zuen hitza gero, eta energiak izan zituen berbagai. Klima aldaketa eta energia hain lotuta egonik, esan zuen energia ikusteko modua aldatu behar dela klima aldaketa gelditzeko. Horretarako, hiru bide azpimarratu zituen: erregai fosilen kontsumoa murriztea; energia berriztagarriak bultzatu eta ugaltzea; eta energia hobeto erabiltzea.

Gorka Buenok energia berriztagarriak eta erregai fosilak kontrajarri zituen, eta lehenengoen aldeko apustua egin: "Energia fosiletatik berriztagarrietara pasa behar dugu, baina horretarako ezinbestekoa da kontsumo ereduak aldatzea eta murriztea iraunkor bihurtzeko. Gainera, hori egin behar dugu energetikoki oso zatituta dagoen mundu batean. Munduan 1.600 milioi lagun ez dira sare elektrikora iristen. Energia berriztagarriak funtsezkoak izango dira energia gabezia horiek asetzeko. Baina energia kontsumoa oso desorekatua dago munduan", esan zuen.

**"Energia fosiletatik berriztagarrietara pasa behar dugu, baina horretarako ezinbestekoa da kontsumo ereduak aldatzea eta murriztea"**

**"Moteldu egin behar dugu gure hazkundea, beste modu batean planteatu bizimodua, benetan nahi badugu zoriontsuak izatea, hementxe zein Hirugarren Munduan dagoen klima egonda ere"**

**TXOSTENARI KRITIKAK**

Iñaki Antiguedad hidrogeologoak Nazio Batuen esanari kritika egin zion bere hitzaldian. Besteak beste, hauxe esan zuen: "Klima aldaketak areagotu egingo ditu egoera txarrak, baita lehenengo munduan ere, baina hemen badauzkagu teknologia, dirua… egoera horiei aurre egiteko. Baina klima aldaketa da gure eredu ekonomikoaren ondorioa; produkzio, garraio eta kontsumoaren ondorioa. Leku batzuetan helburua da gutxitzea etor daitekeen klima aldaketaren aukera gure ondasun, ongizate eta ekonomia, azken finean gure hazkunde ekonomikoa ukitu gabe; eta hori ezinezkoa da. Egin behar dugun gogoeta da moteldu egin behar dugula gure hazkundea, beste modu batean planteatu behar dugula bizimodua benetan nahi badugu zoriontsuak izatea, hemen zein Hirugarren Munduan dagoen klima egonda ere".

Klima aldaketak giza garapena oztopa ez dezan denon elkarlana beharrezkoa dela esan zuten guztiek ala guztiek.

HIZLARIAK



**Izaro Basurko**
Ihobeko teknikaria

## "Norberarengan dago neurriak hartzea klima aldaketaren aurka"

"EAEtik plana egin dugu klima aldaketari aurre hartzeko. Planaren ildo nagusiak dira isurketak murriztea eta egokitzea. Norbanakoak gauza asko egin ditzake klima aldaketaren aurrean: garraio publikoa erabili, oinez edo bizikletaz ibili, hemengo produktuak erosi eta kontsumitu, energia berriztagarrien aldeko aukera egin… Bakoitzaren baitan dago neurriok hartzea. Pixkanaka gero eta jende gehiagok dauka txip hori ipinita, eta aurrerantzean jendeak ahalegin handiagoa egingo du".



**Gorka Bueno**
Ingeniaria

## "Erregai fosiletatik pasa behar da energia berriztagarrietara"

"Une honetan erregai fosilen errentetatik bizi gara eta errentetatik bizitze horrek izugarrizko kontsumo maila sustengatzen du. Etorkizunari begira erregai fosiletatik energia berriztagarrietara pasa behar dugu. Horretarako, ezinbestekoa izango da energia kontsumo mailak murriztea. Hori gogorragoa izango da, baina iraunkortasuna lortzeko bide bakarra da. Hori da orain daukagun erronka nagusia eta nik uste dut hori izango dela klima aldaketari aurre egiteko modua".



**Iñaki Antiguedad**
Hidrogeologoa

## "Klima aldaketa barik ere zaila da Hirugarren Munduko garapena"

"Txostenaren ideia nagusia da klima aldaketa hasita dagoela eta oso ondorio lazgarriak izango dituela, batez ere Hirugarren Munduan, eta horrek eragotziko duela hango jendearen garapena. Hori gertatuko da, baina klima aldaketa etorri gabe ere hori gertatzen ari da, lehen munduan ez gaudelako prest aldatzeko gure zutabe ekonomikoak, progresua ulertzeko modua… Klima aldaketak gehiago oker dezake egoera, baina horren zain egon gabe, berez okerra da gugatik".






**KALE AGERRALDIA** Isaias Carrascoren alarguna eta alabak, erdian, ordezkari politikoek eta herritarrek babestuta, asteleheneko kale agerraldian. IKER BARANDIARAN

**ATENTATUA** > ONDORIOAK

# Gaitzespen zabala eta Udala apurtzea eragin ditu Carrascoren hilketak

Atentatua salatzeko kale agerraldia egon zen Arrasaten, eta bi udalek gaitzespen idatziak onartu dituzte

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Isaias Carrasco PSE-EEko zinegotzi ohiaren hilketak, joan den egubakoitzean, denetariko ondorioak utzi ditu.

Arrasateko Udalean, EAE-ANV alderdia gutxiengoan geratu da, zazpi zinegotzirekin, Ezker Batua-Zutik koalizioak harekin zuen akordioa apurtu ondoren. Oposizioan daude orain Ezker Batua-Zutik (hiru zinegotzi), PSE-EE (lau), EAJ (lau) eta EA, PP eta Aralar (bana). Litekeena da datozen egunotan udal lehendakaritzaren aurkako zentsura mozioren bat aurkeztea; halaxe egingo zuela azaldu zuen Itziar Lamarainek (PP) joan den egubakoitzean, eta PSEk Ino Galparsoro alkateari dimititzeko eskatzeaz gain, "denetariko aukerak" zabalik geratzen zirela azaldu zuen. Ezker Batua-Zutikeko Ander Rodriguezek, bestalde, esan zuen beste talderen batek zuzenean eskatuz gero bakarrik egingo dutela zerbait zentsura mozio baten gainean. EAJ, EA eta Aralarrek oraindik ez dute iritzirik eman.

EAEko zazpi zinegotziek, bestalde, prentsaurrekoa egin zuten eguaztenean. Carrascoren familiari "doluminak eta elkartasuna" adierazi ondoren, hauxe esan zuten: "Gatazkaren sustraietara jo behar da. Alde batekoen aurkako gaitzespen hutsak ez du arazoa konpontzen. Euskal Herrian marko demokratiko bat eraikitzea bideratuko duen akordio politiko batek soilik lortuko du gatazka politiko honi irtenbidea ematea".

Antzuolako Udalean, EAJ, Zutik-EB-Aralar eta PSEk atentatua "gogor salatu eta gaitzetsi" eta "ETAren deuseztatzea exijitu" zuten idatzi baten. Eguaztenean onartu zuten ezohiko osoko bilkuran. EAEk elkartasuna adierazi zien Carrascoren senideei, eta atentatua "Euskal Herria jasaten ari den gatazka luze" baten testuinguruan kokatu zuten. Aretxabaletako Udalak, bestetik, idatzi bat kaleratu zuen egubakoitzean, atentatua "erabat" gaitzesten.

ARRASATEKO UDALA

## "Udal erantzukizunei aurre egingo diegu"

EAEko zazpi zinegotzien izenean, Ino Galparsoro Arrasateko alkateak mezu luzea plazaratu zuen eguazten ilunkaran: "Arrasateko Udalean hartuta ditugun erantzukizun guztiei aurre egiten jarraituko dugu", esan zuen, eta Ezker Batua-Zutikek akordioa apurtu izana "ulergaitza" egiten zitzaiela esan zuen alkateak. "Arrasatearrek emandako ordezkaritza ahal den modurik zintzoenean islatzen saiatuko gara; ziur gaude arrasatearren gehiengoaren onespena dugula".




**LANKIDEAK** Bidelango langileen kale bilkura. KEPA OLIDEN

**KALE AGERRALDI JENDETSUA**

Atentatua gaitzesteko mobilizazioak egon dira aste honetan. Aipagarriena astelehenean Arrasaten egindako kale agerraldi jendetsua izan zen, *ETA ez, askatasuna* leloarekin; han egon ziren, besteak beste, Espainiako Gobernuko kideak, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, PP, EA, Aralar eta IU alderdietako ordezkariak eta CCOO eta UGT sindikatuetakoak. Patxi Lopez PSE-EEko buruak esan zuenez, "ETAri esaten diogu ez dugula milimetro bat ere atzera egingo eta garaipena gurea dela". Horrez gain, kale bilkurak egon ziren, bat Udalerri eta Probintzien Espainiako Federazioak eta bestea Carrascoren AP-1eko lankideek eta ELAk deituta; CCOOko Josu Onaindik ere bat egin zuen.



**HAUTESKUNDEAK 08** > EMAITZAK ETA BALORAZIOAK

# Sozialistek garaipen argia, abstentzioak 20 puntu gora eta beste guztiak behera

Garaipen historikoa lortu du PSE-EEk gainerako alderdi guztien kontura

Jeltzaleak dira behera nabarmenen egin dutenak, eta ia 4.000 boto galdu dituzte




**ENEKO AZKARATE** > BERGARA

Sozialistek garaipen historikoa lortu dute Debagoienean eta garaipen hori Arrasaten, Eskoriatzan eta Aretxabaletan gauzatu da. Azpimarratzekoa da Aretxabaletako kasua, lehen aldiz irabazi baitu PSE-EEk han. Herri guztietan egin dute gora botoetan, baina Arrasaten eta Eskoriatzan izan da nabarmenagoa igoera: Eskoriatzan 16 puntu egin dute gora eta Arrasaten 15. Mondragoen, San Andresen, Isaias Carrasco ETAk hil zuen militante sozialista bizi zen auzoan, PSE-EEk botoen erdia baino gehiago lortu ditu.

Oro har, Debagoienean ia 3.000 boto gehiago lortu ditu; hau da, 13 puntu egin du gora, 2004ko hauteskundeekin alderatuta. Emaitzak baloratzerakoan, Paco Gartzia Arrasateko PSE-EEko zinegotziak esan du hauteskunde hauetan "ETA garaitu" dutela. "Boto bakoitza izan da ETAren aurkako boto bat, gure alderdikidearen hiltzaileen kontrako botoa".

**BESTEEK, BEHERA**

EAJk galdu ditu boto gehien ibarrean: ia 4.000 boto; eta sei puntu egin du behera. Gainera, duela lau urte Debagoieneko bederatzi herrietan irabazi zuen, eta erabateko nagusitasuna erakutsi; orain, seitan irabazi du. Lourdes Idoiaga Oñatiko alkateak (EAJ) hauxe adierazi du: "Indar espainolistak indartu egin dira eta abertzaleak ahuldu. Horrek hausnarketara eroan behar gaitu, ez bakarrik EAJ, baita indar abertzale guztiak; baita ezker abertzalea ere, batez ere ETA". EAJk senatari bakarra lortu du Gipuzkoan. Orain dela lau urte, hiru zituen. Senatari hori, gainera, debagoiendarra da: Lorea Leanizbarrutia aretxabaletarra.

Hauteskundeetako beste galtzaileak indar abertzale txikiak eta Ezker Batua izan dira. Horiek guztiek bi edo hiru puntu egin dute behera. Boto beherakadarengatik kaltetuena EA izan da. Madrilgo Kongresuan zuen parlamentaria galdu egin du. EAko Pello Urizarren ustez, "Madrilen ez egotea txarra da, EArendako eta, oro har, Euskal Herriaren ahots independentistarendako ere, erreferente bat faltako da-eta".

Oro har, Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidearen alde dauden alderdi guztiek nabarmendu dute hausnarketa egin beharra. Oxel Erostarbe Aralarko Gipuzkoako koordinatzaileak esan du autokritika egin behar dutela, eta hausnarketa sakona; izan ere, "emaitzek agerian laga dute Aralarrek hasieratik defenditu zuen Euskal Herria Bai zela abertzaleok aurkeztu behar genuen proposamena".

Emaitza txarrak esplikatzerakoan, hauteskunde kanpainan hedabide gehienek bi hautagai bakarrik nabarmendu izana aipatu du Ander Rodriguez EBkoak: "Bipartidismo zorrotzak eta lege elektoralak kalte egin digu". Rodriguezen ustez, emaitzak "ez dira batere onak" izan: "Euskadin botoen erdiak galdu ditugu".

PPk ere behera egin du eskualdean, ia bi puntu. Itziar Lamarain PPko hautagaiak zera esan du: "Denoi bezala, igo izana gustatuko litzaiguke, baina Euskadin eutsi egin diogu".

Abstentzioari dagokionez, ia 20 puntu egin du gora Debagoienean orain dela lau urtekoarekiko. Honela baloratu ditu emaitzak Agurne Barrusok, Hautetsi Independentisten izenean: "Garbi geratu da ez dagoela erdiko biderik, bi proiektu daudela jokoan eta jendea alde batera eta bestera joan dela".

## EMAITZEN GAINEKO ANALISIA



**Felix Iriarte**
Kazetaria

### "Batez ere boto gaztea jaso dute sozialistek"

"Emaitzen arabera argi dago boto sozialistak gora egin duela. Bestetik, alderdi abertzaleek galera handia izan dute eta, batez ere Gipuzkoan, abstentzioa handia izan da. Orain arte ez bezala, EAJ, EA eta EBren botoa sozialistek jaso dute. Batik bat, boto gaztea izan da sozialistek jaso dutena oraingo hauteskundeetan".



**Elena Laka**
Abokatua

### "Euskal Herriak oso ordezkaritza motza izango du Madrilen"

"Eman ez diren botoekin eta eserlekurik eskuratu ez duten botoekin, Euskal Herriak oso ordezkaritza motza izango du Madrilen. Guztia bi alderdien menpe geratu da; beharbada, nork bere lubakiak lagata, batzen gaituen horretan elkartuta, ahots ozenagoa eskuratuko genuke bai Debagoienean, bai Euskal Herrian".



**Mikel Lezamiz**
Soziologoa

### "Argi geratu da PSOE eta PPren arteko borroka izan dela"

"Argi geratu da emaitza polarizatuak izan direla; PP eta PSOEz gain, beste guztiek galdu egin dute. Bestalde, abstentzio maila altua egon da Euskadin. Hautetsi Independentistek egin duten deiaz aparte, hauteskunde orokorrak izateak ere bere eragina izan du. EAEko hauteskundeak ezberdinak izango direla uste dut".



**Mikel Lizarralde**
Kazetaria

### "Euskaldunok ez dute gertuko sentitu hauteskunde horiek"

"Espainiako Kongresurako hauteskundeak izateak eragina izan du emaitzan; izan ere, bipolarizazioa egon da, PP eta PSOEren artean. Jendeak ez ditu gertuko sentitzen hauteskunde horiek. Bestalde, abertzaleen artean PP boterera iristeko beldurra zegoen; horrek PSOEren alde egin du eta, EAJ eta EA kaltetuak izan dira".



**Martin Garitano**
Kazetaria

### "Euskal Herriak ez du aukera izan herri bezala erantzuteko"

"Euskal Herriak ez du herri bezala erantzuteko aukerarik izan hauteskunde hauetan alderdi batzuk gura izan ez dutelako; eta, emaitzak ikusita, alderdi horiek atera dira galtzaile (EAJ, EA, adibidez). Bestalde, inoiz ezagutu dugun baldintza txarrenetan, ongi mantendu du bere postura eusko abertzaletasunak".



**GAITZA DIAGNOSTIKATU ZIOTENEAN** Irudian, Vanessa Hernandez haurdun, Patrick Rainbird mutil-lagunarekin batera, leuzemia zuela jakin zuenean. GOIENKARIA

**OSASUNA** > GAIXOTASUNAK

# Emaile bila dihardute leuzemia duen Oñatiko gaztearendako

Vanessa Hernandez 27 urteko oñatiarra da eta hezur-muineko transplantea egiteko emaileak behar ditu

**MIRIAN BITERI** > OÑATI

Haurdun zegoela jakin zuen Vanessa Hernandez oñatiarrak leuzemia zeukala, 2006. urteko martxoan. Normalean, pertsona nagusiei eragiten dien leuzemia mota du, kronikoa dena. Ingalaterran zegoela jaso zuen berria.

Alaba jaio eta gutxira, tratamenduari ekin zion. Kimioterapia saioak jaso zituen 2007. urteko urtarriletik ekainera bitartean, Gasteizen: "Kimioterapiak ez zuen eragin handirik izan egunerokotasunean. Kalera irteten zen eta gauzak bakarrik egiteko gauza zen", gogora ekarri du haren lagun Naiara Condek. Gauzak ondo zihoazen, eta abuztuan Ingalaterra bueltatu zen, han hasitako ikasketekin amaitzeko asmoz.

**BEHERAKADA**

Gabonetan, etxera iritsi zenean, ordea, beherakada nabarmena izan zuen Hernandezek. Ordutik hona denbora luzea eman du ospitalean. Kimioterapia jaso du berriro, aurrekoa baino askoz gogorragoa dena: "Ezin da mugitu kimioterapiagatik , gurpil-aulki batean ibili behar du", azaldu du Condek.

Gainera, orain, 40 eta 42 kilo artean baino ez duela pisatzen esan du, altua bada ere: "Oso argal dago, hezurrak baino ez zaizkio igartzen". Egoera horretan ezin du umea zaindu. "Besoetan ere ezin du eduki haurra", jakinarazi du.

Conderen arabera, hura tratatzen ari diren medikuak ere "galduta" daude. "Ez dute ezer garbirik esaten, baina gauza onik ez", azaldu du.

Horren harira, hezur-muin emaileak bilatzen hasi dira gertukoak. Etxekoenak ez dira bateragarriak eta lagunek probak egiten dihardute, transplantea egiteko bateragarria den norbait bilatzeko: "Badakigu oso zaila dela Vanessarekin bateragarria izatea, baina Vanessarendako ez bada, agian beste norbaitendako balioko du", aipatu du, itxaropentsu, Condek.

Horrez gain, debagoiendarrei emaile egiteko dei egin nahi izan die: "Zenbat eta jende gehiago egon, orduan eta aukera gehiago norbait bateragarria topatzeko". Emaile egiteko telefono zenbakia eman nahi izan du, azkenik, Vanessa Hernandezen lagunak: 944 00 73 83 da zenbakia.

DATUA

**2**
**KASU**

Leuzemia bi kasu egin dira azkenaldian ezagunak Debagoienean: Oñatiko 27 urteko Vanessa Hernandez gaztearena eta Arrasateko 5 urteko Maialen Zulueta umearena.

ESANAK

**"Badakigu oso zaila dela Vanessarekin bateragarria izatea, baina agian beste norbaiti balio dio"**

**Naiara Conde** > Laguna

MAIALEN ZULUETA HAURRAREN KASUA

## Maialenek AEBetako gazte baten hezur-muina jaso du eta hobera egin du nabarmen

Joan den urrian hezur-muineko transplantea egin zioten Maialen Zulueta haur arrasatearrari, Madrilen. Abuztuan emaile bat azaldu zen: AEBetako 30 urteko neska bat. Guztiz bateragarria ez bazen ere, transplantea egin zioten. Abenduaren 20an etxera bueltatu zen Maialen, baina handik egun gutxira Gurutzetako ospitalera eraman behar izan zuten, sukarra zuelako.

Urtarrila ezkero etxean da Maialen eta gurasoek diotenez, ondo errekuperatzen ari da. Oraindik ez da guztiz osatu, hezur-muinak denbora behar du-eta egoera berrira egokitzeko. "Zuhurrak izan beharra dagoela" badiote ere, baikorrak dira Maialen Zuluetaren gurasoak.

ITURRIGORRI ELKARTEA

## Iturrigorrik aurkeztutako mozioa onartu dute ibarreko udalek eta Mankomunitateak

Iturrigorri Elkarlanak, hezur-muina ematearen aldeko elkarteak, mozioa aurkeztu du Debagoieneko udaletan eta Mankomunitatean, Osakidetzari egindako eskaera batzuekin. Dagoeneko Arrasate, Oñati eta Antzuolako udalen eta Mankomunitatearen beraren erantzuna jaso du, esandako mozioa bere gain hartzen dutela esanez. Gainontzeko udalei dagokienez, datozen egunetan horien berri izatea espero dutela esan du Iturrigorriko kide Jon Goikoetxeak.

Bestalde, udal hautetsiei emaile egin daitezela eskatu die Iturrigorrik eta jasotako erantzuna oso ona izan dela aipatu du. Hilaren amaieran edo apirilaren hasieran agerraldia eskainiko dute horren berri emateko.

> ERROMESALDIA

### Bakearen aldeko ibilaldia egingo dute Arantzazura, bihar

*Iraun nigan. Ez izan beldurrik* lelopean egingo dute Donostiako Elizbarrutiak antolatutako ibilaldia. Gipuzkoa osoko milaka lagun espero dituzte Arantzazun.Otoitz-ibilaldia 09:00etan hasiko da Soraluze hotelaren parean; hori dela eta, errepidea autoendako 08:00etan itxiko dute.

Hain zuzen, ibilaldiaren buruan Donostiako gotzain Joan Mari Uriarte joango da; eguerdi aldera iritsiko dira Arantzazura, eta gotzainaren otoitzaldi laburrarekin bukatuko da.

Horren harira, Gipuzkoa osotik joango diren autobusak Oñatin geratuko dira. Gainera, Arantzazutik jaisteko autobus zerbitzua egongo da.

> EPAIKETA

### Eguaztenean epaitu zuten Oñatiko PPko zinegotzia

Alderdi Popularreko kide Julio Perez de Arriluzea Bergarako epaitegira joan ez zen arren, epaiketa normaltasunez egin zen. Orain, bi aldeak epaiaren zain daude: "Sententzia jakin arte ez dugu inolako adierazpenik egingo", esan digu Marijo Altubek.

Eguazteneko epaiketan Julio Perez de Arriluzearen abokatuak deklaratu zuen haren ordez, eta ondoren EAE-ANVko kide Marijo Altubek, Karmelo Arregik eta Lierni Axpek 2007ko otsailaren 26ko osoko bilkuran PPko zinegotziak "hiltzaile" deitu ziela esan zuten. Lekuko moduan epaiketan parte hartu zuten Oñatiko alkate Lurdes Idoiagak eta zinegotzi Ainhoa Galdosek.

> TXOSTENA

### Bidaiarien garraio eta merkantziari buruzko ikerketa martxan dago

Debagoieneko Mankomunitateak, Gipuzkoako Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak hasi duten ikerketarako bailarako enpresen laguntza eskatu dute;hain zuzen ere, hainbat enpresari inkesta bidaliko diete posta elektronikoz datozen asteetan. Inkestako emaitzak jaso ondoren, oraingo garraioaren egoera aztertu ahalko da, eta etorkizun iraunkorra izateko hartu beharreko erabakiak zehaztuko dira.

Bidaiarien garraio eta merkantziari buruzko ikerketaren helburua hauxe da: garraio, logistika eta azpiegitura arloan garapen ekonomiko sostengarria bideratzeko estrategiak zehaztea.

**HEKUNTZA** > EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLA

# Euskal Herriak Bere Eskolaren kanpaina bailaran hasiko da

Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko aldarrikapena egiteko kanpainak martxoren 31tik maiatzaren 31ra arte iraungo du

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

"Kanpaina nazionala, parte-hartzailea eta herritarra izatea nahi dugu. Horregatik guztiagatik, haur eskoletatik unibertsitaterainoko hezkuntza eremua ukituko duen egitaraua osatu dugu". Hori adierazi zuten Euskal Herriak Bere Eskolako (EHBE) kideek Kulturaten egindako prentsaurrekoan.

Hezkuntza Sistema Nazionala aldarrikatzeko, Bergaran, Arrasaten eta Aretxabaletan hainbat ekitaldi egingo dituzte martxoaren 31tik apirilaren 5era (ikus ondoko taula); besteak beste, Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko eguna, hitzaldiak, musika emanaldiak eta erakusketa. Debagoieneko ekitaldiak bukatu ondoren EHBEren kanpaina beste eskualde batean egingo dute:"Bi hilabeteko kanpaina da, baina astero eskualde ezberdin batean egongo gara, tokiko aldarrikapenei dagokien garrantzia emateko ", azaldu zuen EHBEko kide Eneritz Ugaldek. Dena dela, eskualde guztietarako, Debagoiena barne, deialdi bera egin dute: "Herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da. Euskal Herrian hezkuntza eskubideak zapalduta daude, eta horien alde borroka egin behar dugu".

**INPOSAKETAK SALATU**

Martxoaren 31n hasi eta maiatzaren 31ra arte Hezkuntza Sistema Nazionala aldarrikatzeko egingo den kanpainaren helburuak hauek dira: arlo horretan ematen diren urratsak herri aldarrikapen bilakatzen hastea, hezkuntza esparruan dauden egitasmo eta ekimenak kontuan hartzea eta esparru ezberdinetatik sortzen diren inposaketak salatzea. Honakoa dio EHBEk: "Unea da emandako urrats guztiak norabide berean kokatzeko, Hezkuntza Sistema Nazionala egituratzeko hezkuntza mugimendu indartsua sortu behar dugu-eta".

## Debagoieneko egitaraua

**BERGARA**

**Apirilak 1, martitzena**
19:00: erakusketara bisita gidatua

**Apirilak 5, zapatua**
12:00: hitzaldia
17:30: haur eta gazteendako jolasak, Munibe plazan
19:00. Gabero abesbatza, bertsolariak, dantza taldea, txalapartariak... Munibe Plazan
23:00: Emon taldearen kontzertua, Pol-Pol tabernan

**ARRASATE**

**Apirilak 2, eguaztena**
18:30: Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko argazki herritarra, Herriko Plazan
19:00: erakusketara bisita gidatua

**Apirilak 4, egubakoitza**
17:30: jolas erraldoia eta mural margotzea, Seber Altube plazan
19:00: dinamikako lehen ekitaldi nagusia, Kulturaten

**Apirilak 5, zapatua**
18:30: Ain1 taldearen kontzertua, gaztetxean
19:30: triki-bertso-poteoa, gaztetxetik abiatuta

**ARETXABALETA**

**Apirilak 3, eguena**
Arratsaldez: erakusketa

**Apirilak 5, zapatua**
Eguerdian: kalejira eta argazki herritarra

**GARRAIO PUBLIKOA** > LURRALDEBUS

# Txartel bakarrak 589.769 erabiltzaile lehen hilabetean

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Otsailaren 1ean txartel bakarraren %40ko deskontu tarifa berria abian jarri zenetik, bidaiari kopuruak nabarmen egin du gora; hain zuzen, 11.436 txartel berri banatu zituzten martxoaren 4a arte. Hortaz, lehen hilabeteari dagokionez balorazio "oso ona" egin du Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok. Era berean, Lurraldebuseko 11 enpresetako autobusek 1.312.058 bidaiari garraiatu zituzten otsailean; hain justu ere, urtarrilean baino 65.002 bidaiari gehiago.

**HERRI BARRUAN DESKONTUAK**

Maiatzaren 1etik aurrera herrietako autobus zerbitzuetan ere deskontuak egingo dituzte, besteak beste, Arrasateko eta Bergarako herri barruko zerbitzuetan eta Oñati-Arantzazu eta Elgeta-Eibar-Elgeta lineatan.

Bestalde, urriaren 1etik aurrera, familia ugariek, ikasleek, erretiratuek eta errenta maila txikia dutenek txartel bereziak izango dituzte. Gainera, hamar urte baino gutxiagoko umeek doan bidaiatu ahal izango dute.



**HITZARMENA** Argazkian, Gartzia, Zabala eta Eizagirre. G.A.

**ENPRESA** > GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA

# Gipuzkoako Ganbera Garaia Berrikuntza Gunera

Kokaleku berriarekin MUra hurbiltzea du helburu, besteak beste

J.Z. > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak, Gipuzkoako Ganberak eta Garaia Berrikuntza Guneak lankidetza-hitzarmena sinatu zuten joan zen martitzenean. Hitzarmen honek enpresa eta prestakuntza arloko ekintzak aurrera eramateko helburua izango du. Mondragon Unibertsitateko errektore Josu Zabalak, Gipuzkoako Ganberako zuzendari orokor Agustin Eizagirrek eta Garaia Berrikuntza Guneko gerente Andoni Gartziak sinatu zuten akordioa. Ganberako Arrasateko ordezkaritza berria Garaian kokatuko da, eta apiriletik aurrera hasiko da funtzionatzen. Gipuzkoako Ganberak, Garaia Berrikuntza Gunera eta Mondragon Unibertsitatera hurbildu nahi du ekimen horrekin.

**HELBURUAK**

Mondragon Unibertsitateak ganberaren zerbitzu, proiektu eta prestakuntza-programei buruzko informazioa helaraziko die ikasleei eta Garaia Berrikuntza guneak proiektu hori aurrera eramateko beharrezko espazio fisikoa emango du.

Helburuak, enpresa sorkuntzako aukerei buruzko informazio zerbitzu bat martxan ipintzea, zonaldeko enpresei jatorri-ziurtagiriak eta ziurtagiri digitalak ematea eta prestakuntza programetan laguntzea dira besteak beste.




Gizarte laguntzarako Prestakuntza

kutxaZabal Deba

2008ko apirila

ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO PROGRAMA
PRESTAKUNTZA IKASTAROAK 2008

GERIATRIAKO LAGUNTZAILE DIPLOMA

1. promozioa

**Tokia:** Bergarako UNED.
**Iraupena:** 252 ordu (apiriletik urrira, uztaila eta abuztua izan ezik)
**Hizkuntza:** Gaztelania

**Datak eta ordutegiak:**
Hasiera: apirilaren 3an.
Ostegunetan: 17:00etatik 21:00etara.
Ostiraletan 17:00etatik 21:00etara.
Zapatuetan: 9:00etatik 14:00etara

**Matrikula epea:**
Martxoaren 1etik apirilaren 1era.

**INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA**
Bergarako UNED. *Gizarte laguntzan Trebatzeko Eskola.*
Tel.: 943 76 90 33
Matrikula internet bidez egiteko: **www.uned.es/ca-bergara**

54513

zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

## gure artekoak

**BMW 520** > Orain dela sei hilabete merkaturatu zuen BMWk bigarren belaunaldiko 520 autoa. Berrikuntzak diseinuan izan ditu, baina, batez ere, ingurumena zaindu gura izan dute. Horrela azaldu du Paulino Rivasek.

**Paulino Rivas** > Autos Ribeloga kontzesionarioko zuzendaria

# "Autoaren pisua txikituta ingurumena zaindu gura da"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ESKORIATZA

"Lehengo autoarekin alderatuta, modelo berriak pisu txikiagoko motorra dauka. Hala, ingurumenaren aldeko apustu garbia egin du BMWk", esan du Paulino Rivasek, Ribeloga kontsezionarioko zuzendariak .

BMW 520 autoa ez da berria, baina orain dela sei hilabete berriro merkaturatu zuten, aldaketa txiki batzuekin. Diseinuari dagokionez, oraingo modelo berria borobilagoa da. Hau da: "Aurrealdea borobilduagoa dauka", azaldu du Rivasek. Gainera, lehen aipatu bezala, ingurumena zaintzeko ahaleginean, 197 zaldi-potentzia (ZP) izatetik 177 izatera pasa da modelo berria.



Paulino Rivas, BMW autoarekin. A.E.

**GELDITZEAN, ITZALI EGITEN DA**

Hau da beste berrikuntzetako bat: "Autoa gelditzean eta itopuntuan jartzean, motorra itzali egiten da. Gero, berriro martxan jartzeko, ohiko auto batean egiten dena egin behar da: martxa sartu eta azeleratu".

Autoak aldaketa kaxa automatikoa edo sei martxako aldaketa kaxa dauka: "Beste aukera bat ere eskaintzen du BMWak: X-Drive sistemak trakzio osoa eskaintzen du, hau da, 4x4", gaineratu du Rivasek. Autoak lau ate dauzka, eta bost pertsonarentzako lekua: "Maletategia ez da eskuarekin irekitzen; aginte botoiari eman eta bakarrik zabaltzen da maletategia", esan du.

**SEGURTASUN OSOA**

"BMWa erosten duenak segurtasuna bilatzen du. Gainera, auto handia da, familiarendako egokia", azaldu du Rivasek.

Segurtasunari dagokionez, zortzi airbag, biribilgunetan autoa kontrolatzeko sistema, golpeak xurgatzeko sistema eta beste hainbat sistema eskaintzen ditu. Motor aukera ere zabala da: gasolinazko bost eta dieselezko lau.

### BMW 520d 2.0 177 ZP

| | |
|---|---|
| Prezioa | 37.900 euro |
| Luzera | 4,84 metro |
| Zabalera | 2,03 metro |
| Maletategia | 520 litro(1) |
| Kontsumoa | 8 litro /100 km(2) |
| Abiadura | 223 km/h(3) |
| Otik 100era | 8,6 seg. |
| CO2 isurketak | 136 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

## etxeko leihotik



**Eneko Azkarate** > GOIENKARIAko zuzendaria

# Hauteskunde osteko analisi eta hausnarketak

Sozialistek gora egin dute nabarmen Debagoienean eta irabazle garbiak izan dira. Eta behera egin dute besteek, bereziki EAJk, baina baita beste indar abertzaleek ere; eta EBk eta PPk, azken honek Espainian gora egin arren. Abstentzioak, berriz, gora egin du Debagoienean, Gipuzkoan edo Euskal Autonomia Erkidegoan baino nabarmenago: 20 puntu gora. Eta ohi bezala, analisiak, balorazioak eta hausnarketak egin dituzte alderdi politikoek hauteskundeen biharamunean. Hautetsi Independentistek, esaterako, diote erdibiderik ez dagoela, bi proiekturen artean aukeratu behar dela, besterik ez dagoela.

> **"Badago beste irtenbiderik: abertzale guztiak eta EBkoak bat eginda aurkeztea"**

Nik uste dut badagoela beste irtenbiderik: indar abertzaleak eta EBkoak bat eginda aurkeztea Espainiakoetan edo Europakoetan, bipartidismoari aurre egiteko alternatiba indartsuarekin. Baina horretarako ezinbestekoa da ETA geldi egotea (betirako armak utziko balitu, hobe). Ze, azken bi hilabeteotan gogor jo baitu gurean, egoera zailean utziz Arrasate eta Bergarako alkateak. Bestalde, norbaitek uste du sozialisten garaipenean eta besteen porrotean eraginik izan ez duela orain dela astebete Mondragoen gertatutakoak?

**> Guztiek** ez dituzte **aukera berdinak izan eta hori ezin da ahaztu. Datorren urteko udaberrian Legebiltzarrerako bozketak; alderdi interesen arabera erabakiko dute, berriro, denak dauden edo ez. Tristea.**

**> Isaias Carrascok** ere **ez zuen bozkatzeko aukerarik izan. Pistolari batek jaurtitako balek galarazi zioten. Haren auzoan bozkatu zuten erdiak baino gehiagok eman zioten botoa Isaiasen alderdiari.**

## begi-bistan



**Irlandako ikasleak bisitan (Oñati) 2008/03/07**

**Argazkia:** Susana Azpilikueta
**Testua:** Mireia Bikuña.

Leonardo programaren barruan, Ipar Irlandako Southern Regional College zentroko ikasleak bisitan egon dira Oñatin; hain zuzen ere, Enpresa Zientzien Fakultatean izan dira.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Iban Letamendi**
ESKIATZAILEA

Oñatiko eskiatzaileak bikotea osatuko du Fernando Monasteriorekin, Pierra Menta lasterketan. Domekara arte Frantziako Alpeetan jokatuko den proban 160 bikote lehiatuko dira, eta lau egunean 10.000 metrotik gorako desnibela gainditu beharko dute.



**Mireia Gabilondo**
AKTOREA

Bergarako aktoreak Lurdes Bañuelosekin batera idatzitako *Emakumeak izarapean* antzezlanak VIII. Donostia antzerki saria irabazi du. Euskaraz ekoiztutako lanari esker, 10.000 euro eta Iñaki Olazabal artistaren eskultura jaso dute sari modura.



**Jose Maria Gonzalez**
ZINEMAGILEA

Oñatiko zinemagileak lehen saria eroan du Huescan egiten den Espiello zinemaldian, *Txorixak galduta egozenian* lanarekin. Dokumental etnografikoei zuzenduta Espainian antolatzen den sariketa bakarra da, eta guztira 77 lan aurkeztu ziren.

Alonso Ortiz (Bogota, 1951) Bogotako Minuto de Dios unibertsitateko errektorea da. Gainera, irakasle ere bada: Enpresa Zientziak eta Giza Gerentzia ikasgaiak ematen ditu. Lau urte eman ditu biolentzia dagoen herrialdeetako enpresak ikertzen, eta *Las empresas en entornos violentos. Como hacer negocios en entornos hostiles* izeneko tesia egin du.

**Alonso Ortiz** > Irakaslea

# "Biolentzia dagoen tokietan inberti daiteke, hango gizartea ezagututa"

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

**Oñatiko Sancti Spirito Unibertsitatean defendatu zuen bere tesia Alonso Ortizek. Hain zuzen ere, Perun eta Kolonbian inbertitzen duten enpresek kontuan hartu beharreko ezaugarriak aztertu ditu azkeneko lau urteotan.**



Alonso Ortiz, Oñatin, tesiaren aurkezpena egin ondoren. MIREIA BIKUÑA

**Otsailaren 7an aurkeztu zenuen lau urtez landu duzun tesia.**

Tesia 2004an hasi nuen, eta aurkezpenarekin bukatutzat ematen dut lana. Hortaz, lau urteko bide gogorra izan da, baina emaitzarekin gustura nago.

**Ze gai landu duzu tesian?**

Ni Kolonbian bizi naiz, eta enpresek negozioak egiteko arazoak zituztela ikusi nuen. Baina enpresa batzuk itxi egin behar zituzten eta beste batzuek martxan jarraitzen zuten.

Gainera, Perun ere antzerako arazoa zegoela ikusi nuen. Hortaz, etsai-inguruneetan negozioak egitea posible dela erakutsi nahi nuen. Hala, gai horrekin ibili naiz azken lau urteotan.

Kolonbiako eta Peruko hainbat enpresa bisitatu ditut, arazoa gertutik ezagutzeko. Hainbat hilabete eman nituen biolentzia dagoen tokietan dauden enpresen eguneroko lana ikusten eta aztertzen; eta oso deigarria da Perun dagoen arazoa: hango indigenek borroka gogorra dute negozioa egiteko minerala erabiltzen duten enpresekin. Are gehiago, enpresak erretzen dituzte.

**Eta posible da halako egoeratan negozioak egitea?**

Bai, noski, eta horixe erakusten dut nire tesian. Kolonbian, eraso egin dieten enpresa askok zutik jarraitzen dute, hango gizartera zabaldu dira-eta. Hortxe dago gakoa: kontrako giroa dagoen tokietan negozioak egiteko ezinbesteko da bertan bizi den gizartea ulertzea eta gizartean integratzea.

Bestalde, biolentzia dagoen tokietan negozioa egin gura duenak lanpostuak sortu behar ditu. Bertako bizilagunek ikusten badute enpresako jabeak ez dituela haien beharrak kontuan hartzen, eraso egingo diote.

Gainera, enpresarendako lan egiten duten langile eta kontratistak ere ezagutzea komeni da. Haien ohiturak, ideiak eta sinismenak ezagutzen baditu, oztopo gutxiago izango du.

**Eta zerk harritu zaitu gehien?**

Nire ustez, larriena da enpresen aurkako erasoetan hildakoak daudenean. Langileek eta kontratistek enpresaren aurka egiten dutenean, hildakoak egon daitezke; eta, hain zuzen, hori saihestu behar dute.

**Peruko eta Kolonbiako egoerak jaso dituzu tesian, baina MCC ere aztertu duzu.**

Bai, hala da. Peru eta Kolonbia herrialdetarako irtenbidea topatu dut hemen: enpresen artean dagoen lankidetza eta irabazitako dirua berriro inbertitzeko dagoen joera. Kolonbian, esaterako, enpresa bat larri dagoenean, ez du laguntzarik jasotzen, eta desagertu egiten da. Hemen, aldiz, lankidetza dago enpresen artean. Horrez gainera, oso garrantzitsua da lanpostuak mantentzea. Biolentzia dagoen tokietan enpresak jartzen dituztenek irabazten duten dirua hobekuntzak egiteko erabili behar dute.

HILDAKOAK

**"Enpresen aurkako erasoetan hildakoak egoten dira, eta hori saihestu behar dute"**

LANKIDETZA

**"Enpresen arteko lankidetza indartu behar da biolentzia dagoen herrialdeetan"**

IKERTU

**"Inbertsioa egin aurretik enpresariek ikertu egiten dute negozioa jarriko duten herrialdea"**

**Baina egon daiteke enpresen arteko lankidetzarik biolentzia dagoen herrialdeetan?**

Ez da erraza, baina baietz esango nuke. Dena dela, lankidetza gauzatzeko beharrezkoa da fondo bat sortzea. Enpresek lortzen dituzten irabazietako zati bat lanpostuak mantentzeko erabili behar dute. Horrela posible dela uste dut.

Toki zehatz baten negozioa egin gura duenak hango ekonomia berpizten lagundu behar du; eta enpresen arteko lankidetzarekin errazagoa da.

**Dena den, enpresek ere jakingo dute giro ezkorra dagoen tokietan inbertitzea ez dela erraza.**

Bai, noski. Biolentzia dagoen toki batean negozioa egitea ez da erraza, eta, inbertsioa egin aurretik, enpresariek hori guztiori aztertzen dute. Adibidez, Kolonbian duela bi urte hasi ziren atzerriko enpresak berriro ere negozioak egiten, urte askoan betoa jarrita izan dute-eta.Horrek erakusten du enpresek ere aztertu egiten dutela negozioak non egin ditzaketen.

**Zure tesian batez ere Peru eta Kolonbiari buruz egiten duzu berba. Baina badaude egoera berean dauden herrialde gehiago.**

Batez ere Peru eta Kolonbia aztertu ditut, baina 67 herrialdetako enpresak aztertu ditut: besteak beste, Kamerun, Kongo, Azerbaijan, Irak, Palestina, Angola, Serbia, Kroazia eta Montenegro. Dena dela, gehienbat Afrikan daude halako egoerak.

**Amaitzeko ezer gehitu gura duzu?**

Eskerrak eman gura dizkiet tesia egiten lagundu didaten guztiei, batez ere tesiko zuzendari Fermin Garmendiari; hirugarren zikloko zuzendari Iñazio Irizarri eta Luxio Ugarteri; eta Mondragon Unibertsitateko irakaslei eta lankideei.



zabalik

Estepan Plazaola

# Hil-deiak

Hilari Gantxegi Osintxuko Eguzkitza baserrikoaren ahotsean grabatuta dago Anizeta Agirre auzotarrak kontatzen ei zuen ohitura polit hau: antzina, orain dela 100 urte inguru arte edo, norbait hiltzen zenean, deiadarka zabaltzen ei zen baserriz baserri berria. Bergaran norbait hiltzen zenean, han hasi eta Osintxuko kale-ondoko baserrietatik zehar goreneko baserrietara joaten ei zen ilddia (hil-deia) eta azkenak basoari hots egiten ei zion.

Gaur egungo hil-deiak azkarrago eta zabalago hedatzen dira. Baina gertukoenetan lagatzen duten samina eta hutsunea antzekoa da, zalantzarik barik.

Hil-deia heldu zitzaigun gaur astebete Arrasatetik, heriotza bortitz baten garrasia. Eta hildakoaren lagun bati, Al-Andaluseko idazkari eta PSEko zinegotzi ohi Rafael Gomezi, honakoa irakurri genion *Asteleheneko Goienkaria*-n: "Min egin dit ikusteak herriko taberna eta dendak ohiko jardunean lanean". Baina samin horren beroenean ere bihotz-zabal agertzen zen: "...elkarrizketa saioak berriro ere posible izatea nahiko nuke (...) alde batean zein bestean dauzkat lagunak, benetako lagunak". Denok jokatu beharko dugu buru, bihotz zein eskuzabaltasunez zulo honetatik irteteko.

**"Denok erabili beharko dugu eskuzabaltasuna zulo honetatik irteteko"**

**"Euskal kulturarekin lotutako bi lagunen hil-deiak ekarri dizkigu Bergarara martxoak"**

Euskal kulturarekin lotutako bi lagunen hil-deiak ekarri dizkigu, berriz, Bergarara martxoak: hilaren 2an, ezustean, Jesus Egileorren bihotza geratu zen eta 9an, aurreko domekan, Juste Amenabarrena. Bertsoak egin zuen ezagun Jesus Euskal Herri osoan. Juste, berriz, ezezagunagoa, 60-70 aldera euskarazko antzerkigintzan nabarmendu zen ERNAI taldearen bultzatzaile nagusietako bat izan zen. Bihoakie biei lerrootatik nire omenaldi xumea.

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Fausto Berazadi **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## NOIZ SARTUKO GARA UDABERRIAN?

**Irakurle batek galdera hori egin ditu aste honetan: "Noiz sartuko gara udaberrian?".**

Martxoaren 20an sartuko gara, 05:48an, hain justu ere. Hala, negua laga eta udaberria hasiko dugu.

Bestalde, martxoan ordu aldaketa ere izango dugu. Hain justu ere, martxoaren 30ean aldatuko da ordua: 02:00etan 03:00ak izango dira. Hurrengo ordu aldaketa urriaren 26an izango da: 03:00etan 02:00ak izango dira.

## BISTAREN ERREBISIOA EGITEKO PROZEDURA

**Irakurle batek mezua bidali digu galdetzeko ea zein prozedura jarraitu behar duen bistaren errebisioa egiteko, Gizarte Segurantzaren onuradun dela kontuan izanda.**

Ohiko errebisioa egiteko baldin bada, Debagoieneko optika gehienetan doan egiten dituzte halakoak. Gizarte Segurantzako onuradun izan ala ez, berdin dio. Optikan ordua hartzearekin nahikoa izaten da.

Errebisio arrunta baino zerbait gehiago baldin bada, eta oftalmologoarengana joateko beharra izanez gero, Gizarte Segurantzako onuradunen kasuan, familia medikuarekin txanda hartu beharra dago lehenik eta behin. Eta familia medikua izango da kasu bakoitza aztertu eta espezialistarengana bideratzea erabakiko duena.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## ARANTZAZURA IGOTZEKO AUTOBUS ZERBITZUA

**Arrasateko irakurle batek Oñatitik Arantzazura igotzeko autobus zerbitzuaz galdetu digu. Iaz zerbitzu hori egon zela badaki, erabili zuelako, eta jakin nahi du ea aurten ere badagoen.**

Bada, bai. Hain zuzen ere, igande eta jaiegunetan Udalak Arantzazura joateko autobusak jarri ditu aurten ere, betiere eguraldiak eragozpenik jartzen ez badu. Oñatitik orduro irtengo da autobusa, lehenengoa 07:30ean eta azkena 19:30ean. Eta Arantzazutik Oñatira, berriz, orduro irtengo da autobusa: lehenengoa 08:00etan izango da eta azkena, 20:00etan.

Bestalde, Aste Santuari begira, zerbitzu hori indartu egin du Oñatiko Udalak. Hala, domekan ez ezik, honako egunetan ere egongo da zerbitzua: martxoaren 19an –San Jose eguna–, martxoaren 20an –Eguen Santua–, martxoaren 21ean, –Egubakoitz Santua–, martxoaren 23an, –domeka– eta martxoaren 24an, –Pazko-astelehena–. Ordutegia ohikoa izango da.

marrazkiz

Unai Busturia



blog

## Odolaren mintzoa

**Anjel Lertxundi**
www.berria.info/blogak/lertxundi

Zutabe hau zuri utziko banu. Zutabe hau letrez betetzen badut. Erreakzionatzeko kemenik ez baduzu, erreakzioak hiraz gorri jarri bazaitu. Zer axola dio heriotzaren letrak beste deus idazten ez dakien baladunari? Zer axola, zailtasun guztiekin ere neuretzat ditudan herri, hizkuntza eta amets guztiak lapurtu eta akabatzen dizkidanari? Zer, herio dantzaren sokarekin etorkizuna urkabilur bihurtu nahi didanari?

Amildegia gero eta sakonagoa da, distantzia gero eta infinituagoa, eta haserrearen erraietatik irteten den mespretxua gero eta ozenago ari zaigu galdezka: zertarako behatza eskaini bihotza lapurtu nahi digunari?

Konstatazio bat: batzuen gerra inutil hau bukatzen hasi aurretik ere memoria hasita zegoen bere lehia irabazten, eta dagoeneko markatuak ditu atzoko balentria egin zutenak.

Itsu eta gor, hondamendia dute habia; odola, berriz, bazka. Ez naiz horkoa. Nork nahi du horko?

OHARRAK (Post scriptum):

Gaztelaniazko *sangre fría*-ri odol geldia deitzen zaio euskaraz.

## Asteburua

**Elena Laka**
www.goiena.net/blogak/elena

Hilketa guztiek ukitzen zaituzte, baina normala dena baino ahulago harrapatzen zaituztenean,

plazara

**Euskara elkarteen egoeraz dihardu lerrootan Jardun elkarteko teknikari Nerea Mendizabalek. Onartzen du elkarteok gainbehera daudela, baina azpimarratzen du oraindik ere erabat beharrezkoak direla. Eta beharrezkoak dira, batik bat, biztanleriaren %80 euskalduna izanik ere, erabilerari erreparatuz gero erdira jaisten delako. Hala, elkarteon erronka nagusia erabileran eragitea da.**

**Nerea Mendizabal ***

# Euskara elkarteen zeregina

Euskara elkarteen sorreraren mugimendu nagusia izan zen 80-90eko hamarkada inguruan. Debagoiendarrok aitzindari izan ginen horretan: orain dela 25 urte sortu zen Arrasateko Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkartea, Euskal Herri mailan lehenengoa, eta ondoren heldu ziren bailarako gainontzeko herrietara ere euskara elkarteak.

Duela 20-25 urte kalean premia handia ikusten zen euskarari bultzada emateko. Euskararen alde borrokatzeko euskaltzale ugari zegoen, jendea gogo betez zegoen eta euskaltzale haien indarretik abiatuta sortu ziren gurean euskara elkarteak.

Euskara elkarteen helburu nagusiak euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea eta suspertzea izan ziren hasierako urte haietan. Esparru guztietan euskaraz bizi ahal izateko baldintzak bermatzea, hain justu. Bi hitzetan esateko, euskararen normalizazioa.

Euskara elkarteen sorrera indartsu haren ostean ibilbide desberdinak bizi izan dituzte gure euskara elkarteek. Batzuk handituz eta indartuz joan dira; beste batzuek maila apalagoan egin dute aurrera; hainbat noraezean ere aritu dira; desagertzeko zorian ere ibili dira zenbait; eta tamalez, elkarte batzuk dagoeneko desagertuta daude. Hala eta guztiz ere, joera orokor gisa eta hasierako urte oparo haien ondoren, esango nuke gaur egun euskara elkarteak gainbehera bizitzen ari direla.




MIKEL ARROIABE

Lehenengo urteetan euskara elkarte bakoitzak, bere baliabideekin, bere bidea egiten jardun zuen. Baina denborarekin, nolabait ere guztiok bateratuta egotea guztiz beharrezkotzat jo zen, guztiok norabide berdinean joateko. Behar hartatik abiatuta sortu zen Debagune, Debagoieneko euskara elkarteen elkargoa.

Guztion indarrak batzeko, elkarlanean aritzeko, elkarri laguntzeko, sinergiak aprobetxatzeko... guztion indarrak batuta eraginkorragoak izateko asmoz. Gaur egun, Debagunneren bitartez euskara elkarteak bizitzen ari diren gainbeherari ere erantzun bat eman nahi zaio, egoera larrian dauden elkarteei laguntza eskainiz.

**"Joera orokor gisa, eta urte oparoen ondoren, esango nuke euskara elkarteek gainbehera bizi dutela"**

**"Euskara elkarteak oraindik beharrezkoak dira, errealitateak erakusten du lan handia dagoela egiteko"**

Euskara elkarteak oraindik ere guztiz beharrezkoak dira. Errealitateak erakusten digu oraindik ere lan asko dagoela egiteko euskararen alde. Ezagutzari dagokionez, datuak asko hobetu dira. Esate baterako, gaur egun biztanleriaren %80 inguru euskalduna edo ia euskalduna dela esan daiteke; aldiz, erabilera begiratzen dugunean kopurua ia erdira jaisten da. Egoera horren aurrean, euskara elkarteen erronka nagusia hurrengo urteetara begira euskararen erabilera bultzatu eta suspertzea da, euskararen erabileran eragitea. Beraz, euskara elkarteen aurrera begirako erronka nagusia erabileran eragitea izanik, sortzen diren proiektu eta egitasmoak ere horretara bideratuta daude (mintzapraktika egitasmoak). Aurrera begirako beste helburu bat euskara elkarteetako bazkideekin harremana sendotzea izango da, euskara elkarteen baliabide garrantzitsuena baitira. Gainera, guztion inplikazioa beharrezkoa ikusten dugu.

Oraindik ere zer egin ugari dago euskararen alde. Euskara elkarteek gogor jarraituko dute lan horretan, baina norbanakoen laguntza eta konpromisoa ere guztiz beharrezkoak dira. Denon artean, indarrak batuz lortuko dugu Euskal Herri euskalduna, jarrai dezagun guztion artean bidea egiten!

*Nerea Mendizabal, Debaguneko ordezkaria

zer deritzozu?

**www.goiena.net**

## Sukaldaritza ikastaroren baten izan zara?

| | |
|---|---|
| BAI | %70 |
| EZ | %30 |

**> BAI**
Bergaran sukaldaritza begetarianoaren gainean egindako ikastaro baten izan nintzen iaz. Asko ikasi nuen eta oso gustura egon nintzen. Aurten ere antolatu du Udalak beste halako bat sukaldaritza begetarianoa eta nutrizioaren gainean. Gomendagarria.
**Itsaso**

**> GABONETAN**
Gabonetako otorduak prestatzen ikasteko ikastaro baten izan nintzen behin. Motz egin zitzaidan. Iruditzen zait batzuetan halako ikastaroak motzegiak izaten direla.
**Maria**

**> EZ**
Sukaldaritza ikastaroetan ez dut sekula izenik eman. Kirol ikastaroetan, aldiz bai; ia urtero, gainera.
**Iker**

**> POSTREAK**
Postreak egiten ikasteko ikastaroan emango nuke izena gustura.
**Xabi**

**DATORREN ASTEKOA: Obama iritsiko da presidentziara?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

oraindik eragin gehiago egiten dute zuregan. {...}

Herritar bat tiroz hil dute. Sarraski bat da eta ez du logikarik ez gizalegerik. Herritar huts bat, zinegotzi ohi bat. Edozerk balio du, edozeinek balio du?

Eta nola bilatu dakioke logika politikoa edo militarra horrelako ekintza bati? Zein mesede egiten dio herri honi, gu herritarroi, hauteskundeen gogoeta-egunean hilotz bat jartzeak mahaiaren gainean? Zeinen alde egiten da hori? Zer lortzeko? Gatazka konpontzeko? Nik ere nahi dut gatazka konpontzea, hitz egitea, herriaren burujabetza, baina ez nago prest auzokoa hil diezadaten bide horretan. {...}

## ZPP gehiago?

**Pello Urzelai**
www.berria.info/blogak/pello

Lehen begiratuan, PSOEk irabazi ditu hauteskundeak Espainian, baina ez du lortu PPrengandik aldentzea, PPren presioa gainetik kentzea. Raxoiren bigarren porrotak eragin ditzake aldaketak PPren barruan, pertsonen gidaritzan, agian, baina ez ildo politikoan. Egoera honetan, ezin da espero horizonte itxaropentsurik euskal auziaren konponbideari begira. Are gutxiago, abertzaleen emaitzak ikusita. Gogoeta luze eta sakona eskatuko luke egoera honek, baina ez dakit denbora nahikorik izango den horretarako, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak berehala datozelako (beranduen datorren urteko apirilean). Arnasa sakon hartu beharko dute, sozialisten kanpainako spotak gomendatzen duen bezala.

koplak

**Julen Iriondo**

## Zorionak

Bizitzan guztia ez delako
iluna eta tristea
gaurko honetan erabaki dut
zorionak banatzea.

Zorionak Markel ze lan ona
Paris-Niza hasieran
igo ez arren ikusi zaitut
podiumaren gain-gainean.

Aurtengoan itzalean utzi
ditu aktualitateak
zoriondu gura ditut baita
emakume langileak.

San Jose ere gertu daukagu
eta aurten gainera jai
aita direnak ere ez ditut
zorion barik utzi nahi.

Hauteskundeak ere joan dira
ta ohikoaz bestela
zoriondu nahi ditut onartu
dutenak galdu dutela.

Bihar hogeitasei urte dira
zu munduratu zinana
muxu handi bat barru-barrutik
mila zorion Oihana.

## Burdinazko damak tente dirau

**Peli Beltran de Heredia**
(Aralar taldeko aurreko agintaldiko zinegotzi taldearen izenean)
Aretxabaleta

Jeneralak beti dira arriskutsuak, baina kontuz gero galoiak kendutakoan. Goitik behera agintzen ohituta dagoena nola ohitu hanka bikoen diziplinara? Hara, bada, nola diren gauzak! Bere desadostasunak eta planteamendu alternatiboak publiko egiteagatik maniobra zatar baten bidez Aralar gobernutik kanporatu zuen burdinazko dama, kritika politikorik ez baina sekulako astakeriak han eta hemen argitaratzen hasi ez da, bada?

2007ko aurrekontuak Aralarrek ez babestu izana ekarri du gogora, eta nola litekeen galdetzen du, oraingoak harekiko aldaketa gutxi omen dituela-eta. Barkatu, andrea, baina 2006ko aurrekontuan Aralarren eskari guztiak onartu eta gero, ia denak egin gabe utzi eta gero, tripako min pertsonalen baten ondorioz gobernutik bota ostean, eta geroztik egindako (edo hobe egin gabe utzitako) kontuez ez ja parte hartzerik, ezta informaziorik txikiena ere egon ez zenean, nola harritu liteke pertsona bat Aralarrek aurrekontuak ez babesteaz? Non bizi da emakume hau?

Babes ofizialeko etxebizitzak eta tasatuak, kultur etxe berria, Urkuluko jarduera plana eta abar PNVk egin omen zituen denak, berak bakarrik (bere berbetan EAJk 187, Aralarrek 0). Barkatu berriro ere, andrea, saiatu, saiatu zinen gainerakoei parte hartzeko aukera handirik ez ematen, baina hortik dena zuk zeuk egin zenuela esatera… Ezta militar buru batek ere ez zukeen horrela esango. Bide batez, galdetu promotorari ea nork jarri zuen VPOko etxebizitza gehiago egiteko baldintza, galdetu herriko kultura-taldeei nork landu zuen haiekin kultur etxean zer eta nola egin, galdetu…

Bestalde, aurrekontuak onartzeko prozedura ere ez zaio gustatu nonbait alkate ohiari. Hiru aste pasatxo gutxitxo dira nonbait. Ez al zaizkizu koloreak gorritzen hori esaterakoan, gobernukideek beraiek ere ez zutenean zurekin horrenbesteko aurrerapenez izaten eta are gutxiago ekarpenak egiteko aukera?

Bukatzeko zaharren egoitza aipatzen duzu. Ez duzu gauza bat zuzen esan. Udalak ez zuen ezer martxan jarri, ekimen pribatua baita eta Foru Aldundiak laguntzen baitio. Udalak eraikina egiteko lekuaren kalifikazioa aldatu besterik ez zuen egin, beno bai, presa gehiegi eta prozedura azkarregi bultzatua (susmo txarra sorrarazten). Baina pauso hori herritarrentzako onurak lotzeko aprobetxatzea eskatzen zuen Aralarrek, behin eta berriz. Baina zuk eta zure alderdiak doan eman zenioten, gainera, urtebetean horren gainean informazio bat bera ere eman gabe gainerako udal ordezkariei. Hasieratik babestu du Aralarrek herrian egoitza hori egitea, baina egoitzaren kudeaketa eredua, baldintzak eta abar dira inportanteak Aralarrentzat, ez egin delako dominak bularrean jartzea. Eta horretan dihardu orain ere. Zuk izan zenuen aukera eta ez zenuen egin. Orain, egiten ez baduzu lagundu nahi, utzi gutxienik besteei egiten. Herritarrek hala eskatu zizuten iazko maiatzean, gogoratzen?

## Hasta la vista, 'Pichas'

**Gaizka Eraña Arana** > Arrasate

Ez jat arrotza egitten San Andres auzue, gutako asko bertan hazittakuak gare. Geure auzue Doctor Bañez kalien hasi eta asko jota Errebuelta eta Hiruki plazan akabetan zan umetan. Torriak egin aurretik ezagutu gauen orduentxeko San Andres (Kuadrillako batzuk torria egitteko zulua euri-urez bete zan baten mutiko bat jausi eta zelan atera euen kontetan daue batzutan).

60ko hamarkada jendetsuan eta metro gutxitan tril egin gauen baserrittar, extremeño, andaluz eta castellanuen seme-alabak. Elkarreaz jolas, bizikletan ibilli eta burruketan egitten geuen.

Nerabezarue etorri zanian geure familixiak alde egin euen beste auzo batera eta lantzian behin Etxaluzera egitten gittuen bisittiaz gain gure bizitza apurtxo bat aldendu zan auzotik.

Edadian aurrera futbolian jokatzen hasi gitzen eta Mondran jende on asko euenez Toñinen Pedrusco C.F. taldia deskubritu gauen. Herrixen maketuen taldie zala esaten zan, kanpoko jentiaz osatute eula eta izena bera be horren erakuslie zala: Zelan jarri leikixo futbot talde bati Pedrusco izena!

Diru gutxi euken Pedrusco horretan ezagutu nauen *Pichas*. Gaur egun desagertute dauen delantero zentrue postuan jokatzen euen. Egixe esateko Isaiasek planta ona euken postu horretan jokaketako: tipo gogorra, altue eta nahiko bixkorra zan. Esan geike beterano bat zala gu ekipora aillegatu gitzenien.

Urte goxuek pasatu gittuen Pedruscon. Talde umilla bai, baiña giro edarra sortu zan geure artien. Bardin zan euskaldun edo erdalduna izen, bakotxak ekipuen euken funtziñue betetie eta ahal dala partiduen tarjeta barik urtetie zan inportantiena (Toñok bere poltsikotik ordaintzen zittuen-eta).

Aspaldi eta zinegotzixa zala, aldien trajez jantzitako morroi bat eukela igeltsoz zikindutako buzo urdinaz ikusi nauen *Pichas*. Neu saludetan hurbilddu zanian esan eustenaz akordetan naz oindio: "A estas alturas, ¿me ves a mi aprendiendo euskera? A los del partido nos han puesto una andereño ¡como a mis hijas!".

Fan zan egubakotxian lanien bertan jakin izan dot *Pichas*-i pasautakua. Peajerako birien bateron batek bost tiro bota eta bertan akabatu dau alaba nagusixa eta andriaren aurrien. Isaiasendako bere azkeneko partidua izan da bizitza honetan. Tristuria gaillendu jaten honetan galdera bat datorkitt burura: Hola jarraittu ezkero zelan bukatuko ete dogu guk partidua?

## Zintzoak

**Jon Mendizabal**
Bergara

Orain dela aste bi, poltsikoko diru-zorroa galdu nuen, bertan dokumentu guztiak nituelarik, baita dirua ere. Nik dokumentazioa itzultzea espero nuen, baina sorpresa hauxe izan zen: hurrengo goizean jaiki eta etxeko atariko postontzian diru-zorroa aurkitu nuela, eta ez bakarrik dokumentazioarekin, diruarekin ere bai. Sorpresa galanta. Nire eskerrik beroena diru-zorroa bueltatu zidan pertsonari.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**
**Telefonoa:** **943 25 05 05**
**Faxa:** **943 25 05 12**
**Posta elektronikoa:** **goienkaria@goiena.com**

M-7: Arrasate hunkitu zuen eguna

**ERREPORTAJEA**
Astelehenean, martxoak 17an, 22:00

Goitb
Goiena Telebista
*Ikustekoa!*




125 urte, etengabe, gure gizartearen ongizatearen alde lanean. Orain, adituek esaten digute kanpaina zirraragarri baten bidez eman beharko genukeela aditzera. Baina ezagutzen gaituzu. Guk nahiago zuri pertsona adimen-ezinduentzat Azpeitiko Antxieta Jauregian egin ditugun etxebizitzak erakutsi.
Inbertsio osoa Gizarte Ekintzan: 84 milioi €
Gizarte Ekintza, kutxaren izateko arrazoia.
ANTXIETA JAUREGIA
13:30 08/02/20
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa


Haur Hezkuntza 0-6 urte
www.arizmendi.ikastola.net
"ikastolan zenbat barre,
haurtzaroak mila kolore"
MATRIKULA EPEA ZABALIK
MARTXOAREN 31tik APIRILAREN 11ra
902 11 20 25
MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA
Arizmendi
ikastola
Ikastolen Elkartea



**> BERGARA**
Ehun bat buru erakutsiko dituzte Erramu Zapatuko azokan **> 24**



**> ARETXABALETA**
Arkupe deituko da Santa Kurtz eta plaza arteko kultur eraikina **> 31**



**> ANTZUOLA**
Torresoroako etxeak hartuko du aurrekontuetako zati handiena **> 36**



**> LEINTZ GATZAGA**
Herriko emakume elkarteak 20. urteurrena ospatu berri du **> 39**

**OÑATI** > TURISMOA

# Promozio zabala eginda, bisitari asko espero dituzte egunotan Oñatin

**INFORMAZIOA**
Oñatiko turismo eskaintza Gipuzkoan, Araban, Nafarroan eta Frantzian zabaldu dute

**IZENA EMANDA**
Dagoeneko hiru taldek erreserbatu dute bisita gidatu bana Oñatin

**ZABALIK**
Ibarreko bost turismo bulegoak zabalik egongo dira oporretan



**UNIBERTSITATEA** Sancti Spiritus Unibertsitatean hasten dira Oñatiko bisita gidatuak.

IRATI AGIRREAZALDEGI

**LEIRE KORTABARRIA** > OÑATI

Aste Santua gainean dugu, eta datorren eguaztenean hasita (martxoak 19) Debagoieneko turismo eskaintzaz gozatzeko modua izango dugu etxekook eta kanpokoek. Aste Santurako ordutegi bereziak gertatu dituzte Debagoieneko turismo zerbitzuek, eta langileak gertu daude ibarrera etorriko diren bisitariak hartzeko.

Turista gehienak Oñatin espero dituzte, eta horretara begira daude Oñatiko Turismo Bulegoko arduradunak. Ez da gutxiagorako: talde batzuek dagoeneko abisatu dute etorriko direla: "Hiru taldek erreserbatu dute bisita gidatua. Bartzelona, Sevilla eta Madrildik etorriko dira. Horrez gain, informazio eskaera asko jaso ditugu posta elektronikoz", azaltzen du Oñatiko Turismo Bulegoko Iñaki Igartuak.

**ARRIKRUTZERA JOATEKO GONBITA**
Oñatira etorriko diren turistek informazio gune berezia izango dute Sancti Spiritus Unibertsitatean. Han, bisita gidatuak hartu ahal izango dira. Bestalde, turismo bulegoan ere egongo dira langileak bisita gidatuak, eskuorriak, informazioa... emateko gertu. "Ez bakarrik Oñatin bertan ibiltzeko; Arrikrutzera eta Arantzazura igotzeko gonbidapena egingo diegu bisitariei", esaten du Iñaki Igartuak. Hala ere, ohartarazten du Arrikrutzeko kobazuloak ikusi gura dituztenek hobe dutela zuzenean hara deitzea, 943 08 20 00 telefonora, hain zuzen ere.

Aste Santuan, Oñatin dagoeneko finkatuta dagoen eskaintza eingo dute; hau da, Unibertsitatean eta Mikel Goiaingeruaren Parrokian ordubete inguruko bisita gidatuak. Bi daude aukeran. Berezitasuna da eskaintza hori zabaltzeko ahalegin berezia egin dutela: "Promozio handia egiten ibili gara; gure eskaintza Frantzian ere zabaldu dugu, eta informazioa banatu dugu Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan. Hala, espero dugu jende asko etortzea. Orain arte, Imsersoko taldeak, ikastetxeetakoak… etorri dira batik bat, eta orain beste talde desberdin batzuk etorriko direla uste dugu", esaten du Iñaki Igartuak. "Zaila da esaten nondik etorriko diren. Seguru asko, Kataluniatik eta Madrildik etorriko dira asko, baina baita Frantziatik ere". Igartuak gaineratzen duenez, "Aste Santuan eguraldiak ez du eragin handirik izaten bisitari kopuruan; normalena da jendeak erabakita izatea plana, eta horrekin jarraitzea".

**OÑATI-ARANTZAZU AUTOBUSA**
Aste Santuko jaiegunetan indartu egingo dute Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzua. Domekan ez ezik, Eguen Santuan (martxoak 20), Egubakoitz Santuan (21) eta Pazko-astelehenean (24) ere egongo da zerbitzua, eta baita San Jose egunean ere (19). Egun horietan, 07:30ean hasita, ordubetean behin, 19:30 arte egongo da autobusa; Arantzazutik Oñatira, 08:00etatik 20:00etara.

DEBAGOIENEKO TURISMO ZERBITZUAK

## Bisita gidatuak eskainiko dituzte ibarreko turismo bulego guztiek jaiegunetan

Oñatikoa ez ezik, Bergarako, Eskoriatzako (Ibarraundi museoa) eta Gatzagako (Labidea eta Gatz Museoa) turismo zerbitzuak ere indartu egingo dira Aste Santuan. Hala, ordutegi bereziak izango dituzte, eta bisita gidatuak eskainiko dituzte: Bergarako Turismo Bulegoan, zabalik dagoen artean, zerbitzu hori emango dute; Ibarraundi museoan, aldez aurretik eskatu beharko dira bisita gidatuak; Gatz Museoan, zapatuan, 12:00, 13:00, 17:30 eta 18:30ean eta, domeka eta jaiegunetan, 12:00 eta 13:00etan egongo da bisita gidatua egiteko aukera; eta Arantzazuko Santutegian, 10:30, 11:30, 12:30, 16:00 eta 17:00etan emango dute zerbitzu hori.

## Ordutegiak

**Bergara**
Martxoak 19, 20 eta 21: 10:30-14:00 eta 16:30-19:30. Domeka eta jaiegunak: 11:30-14:30.
943 77 91 28.

**Eskoriatza (Ibarraundi)**
Martxoak 19, 20, 21, 23 eta 24: 12:00-14:00 eta 17:00-20:00.
943 71 54 53.

**Oñati**
Martxoak 19-24: 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.
943 78 34 53.

**Leintz Gatzaga (Gatz museoa)**
Asteburu eta jaiegunak: 10:00-14:00 eta 17:30-21:00.
943 71 47 92.

**Arantzazu**
Martxoak 15-30: 10:00-14:00 eta 15:30-18:30.
943 79 64 63/943 71 89 11.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 15 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Domeka, 16 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Astelehena, 17 | Fernandez | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Martitzena, 18 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Eguaztena, 19 | Amezua | Santamarina, 32 | 943 79 09 74 |
| Eguena, 20 | Español | Arabako etorbidea, 14 | 943 79 18 65 |
| Egubakoitza, 21 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 15 | Urrutikoetxea | Orixondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Domeka, 16 | Urrutikoetxea | Orixondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Astelehena, 17 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Martitzena, 18 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Eguaztena, 19 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Eguena, 20 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Egubakoitza, 21 | Urrutikoetxea | Orixondo, 4 | 943 76 11 74 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 15 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Domeka, 16 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 17 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 18 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 19 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 20 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitza, 21 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 15 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 16 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 17 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 18 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 19 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 20 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 21 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia eskuratzeko, bidali SMS bat 7505 zenbakira "farma" hitza jarriz. SMS kostea 0,9 euro + BEZ.

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |

| Gasteiz | Aramaio | Arrasate |
|---|---|---|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 15**
Eguna lainopean hasiko dugu, eta giroak okerragora egingo du, batez ere, arratsaldean: zaparradak izango ditugu tarteka. Haizeak hegomendebaldetik joko du.



**Domeka, 16**
Giro desegonkorra izaten jarraituko dugu. Haizeak ipar ukitua hartuko du, eta tenperatura maximoak 17ºC-ren bueltan izango dira.

### EUSKAL HERRIAN

Zeruan goizetik hodeiak egongo dira, eta arratsaldean hodei mardulagoak agertu eta euritan hasiko du. Zaparradak botako ditu zapatu iluntzean hasita. Aste bukaerak aurrera egin ahala, giroa freskatzen joango da, haize zakarrarekin: mendebal/ipar-mendebaldera egingo du.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Astelehena, 10 — **3 ºC**

**MAXIMOA** Martitzena, 11 — **16 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **31 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 5** | 8 ºC | 3 ºC | 6,7 l/m² |
| **Eguena, 6** | 8 ºC | 5 ºC | 0,8 l/m² |
| **Egubakoitza, 7** | 11 ºC | 5 ºC | 4,8 l/m² |
| **Zapatua, 8** | 11 ºC | 7 ºC | 3,2 l/m² |
| **Domeka, 9** | 10 ºC | 5 ºC | 6,5 l/m² |
| **Astelehena, 10** | 12 ºC | 3 ºC | 9 l/m² |
| **Martitzena, 11** | 16 ºC | 8 ºC | 0 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA MARTXOAN



| Ilbete | Ilbehera | Ilberri | Ilgora |
|---|---|---|---|
| 7 | 14 | 21 | 29 |

## oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> Udalekuetako begiraleendako izenematea**
Xipizaro elkarteak zabaldu du uztaileko udaleku irekietan begirale izateko izenematearen epea, martxoaren 28ra arte. Agorrosingo ludotekan hartuko dituzte izenak, 17:00etatik 19:30era.

ARRASATE
**> Ludoteka ibiltaria Garagartzan egongo da**
Txatxilipurdiren ludoteka ibiltaria Garagartza auzoko Patxixenan egongo da bihar, zapatua, 11:00etatik 13:30era bitartean. Garagartza eta Gesalibarko 3-12 urte arteko umeendako da.

DEBAGOIENA
**> Aste bukaeretako irteerak gazteendako**
Manuel Larramendi Kultur Bazkunak *Euskal Herrian barrena* delako programa berritu eta martxan jarri du berriz. 18-30 urte arteko gazteek irteerak egiteko aukera izango dute. Informazioa: 943 69 64 50.

BERGARA
**> Hainbat ikastaro antolatu ditu Udalak**
Sendabelarren, aretoko dantzen eta sukaldaritza begetariano eta nutrizioaren gaineko ikastaroak antolatu ditu Udal Kultura Zerbitzuak. Izenematea zabalik dago kultura etxean. Argibideak: 943 77 91 59.

ANTZUOLA
**> Gurasoendako jolas eta kanta ikastaroa**
3 urte arteko umeen aita-amendako, umeen jolas eta kantak ikasteko jardunaldiak antolatu dituzte. Esku-jolasak, korru-jolasak, zabuan ibiltzekoak, mimika jolasak, trebetasunekoak... irakatsiko dituzte; eta lo kantak, jatekoak, altzoan hartu eta kantatzekoak, errezitatzekoak... Apirilaren 8an, 15ean eta 22an izango dira eskolak, 18:00-20:00. Izena emateko azken eguna gaur, egubakoitza, da, liburutegian edo udaletxean, eta 10 euro aurreratu behar da.

BERGARA
**> 79an jaiotakoek ospakizuna izango dute**
1979an jaiotako bergararrek kinto ospakizuna izango dute apirilaren 19an Tartufon. Izenematea zabalik dago; 35 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako 3035 0009 11 0090081875 kontuan.

ARRASATE
**> Urpekaritza ikastaroa antolatu du Udalak**
Getariako KSUB urpekaritza zentroak emango duen ikastaroa apirilaren 4an hasiko da. Dagoeneko izenematea epea zabalik dago; hain zuzen, bazkideek 350 euro ordaindu behar dute eta ez bazkideek, 370 euro. Ikastaroan parte hartzen dutenek nazioarteko urpekari agiria eskuratuko dute , munduko edozein lekutan urpekaritza egiteko aukera ematen duena. Informaziorako: 943 14 01 85 edo 627 93 03 30.

ARRASATE
**> Taila ikastaroa, apiriletik aurrera**
Arrasateko Tailaginen Elkarteak oinarrizko taila ikastaroa antolatu du apiriletik aurrera. Izena emateko eta argibideak eskatzeko, deitu honako telefono zenbakietara: 645 70 59 13 (Felix) edo 943 79 77 57 (Jose Mari).

BERGARA
**> San Joxepe elkartearen urteko batzarra**
Martxoaren 27an egingo du San Joxepe erretiratuen elkarteak urteko batzarra. Iazko akta onartu eta batzorderako hiru kide berri aukeratuko dituzte. Lehenengo deialdia 16:00etan da eta bigarrena, 17:00etan.

OÑATI
**> Arrantza-esparruan ibiltzeko paseak**
Arantzazuko arrantza-esparruan ibiltzeko paseen lehenengo zozketa martxoaren 18an izango da, 20:30ean, Pago-Uson.

ARRASATE
**> Pilates hasiera mailako ikastaroak**
Apirilaren 1, 3, 8, 10 eta 15ean izango dira eskolak, 19:30etik 20:30era. 31 euro da abonatuendako, eta 41, gainerakoendako. Izena emateko edo informazio gehiagorako, deitu 943 77 16 77 zenbakira.

OÑATI
**> Deustuko Unibertsitateko eskaintza**
Deustuko Unibertsitateko ordezkari batzuek euren eskaintza akademikoa azalduko diete Batxilergoko ikasleei eta gurasoei astelehenean, Txantxiku ikastolan, 18:30ean.

OÑATI
**> Trikiti Egunerako fandango eta arin-arin ikastaroak ematen dituzte, astean bitan**
Debagoieneko IV. Trikiti Eguna Oñatin egingo dute aurten, eta antolatzaileek fandango eta arin-arin ikastaroak antolatu dituzte. Oñatz taldeak ematen dituen ikastaroen hurrengo saioa bihar, zapatua, izango da, Errekaldeko lokaletan, 12:00etan. Martitzenetan, 20:00etan batzen dira.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

# Herri sarreran lanak egiten ari dira. Zer deritzezu?



**Irantzu Gabilondo**
Langilea
Eskoriatza

Aretxabaletatik Eskoriatzara etortzeko, bat-batean agertzen da herriko sarrera, lanogatik bertan baitago desbideratzea. Nik arriskutsua ikusten dut. Ea azkar bukatzen dituzten lanak.



**Joxe Otxoa-Aizpurua**
Erretiratua
Eskoriatza

Ni ez naiz autoarekin ibiltzen, autobusean pasatzen naiz. Nik uste dut hoberako izango direla bertan egiten ari diren lanak, nahiz eta autoek stop-etik irteteko asko itxaron behar duten.



**Angel Armendariz**
Erretiratua
Eskoriatza

Nik uste dut lanak amaitzen dituztenean ondo geldituko dela. Nire ustez autoentzat ondo dago; gainera, lehen orain baino arriskutsuago zegoen bidea. Espero dut azkar bukatuko dituztela lanok.



**Maria Jose Pagaldai**
Langilea
Eskoriatza

Herriko sarrera autoentzat pixka bat nahasgarria da, sarrera zein den ez baita argi gelditzen. Lanen hasieran gainera sustoren bat hartu dut. Ea, agindu bezala, ekainerako amaitzen dituzten.



**Antonio Aguado**
Langilea
Eskoriatza

Egia esan, herriko sarrera horretatik gutxitan pasa naiz orain arte. Autoak astiroago joan daitezen ipini dituzten oztopoak, gainera, asko dira, eta sarrera pixka bat arriskutsua da.

txistuak



GOIENKARIA

## Zubi azpia labainkorra eta arriskutsua da

Bergaran Candy Hoover azpian dagoen zubitxoko pasabideagatik kexa bat helarazi digu herritar batek. Berak dio bertako zoruan erraz labaintzen dela. Bertan, jende asko ibiltzen da paseatzen. Joan de aste honetan, emakume bat jausi zela esan digu herritar honek eta ez dela lehen aldia izan. Dagokionak, beraz, har dezala egoera hau konpontzeko neurria.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

## 25.000

Hori da Oñatiko parrokiako misio taldeak Afrikako Benin herrialdeko Pehounko izeneko herrian Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bat eraikitzeko lortu gura duen dirua. Proiektu honen helburua bertako 300 haurrei erabateko formazioa ematea da.

usteak uste

Irati Agirreazaldegi

## Autoa parean toka eta ni bozina joka

Lanetik atera nintzen lehengoan hitzordu bat nuela eta presaka. Autora ailegatu eta kaka! Beste auto bat nirearen aurrean lagata eta giltzarik gabe nik ezin aparta.

Jo eta jo bozina. Zelako buruko mina. Zarata eta hotsa dirudienez, ez du inork entzun baina.

Inork edo dagokionak ez behintzat. Abisua ez du hartu aintzat.

Hasi nintzen batera eta bestera begira eta udaltzainak ere azaldu ziren di-da

Hasi ziren galdezka, nirea bezalaxe autoa zeinena ote zen udaltzainen kezka. Jabea, ordea, ezkutuan edo iheska.

Udaltzainek deitu diote garabiari. Iritsi orduko ni autoa ateratzeko zain eta herritarrak adi-adi.

Badirudi garabia lanean ikustea ez dela ohikoa edo normala. Zurrumurrua eta begiak luze autoa altxatzen hasi ahala.

Autoan sartu eta berandu hitzordura. Beste gidariak isuna ordaindu zuen da nire zalantza edo duda.

Egun batzuek pasa dira eta ordukoa ahaztu gabe berriz errepikatu da nire buruko mina. Berriro ere autoa joan eta traban furgoneta urdina. Jo eta jo bozina. Gaur ere etorriko dira garabia eta udaltzaina?

5 galdera...

# Miren Barrena

MB jantzi denda
Oñati

**1. Zer da Miren Barrena jantzi dendan eskaintzen duzuena?**

Dendan dauzkagun arroparen neurriak 44tik 64ra artekoak dira. Adin guztietako emakumeentzako arropa saltzen dugu, eta mota guztietakoa, gainera: klasikoa eta modernoa, baita ezkontzetarako arropa ere.

**2. Neurri bereziko arropen dendak gero eta ugariagoak dira. Halakoen eskaria dagoela uste duzu?**

Eskaria badago, baina egoera oso kaskar dago, ez bakarrik denda mailan, baita orokorrean ere. Hala eta guztiz ere, euskaldunak sendoak gara, gorpuzkera zabalekoak, eta halako arropa asko saltzen da. Hala eta guztiz ere, garai txarrak ari gara pasatzen. Jende asko merkataritza-guneetara joaten da arropa erostera herritik kanpo, eta hori, guk bezalako saltzaile batzuek, asko nabaritzen dugu. Hala eta guztiz ere, orain artekoarekin pozik nago, gainera, apirilaren 15ean bi urte egin behar ditut denda zabaldu nuenetik.

**3. Jende askok uste du neurri bereziko arropak ez direla beste neurri bateko arropak bezain dotoreak. Zer uste duzu?**

Nire ustez, gauza asko aldatu da azken urteetan. Garai batetik hona neurri berezietako arropatan ez zegoen aukera handirik. Orain, berriz, neurri berezietako arropak egiten dituzten etxe oso onak daude, eta modernotasunari begiratzen badiogu neurri arruntetako arropen parean gaude.

**4. Zeintzuk dira aurtengo udaberri-udako joerak?**

Udan kolore argiak, zuriak, urdinak gorriak, krema koloreko konbinazioak... *Pirata* prakak ere, oraindik modan daude.

**5. Neurri berezietako arropa erosi nahi izanez gero non aurki zaitzakete?**

Gugana etorri nahi duen edonork Oñatiko Kale Zaharra kaleko 10. zenbakian aurkitu gaitzake.





**PRENTSAURREKOAK** PSE-EEk, EB-Zutik koalizioak eta Eusko Abertzale Ekintzak (hurrenez hurren) prentsaurrekoez baliatu dira azalpenak emateko. GOIENKARIA

**POLITIKA** > ARRASATEKO UDALAREN EGOERA

# Udal Gobernua apurtuta, haren etorkizunaren gainean berbetan

EB-Zutik koalizioak esan du "ezin" dutela "batera jardun" Udal Gobernuan

PSE-EEk EAEko kide guztien "dimisioa" eskatu du eta PPk, "zentsura mozioa"

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Zentsura mozioa. Horiexek dira martitzenean gauzatu zen Udal Gobernuaren apurketa ezkero gobernu horrekin lotuta gehien entzuten diren berbak. Paco Gartzia sozialistak Ino Galparsororen eta haren talde osoaren dimisioa eskatu zuen martitzenean. Haiek "duintasun hutsagatik dimititu egin beharko" luketela uste du ordezkari sozialistak, eta hauxe gaineratu zuen: "Utz diezagutela demokratoi herria gobernatzen".

**NEGOZIAZIO PROZESUA**

Horrekin lotuta, PSE-EEk iragarri du gainerako alderdi politikoekin berba egiten hasiko dela, "Arrasateko etorkizunari buruz berba egiteko". Zentsura mozioaren gaiari erantzunez, Gartziak gaineratu zuen "aukera guztiak aztertuko" dituztela. Eta esan zuen bien bitartean ez duela baloraziorik egingo.

**ZENTSURA MOZIOA**

Alderdi Popularrak, berriz, argi du zentsura mozioa egin egin beharko litzatekeela, besterik ez bada alderdi bakoitza erretrata dadin. Hala adierazi du Itziar Lamarain popularrak: "Egubakoitzean bertan esan nuen zentsura mozioa egin behar zela. Hortaz, ni ados nago berba egiteko guztiekin, mozioa aurrera eramateko. Eta gertatutakoa kondenatzen ez dutenek kanpoan egon behar dutela argi daukat".

Eusko Alderdi Jeltzalearen izenean, Luis Mari Apraitz bozeramaileak esan du gaia "sakondu" gura dutela eta "exekutiben eskuetan" utzi dutela, euren artean zer erabaki hartzen duten ikusteko; gaineratu du "haien instrukzioekin" egingo dutela euren "aukera".

**EB-ZUTIK, EA ETA ARALAR**

Ezker Batua-Zutik koalizioak, berriz, dio zentsura mozioaren berri komunikabideen bitartez dakitela eta oraindik ez dela inor joan eurengana. Julia Monge koaliziokideak gaineratu du "proposatzen duten momentuan "batzarrek erabaki beharko" luketela.

Bide bera segituko luke Eusko Alkartasunak. Pello Urizar bozeramailearen esanetan, "lehenengo aurkezpen ofiziala" jaso beharko lukete, "eta gero behar den moduan Arrasateko exekutibak aztertu beharko luke". Gaineratu du orain ez dela "posible izango", EAko presidente Amaia Larrañaga kanpoan delako.

Bukatzeko, Aralarrek dio lehendabizi proposamena aztertu egin beharko lukeela, Joxe Etxeberriaren esanetan, zentsura mozioa aurkezteko "alkategai bat behar duelako". Eta gaineratu du "gai hauek lasai hartu behar" direla, ez direla "berotasunean erabakitzeko gauzak izaten". Eta Isaias Carrascoren alabak esan zuena gogora ekarri du: "Hilketa hau ez dezala inork manipulatu". Horregatik, "gauzak patxadaz" hartu behar direla uste du Aralarko bozeramaileak.

**"EZ DAGO AITZAKIARIK"**

Udal Gobernuaren eteteari dagokionez, berriz, martitzenean gauzatu zen hori, EB-Zutik koalizioaren prentsaurreko baten bitartez. Rodriguez, Monge eta Ugalde zinegotziek azpimarratu zutenez, EAEk euren "konfiantza hautsi egin du, Isaias Carrascoren kontrako atentatua ez duelako gaitzetsi". EB-Zutik koalizioaren ustez, hori "ez da onargarria, ezin da ulertu eta justifikatu". Zera gaineratu zuten: "Ezin dugu batera jardun gobernuan, alde bat gauza ez denean hilketaren aurka egiteko. Ez dago aitzakiarik".

Horrekin batera, aipatu zuten "atentatuaren biktima etikoa" Isaias Carrasco izan dela eta "biktima politikoa", berriz, "ezker abertzale ofiziala bera".

**EAE-REN AZALPENAK**

Bestalde, Eusko Abertzale Ekintzak Isaias Carrascoren hilketa "gertaera larri" moduan kalifikatu zuen herenegungo prentsaurrekoan; EAEko zazpi zinegotziak Ino Galparsoro alkatea buru zutela izan ziren. Hala, lehenengo eta behin, alkateak "doluminak eman eta elkartasuna adierazi" zien Isaias Carrascoren senitarteko eta lagunei.

Ostean, atentatuaren hurrengo egunetan izandako jarreraren gainean, alkateak azaldu zuen ospitaletik joateko eskatu egin zietela eta "Alderdi Sozialistak Isaiasen gorpua udaletxean zegoen bitartean, ANVko zinegotzirik bertan ez izatea eskatu" ziela.

Bestalde, atentatua gaitzesteko izan dituzten eskaerek euren "kriminalizazioa eta joko politikotik kanpo uztea bakarrik bilatzen" dutela gaineratu zuen.

EB-Zutik koalizioak gobernua utzi izana, berriz, "errespetagarria izan arren ulergaitza" egiten zaiela azaldu zuen: "Udal akordioa sinatu genuenean eta orain, gatazka politikoari buruzko irakurketa bera egiten jarraitzen dugu. Gure aburuz, ez dugu hautsi inolako arau demokratikorik".

Udalaren jardunari dagokionez, berriz, lanean jarraituko dutela iragarri zuten: "Hartuta ditugun erantzukizun guztiei aurre egiten jarraituko dugu".

**PSE-EE-REN ERANTZUNA**

Gipuzkoako Alderdi Sozialistak, berriz, "iraingarri eta jasangaitz" moduan kalifikatu ditu alkatearen berbak. Miguel Buen idazkari orokorrak berretsi egin du alkateari eta EAEko gainerako zinegotziei egindako dimisio eskaera: "Duintasunagatik" dimititu beharko lukete. Buenek adierazi du "guztiz lotsagarria" dela Isaias Carrascoren hilketa "gertaera larri" moduan kalifikatzea. Gaineratu zuen "atentatua kondenatzea" dela "ETAri ezetz esateko keinu bakarra" eta argitu zuen "indarkeriarekin ez dagoela politikarik".

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Garagardo ona, giro hobea
TXIRRITA
Taberna
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

**HAUTESKUNDEAK 08** > EMAITZAK

# Iraulketa gertatu da hauteskundeetako Arrasateko emaitzetan

PSE-EEk, lehen indarra bilakatzeaz gainera, boto igoera handia izan du eta alderdi nazionalistek eta EB-Zutik koalizioak, berriz, beherakada nabarikoa

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Arrasaten ere, hauteskundeetako emaitzek gure ibarrean eta, oro har, Euskal Herrian izan duten joera bera jarraitu dute: PSE-EE izan da garaile garbia eta alderdi nazionalistek eta EB-Zutik koalizioak beherakada nabarmena izan dute; abstentzioa, berriz, ia 14 puntu handiagoa izan da.

**LEHEN EAJ, ORAIN PSE-EE**

Orain dela lau urte Espainiako Gorteetarako egin ziren hauteskundeetako datuak errepasatzen baditugu, orduan EAJ nagusitu zen Arrasaten, PSE-EE bigarren indar moduan sendotu zen eta Bergarako ekimenaren aldeko taldea (independentistak) hirugarren indarra izan zen, nahiz eta, orduan ere, legez kanpo utzi zuten alderdi hura.

Domekako bozketaren ondoren, berriz, erabat aldatu da orain eskema hori. Arrasaten, Alderdi Sozialista izan da garaile garbia, eta, gainera, boto hazkunde nabarmenarekin: 1.200 boto gehiago.

Bigarren indarra Euzko Alderdi Jeltzalea izan da, baina aipagarria da galdu duen boto kopurua: 1.132, edo, bestela esanda, bost puntu galdu ditu.

Hirugarren lekuan Alderdi Popularra kokatzen da. Eta hirugarren leku hori da, hain justu, beste berritasunetako bat domekako emaitzen ostean. Arrasaten, gainera, alderdien artean gutxien galdu duena PP izan da, puntu bakarra galdu du-eta, 315 boto gutxiagorekin.

Bestalde, orain dela lau urteko hauteskundeen ostean moduan, EB-Zutik koalizioa izango litzateke Arrasateko laugarren indarra, baina orain dela lau urte EBk nabarmen gora egin bazuen, oraingoan nabarmen egin du behera: hiru puntu edo 541 boto galdu ditu.

Eusko Alkartasunak eta Aralarrek beste hiruna puntu galdu dituzte. Bien artetik, EAk galdu ditu boto gehien: 549. Aralarrek, berriz, 484 galdu ditu.

Abstentzioari dagokionez, berriz, igarri egin da EAE-ANVk egindako deia, aurreko legealdiarekin alderatuz 13,83 puntu handiagoa izan da-eta.

**"ETA-REN KONTRAKO BOTOA"**

Balorazioen atalean, hausnarketa egin beharra; horixe da galtzaile atera diren edo behera egin duten alderdi politikoen balorazio orokorra. Hauteskundeen bipolarizazioa eta Espainiako Gorteetarako hauteskundeak izateari ere egotzi dizkiete emaitzak.

Garaile izan diren ordezkari sozialistek, berriz, balorazio gazia egin dute: "Martxoaren 9an demokrazia eta askatasunarengatik bozkatu zen", horixe esan zuten lehenengo eta behin martitzeneko prentsaurrekoan. Eta hauxe gaineratu zuten: "Bozkatzera joan ziren Arrasateko 10.902 herritarrek, bozkatu zioten alderdiari bozkatuta ere, domekako boto bakoitzean arrosa bat ipini zuten gure kide Isaiasengatik. Boto bakoitza izan da Isaiasen familiarendako besarkada bat" . Besteak beste, gehitu zuten boto bakoitza "ETAren aurkakoa" izan dela: "Uste dugu ETAri hauteskundeetan irabazi diogula".

## Hauteskundeetako datuak, auzorik auzo

| | ERDIALDEA | SANTA MARINA | MUSAKOLA | SAN ANDRES | URIBARRI | AUZUNEAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PSE-EE | 885 | 898 | 534 | 860 | 1.240 | 34 | 4.451 |
| EAJ | 1.111 | 84 | 313 | 308 | 554 | 79 | 2.449 |
| PP | 248 | 197 | 107 | 243 | 290 | 37 | 1.122 |
| EB-Zutik | 271 | 153 | 130 | 85 | 265 | 13 | 917 |
| EA | 400 | 31 | 134 | 115 | 165 | 31 | 876 |
| Aralar | 284 | 16 | 67 | 79 | 169 | 22 | 637 |
| Abstentzioa | 2.501 | 698 | 885 | 949 | 1.765 | 654 | 7.452 |

## Mezatara lehenengo, bazkaltzera gero

Hilabete hasieran bazkaria egin zutela-eta, ekitaldi haren oroitzapenerako argazkia atera zuten 1946ko kintoek. Kontatu dutenez, bazkaria egin aurretik, gainera, meza entzun zuten San Frantzisko elizan, urtean hil direnen alde. Eta horren ostean Buenuena jatetxean bazkaldu zuten.

Argazkian honako hauek azaltzen dira, ezkerretik eskumara begiratuta: Ormaetxea, Velez de Mendizabal, Isasa, Etxagibel, Gallastegi, Barrutia, Bouzo, Garmendia eta Otadui.



OIHANA ELORTZA

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Pando
Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

**MUSIKA** > HIP-HOP

# Hip-hop erritmoak gaur 22:00etan, 3.60 aretoan

Leyenda Urbana, Ztk Rap eta Puto Punki talde nafarrek egingo dute emanaldia. Sarrerak bost euro balioko ditu

**JASONE ZABALA** > ARRASATE

Gaur, 22:00etan hip-hop gaua izango da 3.60 aretoan. Jardungo duten hiru taldeak nafarrak dira: Leyenda Urbana iruñearrak, Ztk Rap atarrabiarrak eta Uharteko Puto Punki taldeak. Sarrerak bost euro balioko du.

Leyenda Urbana taldea izan zen Nafarroan halako musika estiloa egiten aitzindaria 1996 urtean. Duela urte batzuk Arrasateko gaztetxean ere egon ziren emanaldia eskaintzen.



**LEYENDA URBANA** Gaur gauean 3.60 aretoan egongo dira iruñarrak. GOIENKARIA

**HIP-HOP-AK JARRAITZAILE ASKO**

Hiru taldeek beraien saioa amaitzen dutenean, Al Rojo Vivo Sound Sistema ikuskizun bateratua eskainiko dute. Aretoko arduradun Igortz Iturbek esan digunaren arabera, "aspaldi egin izan dira hip-hop saioak herrian, baina gaur gauean etorriko diren taldeak zeintzuk izango diren kontutan hartuta, nahiko interesgarria izango da, aretora erritmo hauez gozatzera etorri nahi duen edonorentzat". Iturberen arabera, "herrian musika estilo hau latzen ez zela ikusten genuen, hutsune nabarmen bat zegoela, eta herrian jarraitzaile asko dituela kontutan hartuta, egoki ikusi dugu halako jaialdi bat aretora ekartzea". Arduradunek gaur gaueko jaialdian jende dezente biltzea espero dute, eta "gaurko saioan jendearen erantzuna ona baldin bada halako jaialdiekin jarraitzea da gure asmoa".

Gaurko hip-hop gauaren ondoren, bihar 04:00etan, Orlando Kimetz dj-aren musika saioa egongo da.

**ANTZERKIA** > MUSIKA KOMEDIA

# 'Inalanbrikak' ikuskizuna bihar, Amaia Antzokian

Hiru kantari dira protagonistak Vaiven Producciones taldearen antzezlanean

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Bihar, arratsaldeko bostetan hasita, gazteendako antzerki emanaldia egongo da Amaia Antzokian. Vaiven Producciones taldeak *Inalanbrikak* izeneko lana eskainiko du.

Aurretik sarrera erosi ez dutenek, txarteldegian bertan erosteko aukera izango dute 4 euroren truke, emanaldia hasi aurretik.

**HIRU KANTARI**

Egileen hitzetan "bost eta 90 urte arteko umeendako musika komedia" da. Ikuskizuna hasi aurretik hiru kantarik bizi dituzten urduritasun uneak kontatzen dira antzezlanean.

Olga Margallok eta Antonio Muñozek zuzendu duten lanean, Marina Aparicio, Getari Etxegarai eta Ainara Ortega dira aktore nagusiak.



**INALANBRIKAK** Argazkian, emanaldiko une bat. GOIENKARIA

**MUSIKA** > METAL KONTZERTUA

# Denial talde arrasatearrak beste lau metal talderekin jardungo du zapatuan gaztetxean

Vigoko Dantalion; Cordobako Ceranbix; Bilboko Omendark; eta Amurrioko Lupulo dira kontzertuko beste taldeak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

*Barreneko deabrua xtreme fest* izenburupean metal jaialdia izango da gaztetxean zapatuan, martxoaren 15ean.

Kontzertuak 19:30ean hasiko dira eta bost taldek jardungo dute taula gainean: Denial, death metal talde arrasatearra; Dantalion, Vigoko black metal taldea; Cordobako Ceranbix, grindcore taldea; Bilboko Omendark, black metal taldea; eta Lupulo, thrash metal talde amurrioarra. Kontzerturako sarrerak bost euro balio du.

**LAPURRETA DENIAL TALDEARI**

Kontzertu honen hasierako asmoa zen metal doinuen zaleei aukera ematea euren gustuko musikaz gozatzeko eta bide batez taldeei ere jendaurrean jarduteko aukera eskaintzea.

Orain dela bi aste, ordea, Denial taldekoek Aretxabaletan duten entsegu lokalean sartu ziren ezezagun batzuek eta gitarra, baxua, teklatua, ordenagailua eta nahasketa mahaia lapurtu zizkieten. Hortaz, pentsatu dute kontzertua baliatzea Denial taldekoei elkartasuna adieraztekо. Bestalde, Denialekoek zozketa txartelak ipini dituzte salgai lapurretaren ondorioei aurre egiteko dirua ateratzeko.

> ZINEA

## 'La Soledad' eta 'Magoriun y la tienda magica' pelikulak aste bukaerako zinema egitarauan

Amaia Antzokiko aste bukaerako zinema egitarauan bi pelikula iragartzen dira, *La Soledad* helduendako, eta *Magoriun y la tienda magica*, haurrendako. *La Soledad* Jaime Rosalesen azken pelikula ikusteko emanaldi bikoitza egongo da aste bukaeran: domekan, 19:30ean; eta astelehenean, 20:30ean, hain zuzen. Bestalde, haurrendako emanaldia domeka arratsaldean izango da, 17:00etan.

> IKUSKIZUNA

## Gorka Aginagalderen eta Luis Morenoren musika ikuskizuna Iamai tabernan, gaur gauean

Iamai kafetegiak egubakoitzetan antolatzen dituen umore gauen barruan, gaur, Gorka Aginagalderen eta Luis Morenoren musika ikuskizunaegongo da. Gaueko hamabietako den emanaldian musika eta gag-ak izango dira protagonista. Aste Santua eta gero, martxoaren 28an, Kike Matilla umoristaren emanaldia egongo da. Aldiz, apirilean, antzerkia, magia ikuskizuna eta umorezko gaua izango dira.







iKER

**SUKALDEAK:**
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

*Zatoz eta ikus itzazu!*

FAGOR



IBAI-GANE
janari denda

ZABALDU BERRIA!



**ORDUTEGIA:**
Astelehenetik ostiralera: 16:30-20:00
Larunbatetan: 10:00-13:30
martxoak 17 eta 18an egun guztia zabalik

Aurrez prestaturiko janari ontziratuak zure eskura!

•

Ur-bainu edo mikrouhin-labean azkar prestatzen diren jaki goxuak!

•

Aste Santuko oporretarako janaria prest!

OTALORA 36 (GURE LEKU TABERNAREN ONDOAN) • TEL.: 943 77 20 33

AUKEA

## Urpekaritza eta pilates ikastaroak hasiko dira

**X.U.** > ARRASATE

AUKEAk bi ikastaro berri ditu gertu, eta dagoeneko zabalik dago horietan izena emateko epea: urpekaritzakoa eta pilates ikastaroak.

Hain zuzen ere, pilates ikastaroa hastapenekoa izango da, eta astelehenetik eguenera arte emango dituzte saioak, ordutegi zabalean (astelehenetan eta eguaztenean: 15:00, 17:30, 19:30 eta 20:30; eta martitzenetan eta eguenetan: 18:30). Ikastaro horrek bazkideendako 31 euro balio du eta bazkide ez direnendako, 41 euro. Informazio gehiago, 943 77 16 77 telefono zenbakian.

**URPEKARITZA IKASTAROA**

Aurten ere urpekaritza ikastaroa antolatu du AUKEAk; apirilaren 4an hasiko dute. Ksub taldeak emango du (19:00etan hasita). Ikastaroa kiroldegian bertan emango dute, bost eskola teoriko izango dira, beste horrenbeste saio egingo dituzte kiroldegiko igerilekuan, eta beste lau praktika egingo dituzte itsaso zabalean (Getariako portutik itsasontzian aterata).

Prezioari dagokionez, AUKEAko bazkideek 350 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 370 euro. Urpekaritza ikastaro horren gaineko informazio gehiago *www.ksub.net* webgunean eta 943 14 01 85 edo 627 93 03 30 telefono zenbakian.

**BULEGO ORDUTEGI BERRIA**

Zerbitzu hobea emateko asmotan, Musakolako kiroldegiko bulego ordutegia zabalagoa izango da aurrerantzean. Hala, astelehenetik egubakoitzera arte 08:00etatik 19:00etara egongo da zabalik. Orain artekoarekin alderatuta, alde handia dago, orain arte goizetan 09:00etatik 12:30era eta arratsaldeetan 15:30etik 18:30era egoten zelako zabalik.



**TAULAPEAN** Alartzia, Kintana eta Biain, Ardoiko jokalariekin lehian, ligan jokatutako partiduan. GOIENKARIA

**SASKIBALOIA** > IGOERA FASEA

# MUk Iturripeko zaleen babesa izango du igoera faseko bigarren lehian

Mondragon Unibertsitateak bihar, zapatua, jokatuko du zazpigarren dagoen Iruñeko Igeriketa Taldearen kontra (18:00)

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Bitxia da Mondragon Unibertsitateak bihar izango duen kontrarioaren izena, CNP (Club Natacion Pamplona). Iruñeko unibertsitate publikoaren barruan dagoen kluba da, eta talde sendoa bada ere –harrobiko talde mordoa dituzte–, igeriketa taldearen izena dute.

Hain zuzen ere, hori da Iñaki Merinoren mutilek talde horri buruz dakiten apurra: "Orain dela lauzpabost urte jokatu genuen talde horren kontra, baina kategoria galdu zuten gero, eta harrezkero ez dugu topo egin", adierazi du aste barruan taldeko kapitain Jagoba Gamarrak: "Baliteke ezagutzen dugun jokalariren bat edo beste izatea, baina taldea ez dugu ezagutzen". Biharko norgehiagokari begira, Merinok jokalari guztiak izango ditu eskura.

**ETXEKO LEHENA**

Mondragon Unibertsitateak igoera faseko bigarren jardunaldia jokatuko du bihar, baina Iturripeko zaleendako estreinaldia izango da –igoera fasean bost partidu jokatuko dituzte etxean–. Hala, zuri-moreek etxekoen bultzada izango dute bihar: "Iturripen jokatzeko gogoz gabiltza, aspaldi ez dugulako etxean partidurik jokatu. Gainera, etxean ez dira horrenbeste partidu geratzen".

Sailkapenari begiratuta, Gasteizko Leclerc izango da igoera fasean kontrario gogorrena: "Oso itxura oneko taldea da, jokalari garai eta gorpuzkera handikoekin. Joan den astean errepasoa eman zioten Baskoniari (93-71), eta hori adierazgarria da".

### Igoera faseko sailkapena

| | |
|---|---|
| Mondragon Unibertsitatea | 17 |
| E. Leclerc Vitoria | 16 |
| Viajes Marfil | 14 |
| Urdaneta | 14 |
| Valsay Ardoi | 13 |
| Cafes Aitona | 13 |
| CNP-UPNA | 12 |
| Tabirako Baque | 12 |
| Fundacion Baskonia | 12 |
| Zornotza | 12 |

Iturria: www.basketbasko.com

**futbitoa zaldibar**

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Cipris-Dublin | **3-1** |
| Dribling-Iluntz | **1-0** |
| Betrayer-McAwen Dauen | **4-6** |
| Total Disaster-Saukelu Abian | **4-12** |
| Bar Kokots-Cicatrus | **4-6** |
| Kalapatxak-AT Celaya | **4-2** |
| Ekaitz Taberna-Iriztu Taberna | **4-3** |
| Equs-HLB 108 | **3-4** |
| Lasagabaster-THC | **1-0** |

**PARTIDUAK**

| Martxoak 15, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **09:50** Abokajarro-Iturriotz Tab. | **Lasagabast.** |
| **11:00** Equs-Lasagabaster | **Iturriotz Tab.** |
| **12:00** Dribling-Saukelu | **Equs** |
| **13:00** Betrayer-Cicatrus | **Saukelu** |
| **15:50** Bar Kokots-Iriztu Tab. | **AT Celaya** |
| **17:00** AT Celaya-Total Disaster | **Bar Kokots** |

| Martxoak 16, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **11:50** HLB 108-Ekaitz Taberna | **Abokajarro** |
| **13:00** Kalapatxak-Abokajarro | **HLB 108** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | McAwen Dauen | 39 | 13 |
| **2.** | Dribling | 31 | 13 |
| **3.** | Betrayer | 28 | 13 |
| **4.** | Cipris | 28 | 13 |
| **5.** | Lasagabaster | 23 | 13 |
| **6.** | Dublin | 22 | 13 |
| **7.** | HLB 108 | 22 | 13 |
| **8.** | AT Celaya | 21 | 13 |
| **9.** | Iriztu Taberna | 21 | 13 |
| **10.** | Ekaitz Taberna | 19 | 13 |
| **11.** | Saukelu | 17 | 13 |
| **12.** | Kalapatxak | 17 | 13 |
| **13.** | Iturriotz | 12 | 12 |
| **14.** | Equs | 12 | 11 |
| **15.** | Bar Kokots | 12 | 13 |
| **16.** | Cicatrus | 12 | 13 |
| **17.** | Abokajarro | 10 | 13 |
| **18.** | Total Disaster | 6 | 13 |
| **19.** | Iluntz | - | - |
| **20.** | THC | - | - |

### Beste talde bat txapelketatik kanpo geratu da: Iluntz

Txapelketa aurrera doa, eta talde batzuk sailkapenean gora egiten duten bitartean, poliki-poliki, beste talde batzuk geroago eta fundamentu gutxiago erakusten dute. THC taldea izan zen antolatzaileek txapelketatik kanpo utzi zuten lehenengo taldea, eta joan den asteburuko jardunaldia eta gero, Iluntzek bide bera jarraitu du: pena, izan ere, txapelketari kalte egiten dio horrek. Hala, batek baino gehiagok txapelketan parte hartu behar duela erabaki aurretik, birritan pentsatu beharko luke, konpromisoari txapelketa osoan eutsi egin behar zaio-eta, ez hasierako sei jardunaldietan.

Horrekin batera, jakin oraingo asteburuko jardunaldia eta gero Zaldibarko txapelketak deskantsua izango duela, datorren asteburuan Aste Santua tarteko ez delako jardunaldirik egongo. Eta, Aste Santu ondoren Kopa txapelketak protagonismoa hartuko du berriro.

IAMAI kafe ANTZOKIA
ARRASATE
Gaur, MARTXOAK 14,
00:00etan
Gorka Aginagalde & Luis Moreno "Pirata" | Umorezko saio musikala

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

arbolapeta
arrasate
beinke

arrasatearrak kanpoan

**Amaia Bedia** > Humanitate ikasketak egiten ari da Bartzelonan bizi da

# "Bartzelona hiria, batez ere erdialdea, museo bat da"

JASONE ZABALA > ARRASATE

**Amaia Bedia 2002ko irailean joan zen Bartzelonara moda ikasketak hobetzera. Arrasatera bueltatzeko asmoa zuen arren, bertan gelditu zen bizi izaten. Gaur egun denda bateko lana eta Humanitate ikasketak uztartzen ditu.**

Amaia Bedia arrasatearrak, Bartzelonako ikasketak amaitu ondoren, Arrasatera bueltatzeko asmoa zeukan, baina han gelditu zen bizitzen. Katalunia aldean jendea ezagutzen hasi zen, hiriko bizitza gustatzen hasi zitzaion, eta bertako mutil batekin maitemindu zenez, planak aldatu egin ziren berarentzat. Bediaren arabera, "hasieran Bartzelonako erritmoa hartzea nahiko zaila egiten da, baina hemen denbora bat egon eta gero, atsegina ere egiten zaizu". Gaur egun bakarrik bizi da, katuarekin batera. Bertako jendeari dagokionez, "nahiko itxia da hasieran, baina pixkanaka, ezagutzen zaituztenean, lagun oso onak dira", adierazi digu Bediak. Asteburuetan denbora gutxi du disfrutatzeko: "Denda batean ari naiz lanean astelehenetik zapatura arte, eta astelehenetik egubakoitzera, unibertsitatera noa, beraz, domekak bakarrik".

**"Hasieran Bartzelonako erritmoa hartzea nahiko zaila egiten da, dena oso azkar baitoa, jendea beti presaka dabil"**


Amaia Bedia.

**JANARIA FALTAN IGARRI**

Janari aldetik, esan beharra dago asko igartzen duela faltan Euskal Herriko janaria: "Gurasoak hona bisitan etortzen direnean ere, etxeko janari piloa ekartzen didate. Esan beharra dago hemen ere oso ondo jaten dela, baina ez da gauza bera". Kulturalki, Bartzelonak gauza pila bat ditu ikusteko: Gaudiren eraikuntzak, museoak... "Hiria, batez ere erdialdea, museo bat da. Niri, bereziki, Gotikoa atsegin zait, kale estu eta plaza ezkutuekin", dio Bediak. Asko igartzen du faltan, baina, kaletik joan eta jendea ezagutzea, bertakotasuna, eta baita Arrasate ere.

txutxu-mutxua

## Besaide Mendi Elkartekoek irteera egin zuten pasa den domekan

**Joan den domekan irteera bat egin zuten Besaide Mendi Elkartekoek. Guztira Arrasaten 60 pertsona inguruk hartu zuten autobusa. Lizarrustin hasi zuten ibilbidea 08:45ean eta Ataunera 13:30ean heldu ziren. Bidean Lareoko urtegitik, Sarastarritik eta Agaotzetik pasa ziren. Hamarretakoa Sarastarrin egin zuten. Eguna lainotsu eta euritsua izan zen. Horregatik egondako mendi puntetatik ikus daitezkeen paisaia ederrak ezin izan zituzten ikusi. Hurrengo mendi irteera Mañaria, Leungane eta Artaunera izango da. Apirilaren 13an egingo dute.**


BESAIDE ELKARTEA

bere ustez


Oihan Zubizarreta

## Hitzak, bizitzak eta gurutzeak

Gurutzegramatan nahi genituzkeen hitz guztiak kabitzen ez diren bezalaxe, ez dira kabitzen bizitzan gurutzegramatan kabitzen diren hitz guztiak.

Esan nahi dut, askotan agertzen direla inoiz berriz erabiliko ez ditugun hitzak eta askotan bizitzan lekurik ere izango ez dutenak. Eta horregatik bizitza, horren gauza handia eta zabala izanik, txiki gelditzen da zenbait hitzi lekua egiterako orduan. Hitzen letrak laukietan sartzen diren bezalaxe, bat etorri behar dute elkarren artean. Bizitzan pertsonok ere bat etorri beharko genuke, gurutzatuko ditugun pertsonekin inoiz letraren bat trukatzeko bada ere. Hitzak gurutzatu egiten dira bizitzan eta bizitzak hitzetan. Ordaindu egiten dira nobelagile eta periodisten lanak, eta poemak idaztea doakoa bihurtzen da hitzaren bizitzan eta bizitzaren hitzetan. Eta hitzak nire gogoan bueltaka, ni iritsi naiz hitzik gabe bidegurutzera.

**"Eta hitzak nire gogoan bueltaka, ni iritsi naiz hitzik gabe bidegurutzera"**

Hitzak sobera daudenean isilik egotea hobe baita, gezurrean, hipokresian eta ikuskizunetan erortzea baino. Gurutzegrama hutsik dago edo hutsik utzi dute, bizitzako hitzek noiz beteko duten zain.




Lore
- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE




**OZAETAN** Irudiko 5.100 metro karratu inguruko orubean egingo dute eraikina. Umeendako jolaslekua ere egingo dute. E.A.

**HIRIGINTZA** > URBANIZAZIO LANAK

# Babestutako 32 etxe egingo dituzte Ozaetan

Inmobiliaria Bittor SLk eraikiko ditu etxebizitza horiek eta Udalak, berriz, kudeatu; bi aldeek eguazten eguerdian sinatu zuten hitzarmena

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Udalak eta Inmobiliaria Bittor SLko ordezkari Bittor Alberdik hitzarmena sinatu dute asteon. Hitzarmen horrek oraindik ere indarrean dauden arau subsidiarioetan du oinarria eta Ozaeta auzoko gune baten garapena zehazten du: 3.2 deritzon gunea.

Hitzarmen horren arabera, Alberdiren enpresak konpromisoa hartu du esandako gunean babes ofizialeko 32 etxebizitza eraikitzeko eta horretarako beharrezkoa den dokumentazio eta proiektuak lantzeko. Era berean, konprometitu da kostu osoaren %7ko abala jartzera eta %10eko hirigintza aprobetxamendua Udalari ordaintzera: 67.200 euro.

**ZOZKETA, UDALAREN ESKU**

Agurne Barruso alkateak eguazteneko sinadura ekitaldian azaldu zuenez, Ozaetan eraikiko diren etxebizitzen adjudikazio prozesua Udalaren esku geratuko da; Udalak zozketatuko ditu eta hura izango da prozesu guztia kudeatuko duena.

Bestalde, gehitu zuen 32 etxebizitza eraikiko diren arren, zozketara 27 bideratuko dituztela. Izan ere, gainerako bostak Zubiaurren duela hiruzpalau urte eraitsi zuten eraikin bateko bizilagunak kokatzeko izango dira.

Barruso alkateak hitzarmenaren garrantzia ere azpimarratu zuen: "Hitzarmen hau garrantzitsua eta positiboa da Udalarendako: alde batetik, exekuzio unitate horren garapena bermatzen duelako; bestetik, babes ofizialeko etxeak egingo direlako eta, azkenik, babes ofizialeko etxe horien kudeaketa Udalaren esku geratzen delako eta modu horretan, nolabait, herritarren interesak bermatuago geratzen direlako".

Etxebizitzotan izena emateko prozedurari dagokionez, oraindik ere arautu gabe dagoela aurreratu du alkateak, eta zehaztu bezain pronto emango dutela aditzera.

**LANAK UDAZKENEAN HASIKO DIRA**

Bittor Alberdik sinadura ekitaldian azaldu zuenez, oraindik ere ez dituzte etxebizitzak eraikitzen hasteko beharrezkoak diren baimen guztiak eskuratu. Hori horrela, aurreratu zuen udazken aldera aurreikusten dutela eraikitzen lanekin hastea. Zozketari dagokionez, Alberdik azpimarratu zuen ez dela lanak hasi aurretik egingo.

Eraikiko duten etxea urbanizatutako 5.190 metro koadro inguruko orubean egongo da kokatuta. Atari bakarra izango du eta behe solairua eta hiru pisu izango ditu, guztiak etxebizitzetarako. Bi soto ere baditu, garajeendako. Etxebizitzak izango dira bat, bi edo hiru gelakoak eta etxeetako bakoitzak garajea eta trastelekua izango du.

> IKASTAROAK

## Sukaldaritza begetarianoaren gaineko ikastaroa

Kultura Zerbitzuak beste hiru ikastaro antolatu ditu datozen bi hilabeteetarako. Aretoko dantzak apirilean izango dira, 4an hasi eta ekainaren 27ra arte, egubakoitzetan, eta izena emateko azken eguna martxoaren 14a da. Sukaldaritza begetariano eta nutrizio ikastaroa ere apirilean hasiko da, 2an, eta ekainaren 25era arte iraungo du. Izenematea martxoaren 14ra arte da. Sendabelar ikastaroa ere izango da, maiatzaren 6tik 29ra eta izenematea apirilaren 27an itxiko dute.

Ikastaroon prezioa 15 euro da –Bergaratik kanpokoendako, 20– eta izenematea kultura etxean da (943 77 91 59).

> ELKARTASUNA

## Alcer elkarteak mahaia jarriko du bihar, zapatua

Organo emaile berriak lortzeko eta informazioa zabaltzeko mahaia jarriko du bihar, zapatua, Alcer elkarteak. 11:30etik 14:00ak bitartean jarriko dute mahaia, Irala kalean –Peñalba ondoan– eta herritarrei dei egiten diete hara hurreratu eta emaile egiteko. Bestalde, iaz emaile egin zirenei jakinarazi nahi diete oraindik txartelik jaso ez badute hurbil daitezela bihar mahaira, akatsa konpontzeko.




TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84



**JAIAK** > ERRAMU ZAPATUKO FERIA

# Biharko ferian, 100 bat animali eta ia 200 postu

## Aurtengo berrikuntza nagusia herri bazkaria da, eta mahoiz jantzita joateko egin dute dei

## Jardunen lehiaketan 33 txorimalok hartuko dute parte; 12:30ean jakinaraziko dute irabazlea

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Bihar, Erramu Zapatuko feria ospatuko da eta lau gunetan banatuta egongo da: San Martin eta Munibe plazak; Seminarioa eta Ibargarai aldea; Simon Arrieta plaza eta Fraiskozuri plaza.

San Martin eta Munibe plazei dagokienez, artisauak egongo dira, batik bat; 100 bat postu. Seminarioan eta Ibargarai aldean, haragitarako euskal arrazako ganadua–50 bat buru, guztiak Gipuzkoakoak–, hegazti eta bestelako animaliak eta baserriko makineria egongo dira ikusgai. Horrekin batera, Seminarioan egongo dira Jardunek jarritako talo postua eta Giokela saiheskia dastatzeko beste bat. Fraiskozuri eta Simon Arrietan, jaki postuak egongo dira –80tik gora– eta Fraiskozurin bi talo postu ere bai.

**BAZKARIRA, MAHOIZ JANTZITA**

Herri bazkaria da aurtengo feriak ekarriko duen berrikuntza nagusia. Herriko lagun talde batek Udalari egindako proposamena izan da bazkari hori antolatzeko abiapuntua. Aritz Alustiza antolatzaileetako batek azaldutakoaren arabera goizeko feriak herrian jartzen duen giroa luzatzea da bazkariaren helburuetako bat, eta feriak daukan euskal kutsua ere azpimarratu du. Hori horrela, dei berezia egin diete herritarrei: "Mahoiz jantzita atera daitezela eta umeak baserritarrez".

Bazkarirako 150 sarrera jarri zituzten salgai eta berehala saldu ziren guztiak. Horregatik, beste 50 atera dituzte antolatzaileek eta Pol-Pol eta Kortazar tabernetan daude salgai, 15 eurotan.

Bestalde, bazkaltzeko lekuari dagokionez, eguraldi ona zein txarra egin, Seminarioko jolasleku estalian izango dela azpimarratu dute antolatzaileek.

**TXORIMALO LEHIAKETA**

Erramu Zapatuko ferian egiten den tradizio handiko ekitaldia da Jardun elkarteak antolatutako Txorimalo lehiaketa. Aurten 33 taldek hartu dute parte: 27 dira, 12 urtetik beherakoak; bost, 12 eta 60 urte bitartekoak eta bat, 60tik gorakoa. 11:00etarako ikusgai egongo dira txorimaloak Ibargarai kalean eta 12:30ean izango da sari ematea. Jardunetik azpimarratu dute, aurten hartuko dutela parte Gureak elkarteak, Bergarako AHTren kontrako taldeak eta Errezilgo familia batek.



**TALOAK** Jardunek Seminarioan jarriko du aurten talo postua. GOIENKARIA

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

### Aldaketak trafikoan eta aparkatzeko orduan

Biharko egunak hainbat aldaketa eragingo ditu trafikoan eta aparkatzeko orduan. Hori horrela, Udaltzaingotik oharra bidali dute kontuan hartu beharreko hainbat argibiderekin.

Gaur, egubakoitza, 08:00etarako, Fraiskozuri eta Ibargarai kalea –Miguel Altunako semafororaino– autoz libre laga beharko dira, alde bietan. Izan ere, gaur hasiko dira salmenta postuak muntatzen. Bihar, zapatua, Ibargarai eta Fraiskozurik kaleak zirkulaziora itxita egongo dira eta normalean horitik doazen ibilgailuak desbideratuko dituzte Irizar, Zurradero eta Matxiategi kaleetatik. Horrek guztiak hainbat traba eragingo ditu trafikoan, erdialdean, batik bat. Hori dela eta, Udaltzaingotik gomendatu dute autoa ez erabiltzea erdigunean.

Bestalde, erdialdean emango den aparkaleku galera dela eta, gaurko 17:00etatik Martinez de Iralako patioan aparkatu ahal izango da.

**AZPIEGITURAK**

# AHTren gaineko aste bukaera

## Bergarako AHTren kontrako taldeak informazioa emateko ekintzak antolatu ditu

**M.B.** > BERGARA

"Proiektuaren bultzatzaileek darabilten ezkutukeria kontuan izanda", AHTren gaineko informazioa zabaltzea da batik bat, Bergarako AHTren kontrako taldeak antolatu duen ekitaldi sortaren helburua, haien esanetan. *Salgai ez dauden lurrak ezin dira erosi* lelopean antolatu dute eta askotariko ekitaldiak izango dira gaur, bihar eta etzi. Esaterako, bihar, zapatua informazio mahaia jarriko dute kalean.

### Egitaraua

**14, egubakoitza**
22:00 Afganistan ye-yes eta Burux Lee taldeen kontzertua, gaztetxean.

**15, zapatua**
Goizean barrena, informazio mahaia jarriko dute.
12:00 Parodia, herriko kaleetan.
14:30 Baba-jan begetarianoa, gaztetxean.

**16, domeka**
18:00 Film emanaldia, gaztetxean: *Mad Max* filma.

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin
Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa **16** urte bete aurretik!
Eta **autoarena 18** urte bete aurretik!
**943 76 16 63** BERGARA
LARRAÑAGA
AUTOESKOLA

**ERRAMU-ZAPATUA** > BERTSO JAIALDIA

# Bihar gauean, bertso soinuz beteko da Udal Pilotalekua

Lizaso, Egaña, Zubeldia, Gaztelumendi, Mendiluze eta Bartra izango dira taula gainean 22:30ean

**JASONE ZABALA** > BERGARA
Aurten ere, dagoeneko ohitura bihurtu den legez, bihar, Erramuzapatu eguna, bertso jaialdia egongo da Udal Pilotalekuan, 22:30ean. Sarrera bost euro izango da. Hain zuzen ere, Bergarako Kultura Zerbitzuak antolatu du, Bergarako Bertso Eskolarekin elkarlanean.



**BERTSO SAIOA** Besteak beste, Lizaso eta Egaña egongo dira biharko jaialdian. GOIENKARIA

**ESPERIENTZIA ETA GAZTETASUNA**
Sei bertsolarik hartuko dute parte: Andoni Egaña, Iker Zubeldia, Beñat Gaztelumendi, Aitor Mendiluze, Sebastian Lizaso eta Oihana Bartrak. Bergarako Bertso Eskolakoek prestatu dituzte biharko jaialdirako gaiak, eta aurkezle lanetan Iñigo Arzelus bergararra arituko da. Esperientzia eta gaztetasuna uztartu nahi izan dituzte antolatzaileek, eta, joan den urtearekin alderatuz, Egaña da errepikatzen duen bertsolari bakarra, eta Oihana Bartra, berriz, jaialdian parte hartuko duen emakume bakarra.

**LEHIAKETA** > MENDEKOSTE JAIAK

# Aurtengo Mendekoste jaietako kartel lehiaketa deitu dute

Kartelak aurkezteko azken eguna apirilaren 7a izango da; irabazleak 600 euro jasoko ditu

**JASONE ZABALA** > BERGARA
Aurten ere Bergarako Kultura Zerbitzuak maiatzean ospatuko diren Mendekoste jaietako programaren azala egiteko lehiaketa deitu du.

Lehiaketa horretan Bergaran bizi edo erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte. Kartelak Bergarako kultura etxean aurkeztu behar dira apirilaren 7ko 13:00ak baino lehen.

**LEHIAKETAREN OINARRIAK**
Kartelek 24x34 zentimetroko neurria izan behar dute, eta formatu bertikala. Paperean inprimatuta eta kartoizko oinarri baten gainean aurkeztu behar dira, eta teknika librea erabili ahal izango da. Aurkeztuko diren kartel guztiek nahitaez ondorengo testua eraman beharko dute: *Pentekoste Jaiak 2008 Bergara*. Era berean, ez dute egilearen nortasuna agerian utz dezakeen ezer edukiko. Atzeko aldean lelo bat dutela aurkeztuko dira kartelak: gutun-azal itxi batean leloa kanpoan eta egilearen datuak barruan jarriko dira.

Lehiaketako irabazleak 600 euro jasoko ditu. Saria eman gabe ere geldi daiteke, epaimahaiaren ustez lanek gutxieneko kalitaterik ez badute.

> IKUSKIZUNAK

### Gaztetxean gaur kontzertuak eta domekan zinema

AHTren aurkako jardunaldien barruan, gaur gauean hardcore kontzertua egongo da gaztetxean, 22:00etan: Bartzelonako Afganistan Ye-yes eta Zarauzko Burux Lee. Sarrera 3 euro izango da. Igandean, berriz, zineklubaren barruan, *Mad Max* pelikula eskainiko dute, 18:00etan.

> LEHIAKETA

### Koldo Eleizalde lanak entregatzeko epea apirilaren 4 arte

Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatu duen Koldo Eleizalde Lehiaketako lanka entregatzeko epea apirilaren 4an amaitzen da.

Horren harira, esan beharra dago lehiaketako bertso eta komikien atalean (3. taldea) debagoiendar guztiek parte har dezaketela.

> ERAKUSKETAK

### Cele Otaño margolariaren lanak ikusgai Aroztegin

Cele Otaño (Bilbo 1912-Donostia 2003) margolariaren lanak egongo dira ikusgai Aroztegi aretoan martxoaren 7tik 30era bitartean.

Haren lanak (karikaturak, grabatuak eta oliozko margoak) eta Nikaraguan batu zituen kolonaurreko zeramikak egongo dira ikusgai.

**HURBIL belar denda**

Zure itxura mantentzeaz **arduratzen gara.**

**Ez dugu *mirari*-dietarik erabiltzen**, zure osasunari kalterik ez egiteko eta pisua kentzea osasuntsua eta naturala izateko

**Pisua zaintzeko metodo orekatu eta pertsonala ziurtatzen dugu.**

Aurkituko gaituzu:
**HURBIL**en
Domingo Irala z/g • BERGARA
☎ 943 76 30 08

Pisua eta bolumena soberan badituzu…
NOVA LINE
falta zaizu
**Pisuaren kontrolean**
arrakasta ziurtatuta duzu!




NOVA diet

*Mujika gozotegia*
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

**TELEIXA BILTEGIAK**
**Eraikuntza materialak**
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

**BELLIDO ELEKTRIZITATEA**
Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

**RELE**
Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## IGELTSEROAK

**DE LA TORRE IGELTSEROTZA**
Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

**G. IZCUE IRURZUN**
Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak…
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**J.J. IRURE ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## KONPONKETAK

**MULTIARREGLOS**
Arrasate
• Konponketak: Altzariak, zoruak, zokaloak, entxufeak...
• Instalazioak; Geletan antenak, telefoneonkableak...
• Jartzeak: Koadroak, lanparak gordiank...
• Ahokadurak: Telebistak, bideoak, musika ekipoak...
Tel: 699 60 97 08

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

**LEIHATEK**
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

**DAVILA MARGOAK**
Aretxabaleta
• Margoak orokorrean
San Migel 7, 3d.
Tel.: 646 22 41 09

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 71 23 91** zenbakira.

TXIRRINDULARITZA

# Mikel Aristi hirugarren izan zen Zarautzen

Lokatzako txirrindulariak ondo hasi du denboraldia, podiumean

**X.U.** > BERGARA
Kadete mailako Sumoficeko txirrindulariak indartsu hasi du denboraldia, joan den astean Zarautzen egindako lasterketan hirugarren helmugaratu zen-eta. Hain zuzen ere, Sumoficek joan den astean aurkeztu zuen taldea, eta dagoeneko aurrean dabiltza Bergarakoak.

Aristirekin batera, gainontzeko taldekideek ere lan txukuna egin zuten: Jon Rivero 30. helmugaratu zen eta Aitor Laskurain 37.a izan zen. Taldeka, berriz, bosgarren sailkatu zen Sumofic.



Mikel Aristi. GOIENKARIA

> FUTBOLA

## Lagun Onak taldea hartuko du Bergarak Agorrosinen, bihar

Bergarak (40) ez du amorerik eman gura, aurrean jarraitu gura du, eta hirugarren dagoen Urola (43) lehenbailehen harrapatu. Joan den astean etxetik kanpora irabazi eta gero –Intxurreren kontra 0-1–, bihar, hamargarren postuan dagoen Lagun Onak (27) taldea izango da Agorrosinen (16:30).



**HELBURU BAKARRA** Argazkiko Gure Jorge Fernandez taldea harrapatzea da kategorian jarraitzeko bidea. J.A.

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Hiru finaletako lehena, Escolapiosen kontra

Bergarak baino hiru puntu gehiago dituen Gure Jorge Fernandez taldea harrapatzea da liga amaitu artean mahoneroek duten helburua

**XABIER URTZELAI**> BERGARA
Kategoriari nork eutsiko dion eta nork ez erabakitzeko hiru jardunaldi geratzen dira. Baliteke, baina, horrela ere ez argitzea, Nazional Mailan dabiltzan taldeen gorabeherek ere eragin zuzena dutelako. Oraingoz, Euskadiko Txapelketako azken hiru taldeek maila galduko dute, eta egun, Bergara da talde horietako bat.

Hala, liga amaitu bitartean 12 puntu dituen Gure Jorge Fernandez taldea harrapatzea da helburua –datorren astean Gasteizen jokatuko dute talde horren kontra–. Lehenago, baina, dagoeneko etxeko lanak eginda dituen Escolapios taldea hartu beharko dute bihar (18:00): "Ikusi egin beharko da zelan datorren talde hori. Batzuek tentsio barik hobeto jokatzen dute, eta beste batzuk larregi erlaxatzen dira; ez dakigu zein den Escolapiosen egoera, baina hainbat talderen aurrean sorpresa bat baino gehiago izan dugu", azaldu digu dagoeneko Bergara zuzentzen ez duen baina taldea gertutik jarraitzen duen Josetxo Muniategik.

**TENTSIOA BARETZEKO ASMOZ**
Azken asteotan Edu Orgaizek hartu du taldearen gidaritza. "Azken jardunaldietan tentsio handiegia zegoen taldean; baliteke nik jokalariak larregi estutzea. Giroa aldrebesten hasita zegoen, eta egoerak txarrera egin ez zezan erabaki hori hartu nuen, azken batean, ondo pasatzera etortzen garelako hona", adierazi du Muniategik. "Aldaketa igarri egin dela esango nuke, Barakaldon oso ondo ibili ziren-eta".

## Sailkapen orokorra

| | |
|---|---|
| Askartza Leioa | 41 |
| Egia Servi Chap | 39 |
| Calmec Barakaldo | 36 |
| Balonmano Urduliz | 30 |
| Romo Indupe | 26 |
| Internacional Basauri | 25 |
| Lea Corazonistas | 23 |
| Seyce Escolapios | 22 |
| Portugalete | 22 |
| Ford Mugarri Arrasate | 19 |
| Gure Jorge Fernandez | 12 |
| **Bergara** | **9** |
| Urola Lazti | 9 |
| CD Urdaneta | 9 |

ITURRIA: WWW.FVASCABM.COM

## labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Hamaika Jintxi-Irish Pub | **3-10** |
| Los Blus-CM Errotagain | **1-7** |
| Komando Piperrak-Irubide | **3-3** |
| Deportivo Oriente-Niu Tim | **4-4** |
| Tiki-Taka-Belengua | **5-2** |
| Latinos.com-Carboneros | **2-6** |

**PARTIDUAK**

| Martxoak 16, domeka, barruan | Epaileak |
|---|---|
| **16:00** Komando Pip.-Latinos | **Carboneros** |
| **17:00** Carboneros-Belengua | **Latinos.com** |
| **18:00** CM Errotagain-Niu Tim | **Belengua** |
| **19:00** Haimaika Jintxi-Los Blus | **Niu Tim** |
| **20:00** Deportivo-Tiki-Taka | **Hamaika Jintxi** |
| **atzeratuta** Irubide-Irish Pub | |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | CM Errotagain | 46 | 17 |
| **2.** | Irish Pub | 41 | 17 |
| **3.** | Komando Piperrak | 39 | 17 |
| **4.** | Los Blus | 34 | 17 |
| **5.** | Carboneros | 31 | 17 |
| **6.** | Niu-Tim | 23 | 17 |
| **7.** | Tiki-Taka | 23 | 17 |
| **8.** | Belengua | 17 | 17 |
| **9.** | Irubide | 14 | 17 |
| **10.** | Hamaika Jintxi | 10 | 17 |
| **11.** | Latinos. Com | 9 | 7 |
| **12.** | Deportivo Oriente | 1 | 17 |
| **13.** | El Mapet | 0 | 10 |

## Deskantsuaren aurretik, azkena jokatuko dute domekan

Aste Santuan Labegaraietako areto futbol txapelketak atseden hartuko du. Hala, domekan jokatuko dute atseden hartu aurretiko azken jardunaldia, eta martxoaren 29an itzuliko dira taldeak lanera.

Oraingo asteko oharrei dagokienez, Latinos.com taldeko Gustavo Zabalak partidu bateko zigorra izango du, aurreko astean txartel urdina ikustearren. Bestalde, Irish Pub taldeak oraingo astebururuko partidua atzeratzea erabaki due, Irubide taldearen kontra jokatu beharrekoa.





**nire bidaia hura**

**Naiara Bernal**
San Diego > 2005eko abuztuan

# "San Diegon inork ez du lasai bazkaltzen; beti presaka daude"

**JASIONE ZABALA** > BERGARA

**Naiara Bernal bergararra Ameriketako Estatu Batuetan egon zen duela ia hiru urte. Ikasketagatik joan zen bertara eta lau hilabete eman zituen bertan beste bi ikaskiderekin. Esperientzia polita izan zela onartu digu Bernalek.**

Atzerriko hizkuntzako maisutza ikasten zegoen Naiara Bernal Eskoriatzako Huheziko unibertsitatean. Kanpora joateko eskaintza egin zioten, eta Bernali beste bi pertsonarekin batera joatea egokitu zitzaion. Bergarako Leire Jimenez eta Iruñeko Alberto Domingorekin joan zen bertara. "Hirurok etxe berean egon ginen. Esperientzia izugarria izan zen, hasieran pixka bat gogorra egokitu bazitzaigun ere, familia ez baitzen onegia izan".

Denbora gehiena San Diegon pasa zuten: "Oso handia da eta gauza asko daude ikusteko; pentsa, unibertsitatea (University of San Diego) Bergara bezain handia da, eta gela batetik bestera joateko batzuetan autobusa hartu behar izaten genuen", dio Bernalek.

**"San Diego oso handia da eta gauza asko daude ikusteko. Unibertsitatea Bergara bezain handia da"**


Naiara Bernal.

**LASAI BAZKALDU**

Asteburuetan San Diego ikusteaz aparte, beste leku askotara ere joaten ziren: "San Frantziskora, Los Angeles, Beverly Hills, izarren pasealekua, Disneyland, Alcatrazeko kartzelan ere egon ginen". San Diegoko jendea oso jatorra dela dio: "Unibertsitatera joan ginen lehen egunean oso harrera ona egin ziguten. Lagun asko egin genituen eta asteburuetan beraiekin irteten ginen askotan".

Ohituren inguruan, hau dio: "Han inork ez du lasai bazkaltzen, beti presaka daude eta berdin zaie zutik jatea". Janariekin ez zuten arazo asko izan. "*Zabor-jana* delakoa asko jaten da han baina guk astean zehar nahiko garbi jaten genuen". Bernalek adierazi duenez, "berriz errepikatuko nuke San Diegoko bidaia".

**hau be badaukogu**


J.Z.

## Txokolate-jana eta dantza Artatse elkartean

Joan den astelehenean, martxoak 10, ospatu zuten Emakume Langilearen Eguna Helduen Eskolakoek Artatse elkartean. Berez martxoaren 8a, zapatua, zen ospatzekoa, baina egun honetan elkartea afariekin beterik zegoenez, egokiagoa ikusi zuten astelehenera atzeratzea. Horrela bada, arratsaldeko seietan zuten hitzordua elkartean; bertara herriko edozein emakume zegoen gonbidatuta. Lehenik txokolate-jana izan zuten, eta ondoren, jandakoa jaisteko, Araozko Jose Mari Guridi *Txome* soinujoleak jotako doinuak dantzatu zituzten. Guztira 80 emakume egon ziren, eta oso ondo pasa zuten arratsaldea. Aurtengoarekin, dagoeneko 6-8 urte dira Helduen Eskolak egun hau modu berezian ospatzen duela.

**bere ustez**


Unai Lopez

## Zurrunbilo politikoan barne

Mundu osoko hautsak astindu dituen erabaki politiko ugari aurki ditzakegu azken egun hauetako egunkari edo irrati saioetan. Washington eta Habanatik hasi eta Mosku eta Pristinaraino mundu osoa hankaz gora jarri duen zurrunbilo politikoak zalantzaz bete du esparru internazionala.

Alde batetik Kosovo izeneko estatu berria jaio da Europa ekialdean, gorabeherez jositako historiari behinbehineko egonkortasuna bideratuz. Behin-behinekoa Mosku aldean, eta baita hain urruti joan gabe, buruko-min ugari sortu duen erabaki historikoa izan baita. Inguruko eta urrutiko beste lurraldeek eredu bezala hartuko duten beldur?

**"Galdera ugari inguruan eta baita gurean ere. Biharamunean gure herriarentzat zer?"**

Pauso historikorik izan bada azken egun hauetan Habana aldetik datorkiguna nabarmen daiteke. Azken mende erdi honetako irudi politiko garrantzitsuenetakoak, Fidel Castrok, uko egin dio Kuba aldeko goreneko eserlekuari, bere anaia Raul Castrori lekua utziz. Ekonomikoki erregimena garatu dezakeela entzun daiteke hedabideetan. Norantz joko du Kubak aurrerantzean? Galdera ugari inguruan eta baita gurean ere. Biharamunean gure herriarentzat zer?

EDEL
TAPIZ DENDA
*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena*
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

# Debagoieneko WEBGUNEAK




**AHOLKULARITZAK**
ASEGI
www.asegim.com
ESTRADOS
www.consultoriaestrados.com
LIZKER
www.lizker.com

**AKADEMIAK**
BASTIDA
www.bastida.es

**ALTZARIAK ETA APAINKETAK**
BZ SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas

**ANTZINAKO ALTZARIAK**
ZUMADIA
www.zumadia.com

**ARETOAK**
360 ARETOA
www.360aretoa.com

**ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK**
MARIA JESUS
www.mjargazki.com

**AROZTEGIAK**
ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi
AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate
UGARTE
www.goiena.net/blogak/ugartearotza

**ARKITEKTURA ESTUDIOA**
BIARK
www.goiena.net/blogak/biark

**ARRANDEGIAK**
ITSAS EDER
www.goiena.net/blogak/itxaseder

**ASEGURUAK**
BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
LAGUN ARO
www.seguroslagunaro.com
WINTERTHUR
www.axawinterthur.es

**AUTO – KONTZESIONARIOAK**
4QUATTRO4
www.4quattro4.com

**BIDAIA AGENTZIAK**
BARCELO
www.barceloviajes.com

**BITXITEGI TAILERRA**
OSKAR VITORIA
www.oskarvitoria.com

**ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK**
ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi
GORLA
www. goiena.net/blogak/gorla

**ELEKTRIZITATE MATERIALAK**
SETALDE
www.setalde.com

**ELKARTEAK**
EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL FEDERAZIOA
www.goiena.net/blogak/ehmff

**ERAIKUNTZAK**
CONSTRULAN
www.construlansl.com

**ERROTULOAK**
PANDO
www.goiena.net/blogak/pando
ROTUDENAK
www.rotudenak.com

**ESKULANAK**
IZEDER
www.goiena.net/blogak/izeder

**ESTETIKA ZENTROAK**
ANGELA
www.angelaestetika.net
GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder
LILURA
www.goiena.net/blogak/lilura
MAIER
www.goiena.net/blogak/richimaier

**ETXEKO LAGUNTZA**
GOIZ ARGI
www.goiena.net/blogak/goizargi

**FISIOTERAPIA ZENTROA**
EKIN
www.goiena.net/blogak/ekin

**FORMAKUNTZA**
LEGE SOZIOLOGIA INSTITUTUA
www.iisj.es

**GARAJEAK / KONPONKETA**
AMG AUTOAK
www.amgautoak.com
AUTOS ARETXA
www.autosaretxa.com
GALLASTEGI MOTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi
JC RACING
www.goiena.net/blogak/jcracing

**GARBIKETAK**
HEMEN
www.hemen-garbiketak.com
DENETIK GARBITASUN MEKANIZATUA
www.goiena.net/blogak/denetik

**GIMNASIOAK**
IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport
ZAINDUZ
www.goiena.net/blogak/zainduz

**GOZOGINTZA EKOLOGIKOA ETA INTEGRALA**
GALGORRI
www.goiena.net/blogak/galgorri

**HARATEGIA**
LANDALUZE
www.goiena.net/blogak/galgorri

**HESTEBETEAK**
URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

**HIZKUNTZA AKADEMIAK**
MONDRAGON LINGUA
www.mondragonlingua.com
LA PUERTA AL INGLES
www.goiena.net/blogak/puerta-ingles

**HOTELAK**
HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

**IKASTETXEAK**
ARETXABALETA INSTITUTUA
www.iaretxabaleta.com
ARIZMENDI IKASTOLA
www.arizmendi.ikastola.net
ELKAR-HEZI IKASTETXEA
www.elkarhezi.com
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
www.mondragon.edu

**ILE-APAINDEGIAK**
RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier
KIZKUR
www.kizkur.com

**INDUSTRIA HORNIDURAK**
SUMINISTROS UGARTE
www.suministrosugarte.com

**INFORMATIKA**
DCA COMPANY
www.dcacompany.com
ARITU
www.aritu.com

**INGENIARI GEOLOGIKOA**
HARRILUR
www.harrilur.com

**INMOBILIARIAK**
KOROSTI
www.inmokorosti.com

**INPRIMATEGIA**
EGUZKIGRAF
www.goiena.net/blogak/eguzkigraf

**ITURGINTZA ETA BEROGINTZA**
URKO MANTENIMIENTO, S.L.
www.goiena.net/blogak/urko

**JANARIAK**
GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu
ARANTXA PRODUKTU FRESKOAK
www.goiena.net/blogak/arantxa

**JANTZI DENDAK**
MARKIEGI
www.goiena.net/blogak/markiegi
UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

**JATETXEAK**
BASTER ALDE
www.baster-aldejatetxea.com
DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena
GOIKO BENTA
www.goikobenta.com
MAULANDA MERENDERUE
www.goiena.net/blogak/maulanda
IXAUN
www.goiena.net/blogak/ixaun

OTZETA
www.goiena.net/blogak/otzeta
TABERNA BERRI
www.goiena.net/blogak/tabernaberri
ZUMELAGA
www.zumelaga.com

**KALAMUA**
KLOROFILA
www.klorofila.com

**KIROL DENDAK**
LAINO. SKATE & SNOW
www.laino.info

**KONGRESU ETA BILKURAK**
GANDIAGA TOPAGUNEA
www.gandiagatopagunea.com

**LANDETXEAK**
ARTEAGA
www.arteagalandetxea.com
ATERBE
www.aterbe.com
LAMAÑO-ETXEBERRI
www.goiena.net/blogak/lamaino-etxeberri
UXARTE
www.uxarte.net

**LANTEGI ETA TAILERRAK**
BATUAK S.A.
www.batuak.com
GAURKO, S.A.U.
www.gaurkosa.com
LINEAS LASA
www.lasa.es
MIRVAT
www.mirvat.com
PERFIPAR
www.goiena.net/blogak/perfipar
TALLERES CARPINSA S.L.
www.carpinsa.com
SEIN BATU, S.L.
www.sein.es

**LEIHOAK**
ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
EGO
www.goiena.net/blogak/ego
ION LEIHOAK
www.puertasyventanas-ion.com

**LORADENDAK**
EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore
LORELAN
www.lorelanlurez.com
MAYTE
www.goiena.net/blogak/mayte

**OINETAKOAK**
KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

**OKINDEGIAK**
AIASTUI
www.goiena.net/blogak/aiastui
BEROGI
www.goiena.net/blogak/berogi
OGIZUN
www.goiena.net/blogak/ogizun

**OPARIAK**
MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

**OPTIKAK**
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multiopticas
INSTITUTO OPTICO/AMPLIFON
www.goiena.net/blogak/optico

**OSTALARITZA**
GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia

**OSTATUAK**
GOIKOBENTA
www.goikobenta.com

**PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA**
FORMAK
www.formak.net
IPAR PROJECT
www.iparproject.com

**PUBLIZITATE AGENTZIAK**
AKORT-PUBLICIDAD
www.akort-publicidad.com

**SUKALDERAKO ALTZARIAK**
BOLU
www.goiena.net/blogak/bolusukaldeak

**TABERNAK**
EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea
HAMAIKA… TABERNA
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
ZIRIPOT
www.goiena.net/blogak/ziripot

**TATUAJEAK**
GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganesha

**TAXIAK**
GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

**TOLDOAK**
TOLDOS LETE
www.toldoslete.com

**UDAL ZERBITZUAK**
GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA
www.aizue.com
ARRASATEKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA
www.goiena.net/blogak/aebpn

**UMEENDAKO ARROPA**
HAURTXOA
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

**ZERAMIKAK ETA BAINUAK**
URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta
GELATZU
www.gelatzu.com

**ZERBITZU DIGITALAK**
ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

**ZUR LANTZAILEAK**
ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

**Bisita ezazu:**
**www.goiena.net/merkatua**

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

KULTURA > ERAIKIN BERRIA

# Arkupe izena jarriko diote eraikinari, eta enpresa batek kudeatuko du

Lehiaketa bidez hautatuko du Udalak eraikina kudeatuko duen enpresa; oinarriak otsailean onartu zituen, eta deialdia astean argitaratu du

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Santa Kurtz kalea eta Herriko Plaza artean dagoen kulturarako eraikin berriaren lanak aurrera doaz. Inaugurazio datarik ez dute zehaztu, baina izena aukeratu diote: Arkupe. Lehiaketa deitu zuen Kultura Sailak izena hautatzeko, eta zazpi aurkeztu zituzten. Eskatutako baldintzak, baina, bostek betetzen zituzten, hauexek: Aterpe; Jakintza; Arkupe; Don Angel Garmendia Aranburu; eta Jesus Atxa izenek. Epaimahaiak Arkupe aukeratu du. Idoia Elexpuru aretxabaletarra da hautatutako izena bota zuena, eta 200 euro jasoko ditu: "Plazako arkuen azpitik izango duelako sarreretako bat proposatu nuen Arkupe", azaldu digu.



ARKUPE Santa Kurtz kalea eta Herriko Plaza artean dago kulturarako izango den eraikina. M.A.

**400.000 EURO KUDEAKETARAKO**

Bestalde, Udalak erabaki zuen enpresa bat hartzea eraikina kudeatzeko. Otsailaren 25ean egindako osoko bilkuran onartu zituzten oinarriak, Udal Gobernuaren, EAJren eta PSE-EE alderdien aldeko botoekin. Ezker Batua-Berdeak alderdiko zinegotzi Tomas Fernandez ez zen ados azaldu: "Enpresa bat hartzearen aurka gaude, azpikontratazioak ez ditugulako gustuko. Gainera, zer gertatuko da orain dauden langileekin: eskulanak, pintura...?" Udal Gobernuko kideek erantzun zioten esperientzia duen enpresa baten aldeko apustua egin gura dutela, eta bi urte pasatu ostean baloratuko dutela merezi izan duen edo ez. Funtzionario ez diren langileei dagokienez, "okerrenean ere orain dauden egoeran" geldituko direla erantzun zioten, eta "enpresarekin adostuta euren egoerak hobera egin dezakeela".

Lehiaketa bidez hautatuko dute enpresa, eta deialdia asteleheneko (martxoak 10) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten. Udalak 400.000 euro aurreikusi ditu kudeaketa lanak egiteko. Interesatutako enpresek udaletxeko idazkaritzan dituzte oinarriak, eta, hain zuzen, hilabete daukate proposamenak eta eskaerak aurkezteko.

PARROKIA > ASTE SANTUA

# Gurutze-bidea Egubakoitz Santuan

Elizkizun ugari egingo dituzte parrokian eta komentuan; gurutze-bidea Izurietara izango da

M.A. > ARETXABALETA

Otoitzerako tarteak eta elizkizunak izango dira nagusi Aste Santuan, bai parrokian, bai Agustindarren komentuan. Bihar (Erramu-zapatua) hasi eta martxoaren 23ra bitartean (Pazko-domeka) Jesusen heriotza eta piztuera ospatuko dute kristauek gure herrian.

Familia meza esango dute bihar, hilak 15 (19:30), eta katekesian dabiltzan umeak eta gurasoak elkartuko dira Erramu Eguna ospatzeko. Astelehen eta martitzenean (19:00), ostera, martxoan bataiatuko dituzten umeen gurasoendako bilerak egongo dira parrokiako lokaletan, bataioa gertatzeko.

Martitzenean, gainera, elkarteko adiskidetze sakramentua egingo dute parrokian (19:00). Hileta elizkizunen bat egonez gero, adiskidetzearen ostean egingo dutela jakinarazi dute.

**ASTE SANTUKO EGUNAK**

Martxoaren 20an, Eguen Santua, bakarkako aitortzak egingo dituzte (11:00-12:00) parrokian. Eta Jaunaren azken afariko eukaristiak arratsaldean izango dira, bai komentuan (18:00), bai parrokian (19:00). Gauean, ostera, otoitzaldia egingo dute Agustindar mojek (21:30).

Egubakoitz Santuan, hilak 21, gurutze-bidea egingo dute Izurieta auzora, azken urteotan legez (11:00). Jesusen nekaldia gogoratuko dute otoitzekin Izurietara igo bitartean. Eta arratsaldean Jaunaren nekaldiko ospakizunak izango dira komentuan (16:00) eta parrokian (17:00). Zapatu Santuan, ostera, Pazko gaubeilak ospatuko dituzte eliza bietan (21:00). Gainera, umeak bataiatuko dituzte parrokian. Egun horretan bataiatu gura ez duenak hilaren 30ean egin dezake. Eta Pazko-domekako mezak ohiko orduetan izango dira komentuan (09:00) eta parrokian (11:30).

**AUZOETAKO ELIZKIZUNAK**

Auzoetan ere hainbat elizkizun izango dituzte: Eguen Santuan egiten den azken afariko meza Mendiolan egingo dute (17:00); eta Pazko-domekako mezak bi auzotan esango ditu abadeak: Aozaratzan (11:30) eta Mendiolan (12:30). Gainerako auzoetan ez da egongo elizkizunik.

> BERBALDIA

### AHTren gainean jardungo du Mila Elortzak gaur (19:00)

Aretxabaletako AHT gelditu! Elkarlana taldeak berbaldia antolatu du Abiadura Handiko Trenaren gainean hausnarketa egiteko. Bergarako Angiozar auzoko alkate eta AHT Gelditu! Elkarlana taldeko ordezkari Mila Elortzak azalduko du gaia. Abiadura Handiko Trenak herritarrongan izango duen eragina, lanek sortuko duten kaltea eta gaiaren inguruan esan dituzten "gezurrak" izango ditu berbagai, beste batzuen artean.

Udaletxe zaharrean izango da berbaldia, gaur (19:00).

Iber
Loteria
Paper denda
Liburuak
Otalora 2. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

PIENSOS UNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

> KONTZERTUA

### Golpe de Estado taldeak kontzertua eskainiko du gaur

Haizea tabernan joko du Golpe de Estado talde oñatiarrak gaur (21:30). Grabatu berri duten *Mi prision* diskoa aurkeztuko dute, eta dagoeneko salgai daukate. Doinu biziak eta melodikoak elkartu dituzte lehen diskoan, eta punk rocka egiten duten taldeen eragina nabarmena da. The Clash, The Boys, MCD eta beste asko dituzte gustuko; gainera, 80ko hamarkadako hainbat euskal talderen erreferentziak jaso dituzte.

Oñatiarrekin batera Sospechosos taldea izango da.

> AISIALDIA

### 'Hitzen lapurra' bertsotxongiloak daude gaur 18:30ean

Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatuta *Hitzen lapurra* bertsotxongiloak eskainiko dizkiete umeei, gaur (18:30), Kurtzebarri eskolako aretoan. Hain zuzen, 3 eta 8 urte artekoendako da, eta Manu Gomez eta Enkarni Genuak idatzitako lana da. Berbek duten garrantzia ikusaraziko dute bi txotxongilok eta beste bi antzezlek. Hala, berbekin jardungo dute jolasean saio guztian, bai protagonistek, bai ikus-entzule gaztetxoek.

> IKASTAROA

### Makrobiotika ikastarorako izenematea zabalik

Apirilean egingo dute makrobiotikaren gaineko ikastaroa. Egubakoitzetan izango da (19:00-22:00), guztira lau saio, eta Donostiako makrobiotika jatetxeko sukaldari Gorka Gereño izango dute gidari. Makrobiotikaren irizpideei jarraituta zer jan eta jakiok zelan gertatu erakutsiko du Gereñok.

Interesatuek Loramendi Euskara Elkartean eman behar dute izena, eta 100 euro ordaindu. Izena emateko azken eguna martxoaren 31 da.



**PROBA** Trialsinlaria lanean, eta hainbat lagun eta epailea begira. IKER LEZETA

**KIROLAK** > GIPUZKOAKO TRIALSIN TXAPELKETA

# Etxekoak nagusi trialsin txapelketako laugarren proban

Lehen postuan sailkatu ziren, nor bere mailan, Markel Uriarte, Aitor Murua eta Unai Zuntzunegi

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Eguraldi narrasa egin zuen joan den domekan, martxoak 9, eta lokatza pilatu zen Porrukotxara baso inguruan. Hala, larri ibili ziren trialsinlariak euren lana behar bezala egiteko, eta bizikleta eta guzti jausi ziren batzuk ahalegin horretan. Euriaren erruz beste urte batzuetan baino neska-mutiko gutxiago ausartu ziren proban parte hartzera. Iaz, 68 lagunek jardun zuten, eta aurten, 40 izan dira. Hala ere, herritar ugari hurreratu zen trialsinlarien lana ikustera.

**LEHEN POSTUETAN**

Eguraldia eguraldi, norberak erakutsi behar du egiteko gai dena, eta halaxe erakutsi zuten aretxabaletarrek. Gipuzkoako txapelketa jokatzen dabiltzan hirurek lehen postua lortu zuten: Markel Uriartek, junior mailan; Aitor Muruak, haurretan; eta Unai Zuntzunegik, kimuetan. 10 urtetik behera dituzten guztiak benjaminen mailan sartzen dituzte, eta Itziar Murua hirugarren postuan geratu zen; eta 6 urte bakarrik dituen anaia Mikel bederatzigarrena izan zen. Elite mailan, ostera, Iker Lezeta donostiarra nagusitu zen Diego Barrio eta Alberto Gomezen aurretik.

**AZKEN PROBA, DOMEKAN**

Gipuzkoako txapelketa bukatzeko proba bakarra geratzen zaie trialsinlariei. Hain zuzen, domekan, hilak 16, jokatuko dute, Urretxun. Kontuak askorik ez badira okertzen, behintzat, sailkapeneko postuak nahiko erabakita daude, eta aretxabaletarrak lehenengo geratuko dira junior mailan, haurretan eta kimuetan. Itziar eta Mikel ere ahaleginduko dira lan polita egiten.

**KIROLAK** > KARATEA

# Gipuzkoako txapelketako lehen postuetan hiru jokalari

Kumitean, Vazquez eta Irusta izan ziren lehenak, eta katan, Gonzalo hirugarrena

**M.A.** > ARETXABALETA

Gipuzkoako karate txapelketa jokatu zuten joan den domekan Bergaran. Aretxabaleta Kirol Elkarte barruan dagoen karate taldeko hiru lagunek jardun zuten norgehiagokan, eta egindako lanarekin oso gustura itzuli ziren.

Kumite modalitatean jokatu zuten bik. Gazteen mailan –55 kiloz azpikoak–, Odei Vazquezek jardun zuen, eta sailkapeneko lehen postuan geratu zen. Haurren mailan –60 kiloz azpikoak– Ekaitz Irusta zegoen, eta hura ere lehen postuan geratu zen. Txapelketa bikaina egiten dabil Irusta; izan ere, hilaren 2an Donostian jokatutako proban hirugarren postua eskuratu zuen.

Kata modalitatean, ostera, bakarrak hartu zuen parte, Gorka Gonzalok; kimuen mailan jardun zuen eta hirugarren postuan geratu zen.

Odilo Vazquez aretxabaletarrak gidatzen dituen neska-mutikoek gogor egiten dutela lan erakutsi dute azken asteotan jasotako sariekin.



UDAL EUSKALTEGIA

## Euskaltegikoak, Arrikrutzen

Leintz Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasle batzuk Oñatin izan dira astean, Arrikrutzeko kobak ikusten. Koben gaineko informazioa batu eta landu zuten joan aurretik, gero ikustaldiaz gehiago gozatzeko. Pozik itzuli dira guztiak: "Ez dago oso urruti joan beharrik gauza politak ikusteko", errepikatu dute behin eta berriro.







**Amaia Ugarte** > Misio taldeko kidea

# "Afrikan ikastetxe bat egiten laguntzeko 25.000 euro lortu behar ditugu"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

**Parrokiako Misio Taldeak Afrikako Pehounco izeneko herrian ikastetxea eraikitzeko proiektua du eskuartean. Taldeko kide Amaia Ugarterekin egin dugu berba, proiektuaren eta misio taldearen inguruan.**

**Zein da eskuartean duzuen proiektua?**

Afrikako Benin herrialdeko Pehounco izeneko herrian Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bat eraikiko dute. Herri hau Benin iparraldean dago, Atacora probintzian, hain zuzen, eta Natitingouko Elizbarrutiko zati da. Proiektu honen helburua da 300 umeri erabateko formazioa eskuratzeko aukera ematea, euren herriko garapena sustatu eta bizi-baldintzak hobetu ditzaten. Ikastetxean, besteak beste, ikasgelak, jangelak, bulegoak, komunak eta biltegiak egongo dira.

**Zein da zuen betebeharra proiektu honetan?**

Proiektu hori egiteko hiru urte beharko dira. Herriak ikastetxea eraikitzeko lursailak dohainik emango ditu, baina proiektu osoaren aurrekontua 144.481 eurokoa da. Hortaz, Donostiako Elizbarrutiak Gipuzkoako Misio taldeei proiektuan parte hartzeko gonbitea egin zigun. Oñatiko Misio Taldeak 25.000 euro lortzeko konpromisoa hartu du.

Gainera, diru kontu guztia bideratzeko eta proiektuaren gauzatze fisikorako, Donostiako Elizbarrutiak eta Natitingouko Elizbarrutiak koordinazio lanak egingo dituzte. Bi Elizbarruti hauen bidez, momentu oro proiektuaren nondik norakoen berri jasoko dugu.

**Hasi dira lanean?**

Ikastetxea eraikitzeko lursaila dagoeneko gertu dago; hortaz, berehala hasiko dira lanak egiten. 2009rako Haur Hezkuntzako ikastetxea, lau komun eta bi dutxa, jangela, bulegoa eta biltegia bukatuta egongo dira. Proiektua hiru urtetan amaitzea espero da, 2010. urte amaierarako.

**Herritarrek nola lagundu dezakete proiektu hau?**

Herritarren laguntza beharbeharrezkoa dugu proiektu hau gauzatzeko. Bi bide daude gu laguntzeko: alde batetik, misio taldearen ekintzetan parte hartuz, besteak beste, afari solidarioetan eta Inauterietako txokolatejan solidarioan; eta, beste alde batetik, ekarpen ekonomikoak egin daitezke, Kutxan eta Euskadiko Kutxan zabalik ditugun kontu korronteetan.

**Nortzuk osatzen duzue Parrokiako Misio Taldea?**

Oñatiko Misio Taldeak munduan zehar dauden euskal misiolarien proiektu solidarioak aurrera ateratzen laguntzen du. Era berean, herri mailan sentsibilizazio lana egiten ahalegintzen gara. Taldean adin ezberdineko 20 pertsona inguru gaude.

**Noiz sortu zen taldea?**

Oñatiko misio taldea orain dela urte asko sortu zen, Oñatiko hainbat misiolarirekin hartuemanak izan dituzte-eta. Baina duela sei urte inguru Oñatiko parrokiako gazte taldea misio taldearekin elkarlanean hasi zen, eta ordutik proiektu solidario desberdinekin egin dugu lan.

**Zenbat proiektutan parte hartu duzue orain arte?**

Guztia, bost proiekturako laguntza lortu dugu. Paraguayko ile-apaindegi baterako eta Dominikar Errepublikako etxeetarako dirua batu genuen. Era berean, Argentinako Queta komunitatearendako ura lortzeko baliabideak lortu genituen.

Bestalde, Haitin egindako osasun zentro baterako dirua bildu genuen. Horrez gain, Beninera eraikuntzarako materiala bidali genuen.

**Nola aukeratzen dituzue proiektuak?**

Normalean Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritzak laguntzen digu proiektuak aukeratzen. Aukeraketa hau egiterakoan kontutan hartzen da proiektu hori egingo den tokian Oñatiko misiolariren bat ote dagoen, hartu-emana errazagoa da-eta. Dena dela, beste bideren batetik proiekturen bat etortzen bazaigu kontutan hartzen dugu, esaterako Argentinako Queta komunitatean burutu genuen proiektua.



Argazkian, Amaia Ugarte. MIREIA BIKUÑA



Haitiko osasun zentroko lanetan parte hartu zuen misio taldeak. GOIENKARIA

## Patxi Vallejos eta Kepa Gartzia, txapeldunak

Patxi Vallejosek eta Kepa Gartziak osatzen duten bikoteak irabazi zuten Zubikoako XI. Frontenis Txapelketa. Otsailaren 8an jokatutako finalean Carlos Sanchez eta Juan Carlos Cochon menderatu zituzten. Bestalde, hirugarren eta laugarren tokietarako partiduan, Candido Hurtado eta Iñaki Sanchez nagusitu ziren, Patxi Holguinek eta Jose Leonek osatutako bikotearen aurka.

Guztira, 17 bikotek hartu dute parte Oñatiko kiroldegiak antolatutako txapelketan.



OIHANA ELORTZA

> HITZALDIA

## Deustuko ikasketen inguruko hitzaldia Txantxiku Ikastolan

Gurasoei informazioa emateko Txantxiku Ikastolak hitzaldi berria iragartzen du astelehenerako, hain justu ere, Deustuko Unibertsitateko ikasketen inguruko informazioa emango dute. Ikastolako aretoan egingo den hitzaldia, bereziki, Batxilergoko Lehen eta Bigarren Mailako ikasleendako eta haien gurasoendako da.

Deustuko Unibertsitateko kideak egongo dira 18:30ean hasiko den hitzaldian, gurasoek eta ikasleek dituzten zalantzak argitzeko. Ikastolako ikasketak bukatu ondoren unibertsitatera salto egin aurretik gauzak ahalik eta argien izatea da hitzaldiaren helburua.

> TXAPELKETA

## Hirugarren kanporaketa bihar jokatuko da, Pakon

Bihar jokatuko da Bertso Eskolak antolatutako bertsolari txapelketako azken kanporaketa. Arantzazu Sagarzazuk, Egoitz Atxagak, Endika Ruizek, Iñaki Igartuak eta Beñat Alberdik jardungo dute Mirari Sagarzazuren gaiei erantzunez. Emanaldia 18:00etan hasiko da Pako tabernan. Bi bertsolari onenek martxoren 29an Arrano Elkartean jokatuko den finalerako txartela eskuratu dute.

Pako tabernan jokatutako lehen bi kanporaketetan nagusi izan ziren Joseba Lasagabasterrek, Ander Lizarraldek, Joseba Igartuak eta Xabier Pascualek finalean parte hartuko dute.

**INTEGRAZIOA** > ETORKINENDAKO OINARRIZKO IKASTAROAK

# Aisa ikastaroa, etorkinak euskarara hurbil daitezen

Ikasleek eskolengatik matrikula sinbolikoa bakarrik ordaindu beharko dute

Ikastaroaren helburua da etorkinak euskalduntze prozesura hurbiltzea



**IAZKO ESKOLAK** Argazkian, joan den urteko Aisa ikastaroko eskolak Eskoriatzako Udal Euskaltegian. IKER BARANDIARAN

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek elkarlanean Aisa ikastaroa antolatu dute, etorkinak euskarara hurbil daitezen.

Joan den urtean Eskoriatzako Udalak bakarrik antolatu zuen ikastaroa, baina aurten bi udalen artean egitea pentsatu dute. Ikastaro horretan HABEk egindako ikasmateriala erabiliko dute, eta Aretxabaletako eta Eskoriatzako udal euskaltegietako irakasleek emango dituzte eskolak euskaltegietan.

**EUSKARARI HURBILDU**

Ikastaroaren helburua da etorkinak euskarari eta Euskal Herriari hurbiltzea; eta horren bidez, euskalduntze prozesuan sartzeko bidea erraztea. Aisa ikastaroa 60 orduan egingo dute, eta izena ematen dutenen arabera erabakiko dute zer egunetan, zer ordutegitan eta Eskoriatzan edo Aretxabaletan egitea. Hain zuzen ere, interesatuek apirilaren 4a aurretik eman beharko dute izena euren herriko kultura etxe edota gizarte zerbitzuetan.

**HABE-K ETA UDALAK ORDAINDUTA**

Ikas-materiala HABEk jarriko du, eta HABEren eta Udalaren artean ordainduko dute. Ikasleek, berriz, matrikula sinbolikoa bakarrik ordaindu beharko dute. Aurtengo matrikula oraindik ez dute zehaztu, baina iaz 10 euro ordaindu zuten bakarrik. Talde bat osatzeko, gutxienez sei lagun behar dituzte. Eta talde bat baino gehiago osatzeko jende nahikoa ez badago, aztertu beharko dute eskolak non eman, Eskoriatzan edo Aretxabaletan.

**HIZKUNTZA ETORKINAK**

Eskoriatzako Udaleko Euskara Zerbitzutik jakinarazi dute ikastaroak etorkinei zuzenduta daudela, baina horren barruan hizkuntza etorkinak ere sartzen direla. Hau da, Espainiako beste herrialdeetatik etorritakoak ere.

Iaz Eskoriatzan 13 bat lagunek eman zuten izena. Horietatik gehienak marokoarrak eta portugaldarrak ziren; eta horiez gain, hegoamerikarrak eta kongoarrak ere ibili ziren.

Zoritxarrez, lan kontuengatik, askok utzi egin zuten, baina bukaera arte jarraitu zuten lau ikasleetatik hiruk gaur egun euskaltegiko ohiko taldeetan euskara ikasten jarraitzen dute.

> MUSIKA

### Zapatuan, Never Surrender taldea Inkernu tabernan

Bihar, zapatua, Arrasateko Never Surrender musika taldeak kontzertua egingo du Inkernu tabernan, 22:30ean.

*Pottoko*, *Arri*, *Dura* eta *Atxi*-k 2002an sortu zuten Never Surrender taldea, eta euren musika ildoa punk-oi! edo street-punka da.

Ordutik hona kontzertu asko egin dituzte Euskal Herrian, batez ere, eta ospe handia hartu dute.

2005ean Enboskada taldearekin erdibana diskoa kaleratu zuten; eta iaz *Aurrerapenaren izenean* lan luzea argitaratu zuten Puzkarra Records eta True Forcerekin.

> AISIALDIA

### Sukaldaritza, areto futbola eta irteera, gaztelekuaren bidez

Aste Santuko opor egunetan gaztelekua itxita egongo da, baina horren aurretik egongo da gazteen aisialdia zelan antolatu. Esaterako, gaur, egubakoitzero moduan, zabalik egongo da gaztelekua arratsaldez. Bihar, zapatua, berriz, sukaldaritza tailerra egingo dute; eta domekan, Aretxabaletako gaztelekukoen kontra areto futboleko finala jokatuko dute. Horrez gain, Pazko asteko aste bukaeran (hilaren 28, 29 eta 30ean) Bermeoko Mañu aterpetxera irteera egingo dute. Interesatuek gaztelekuetan eman beharko dute izena lehenbailehen, eta horretarako 35 euro ordaindu beharko dituzte.

**LANAK** > SANTA MARINA-ARBIÑOSTE

# Arbiñoste ingurua hesiekin itxi dute

Esparru horretan egingo dituzten etxebizitzen sustatzaileek itxi dute hesiekin ingurune guztia



**ARRISKUA EKIDITEKO** Etxebizitzen sustatzaileek itxi dute lurzorua, segurtasuna bermatzeko. JASONE ZABALA

**I.B.** > ESKORIATZA
Astean, Santa Marina edo Arbiñoste esparru osoa hesiekin itxi dute. Hori egin dute Santa Anatik dagoen sarreran, orain arteko aparkalekuan, zulo handiak daudelako. Horrez gainera, Udaleko Lan eta Zerbitzuen saileko arduradunek jakinarazi digute legez lan guztiek itxita egon behar dutela, arriskuak ekiditeko. Hori horrela, esan bezala, lurzoru horretan egingo diren etxebizitzen sustatzaileek itxi egin dute ingurune osoa.

Bestalde, Udaleko sail berak azaldu du esparru horretan hartutako lur kutsatuen azterketa bukatu duela.

**KUTSADURA OSO TXIKIA**

Hala, Herbereheetan lur horien laginak aztertu ostean, ondorioztatu dute kutsadura oso txikia dutela. Hortaz, Udalak jakinarazi du ez dutela handik lur gehiagorik aterako. Horrekin batera azaldu dute ez dituztela aparkalekuko zuloak estaliko, lanak egin ditzaten.

**INGURUMENA** > URAREN GAINEKO JARDUNALDIAK

# Uraren gaia lehentasuna da Udal Gobernuarentzat

Udal ordezkaritza bat Zaragozara joan da, uraren gaineko azoka erraldoira; eta ura izango da aurtengo ingurumen asteko gai nagusia




KONTSUMO ARDURATSUA Uraren erabilerak arduratzen du Udala. IKER BARANDIARAN

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, Udaleko Ingurumen Saileko ordezkaritza bat Zaragozara joan da, uraren gaineko Smagua azoka erraldoira.

Udalak agintaldiaren hasieran urari eta haren erabilera eta kontsumoari garrantzi handia ematea adostu zuen. Are gehiago, erabaki zuen administrazioak eredu izan behar zuela herritarren aurrean. Horrekin lotuta, erabaki dute uda ostean uraren gaineko ingurumen astea egitea.

**INFORMAZIOA BATUKO DUTE**

Zaragozara joan den Udaleko ordezkaritzak uraren gaineko ahalik eta informazio gehien batuko du. Batez ere, jakin gura dute ura aurrezteko zer teknologia dauden, uraren tasa fiskalen gaineko informazioa, arazketa, hornidura, uraren erabilera eta beste alor batzuk.

Horrez gain, kontsultatu gura dituzte, baita ere, beste gobernu edo administrazio batzuek uraren gainean dituzten politikak.

**INDUSTRIALDEA** > ESKORIATZAKO INDUSTRIALDEA

# Udala industrialdearen egoerarekin kezkatuta dago

Industrialdea errentagarria izateko erabaki berriak hartu gura ditu Udalak

**I.B.** > ESKORIATZA

Otsail bukaerako Udaleko osoko bilkuran Eskoriatzako Industrialdearen gaia jarri zuten mahai gainean. Osoko bilkurak ondorioztatu zuen industrialdearen egoera "oso eskasa" dela. Eta, halako egoera ezkorra deskribatzeko, zinegotziek argudiatu zuten aspaldian ez direla ez pabiloirik, ez bulegorik, ezta aparkalekurik saldu.

Horrekin lotuta, azaldu zuten industrialdeak zor handiak dauzkala, eta epe laburrean pabiloirik edo bestelakorik saltzen ez badute, zorra handitzen joango dela.

**OGASUN BATZORDE BEREZIA**

Horren guztiaren aurrean, Udaleko osoko bilkurak egoera "larritzat" definitu zuen. Horregatik, herenegungo (eguaztena) Ogasun batzordean industrialdearen gaia bakarrik aztertzea adostu zuten.

Ogasun batzordean ondorioztatu zuten Eskoriatzako Industrialdea SAren egoera "oso txarra dela, eta gehiago itxaron barik, horren gaineko erabakiak hartzeko unea" dela, ahal den heinean industrialdeak hartu duen norabidea zuzentzeko asmoz.

**ADMINISTRAZIO KONTSEILUA**

Hala ere, proposamen zehatzak finkatzeko asmoz, Eskoriatzako Industrialdea SAko administrazio kontseilua batzarrera deitu dute. Batzar horretan udal ordezkariak eta industrialdeko gerente Clemente Beloki elkartuko dira.

Proposamenak apirileko Udaleko osoko bilkurara eramango dituzte, eta han hartuko dituzte erabakiak. Udalaren arduretako bat da industrialdeak publizitatean oso diru gutxi gastatu duela, eta horrek eragin duela salmenta ezan.

# Amuskakoak Goierrira martxoaren 8an

Joan den zapatuan, hilaren 8an, Emakumearen Egunean, Amuska emakumeen elkartekoek Goierri bisitatzera jo zuten. Azken urteotan martxoaren 8a ospatzeko ibilaldia egiten dute Eskoriatzako hainbat emakumek.

Hain justu, 34 emakume joan ziren egun-pasa egitera, eta ez ziren geldi egon, ez horixe: Seguran, interpretazio zentroa, alde zaharra eta parrokia ikusi zituzten; eta Ordizian, Urdaneta museoa, Centro D'elikatuz eta alde zaharra.



AMUSKA

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI

Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

**UDALA** > AURREKONTUA

# 3,7 milioi euroko aurrekontua onartu dute

## Torresoroako gizarte etxeak eta baserrietako ur hornidurak hartuko dituzte inbertsio nagusiak

## Antzuolatik Bergarara doan bidegorriko lanak abiarazteko 30.000 euro ipiniko ditu Udalak



**TORRESOROA** Gizarte etxeko zerbitzuak hornitzeko izango da diru zati bat. I.A.

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA
Udalak 2008rako 3,7 milioi euroko aurrekontua onartu zuen azken udalbatzarrean, baiezko sei botorekin: EAEko bost zinegotzienak eta Zutik-Aralar-Ezker Batuko zinegotzi batena. EAJko hiru zinegotziek eta PSEkoak aurkako botoa eman zuten eta Zutik-Aralar-Ezker Batuko beste zinegotzia, berriz, abstenitu egin zen.

Inbertsiotarako 1.606.870,80 euro izango dira eta bi diru partida nabarmendu dituzte: Torresoroako liburutegia, eguneko zentroa eta zaintzapeko etxebizitzak jantzeko 280.000 euro.

Bestalde, Nekazaritza batzordean, baserrietako ur horniduraren eta saneamenduaren lehen faserako 245.800,80 euro aurreikusi dituzte: "Gezia fundazioak diagnosia egiten dihardu uraren kalitatearen eta kantitatearen gainean, eta hortik abiarazi nahi dugu 2008an proiektua bera", esan digu Pedro Iturbe alkateak.

**BIDEGORRIA**
Aipatzekoak dira, bestalde, Etxebizitza eta Hirigintza batzordeko hainbat inbertsio: elizako erloju eta tximistorratza, 20.000 euro; Kalegoi urbanizatzea, 12.000 euro; mediku kontsulta, 50.000 euro; eta bidegorria, 30.000 euro. Azken horren gainean, Pedro Iturbek hau esan digu: "Antzuolatik Bergarara doan bidegorria 2007rako egitekoak ziren, baina proiektuak aurrera egin ez duenez, pentsatu dugu lanak bultzatzea. Horretarako, pentsatu dugu bidearen egokitzapenekin hasi eta, besteak beste, Matz-erreka inguruan zubia egitea, nahiz eta jakin Diputazioaren eskumena dela".

**KIROL INSTALAZIOAK**
Kirol instalazioak berritzeko 30.000 euro erabiliko dituzte. Eztalan eta frontoian lanak egiteko izango da dirua: "Eztalan kantina eta atletismoko pista egiteko bideratuko dugu zati bat; kantinako lanak aurrera doaz. Udalak ipini du materiala eta herritarrek auzolanean egingo dute kantina bera", azaldu digu alkateak.

**GERTAERAK** > APURKETAK ETA SUTEA

# Gazteek egindako kalteen aurrean kezkatuta dago Udala

## Gutuna bidali diete 12 eta 16 urte arteko gazteen gurasoei, arazoak saihesteko

**I.A.** > ANTZUOLA
Udala kezkatuta dago azkenaldian izandako gertakariengatik: frontoiko eta hilerriko apurketak eta osasun zentroa erretzea, besteak beste. Udal ordezkariek hauxe esan dute: "Gure nahia ez da arazo hauen ardura inoren gain uztea, ezta Udalak gai honen inguruan egin beharreko hausnarketa saihestea, baizik eta guztiok momentuan ditugun arazoez jabetzea eta kontzientzia hartzea".

**KONTZIENTZIAZIOA ETA ELKARLANA**
Gertakarion atzean egon litezkeen 12 eta 16 urte bitarteko gazteen gurasoei gutuna bidali diete Udaletik esanez, "beharrezkoak dira kontzientziazioa eta ondorioez jabetzea; eta Udalaren, gazteen eta gurasoen artean, elkarlana bultzatzea adin tarte jakin bateko arazoak saihesteko".



ARROLA

## Arrolakoak, ibilaldi neurtuan

Ibilaldi neurtua izan zen Bergaran domekan; Antzuolatik bederatzi lagun joan ziren. Euri handia izan zuten ia lau orduko ibilaldian eta ezbehar txiki bat ere izan zen: Josu Aiastuik jausi eta belaunean min hartu zuen. Bestalde, Arrolak, hilaren 29 eta 30erako, antolatu duen eski irteeran izena eman daiteke oraindik: gaur, egubakoitza, 19:00-20:00.

> KIROLA

### Frontenis txapelketako finalaurrekoak eta finala aste bukaeran

Dagoeneko finalaurrekoetan da frontenis txapelketa. Sailkapen faseak jokatuta, lau bikote onenek egin dute aurrera. Gaur (egubakoitza) eta bihar (zapatua) jokatuko dira finalaurrekoak. Lehenengoa martxoaren 14an izango da, 19:00etan, eta Alberdik eta Inak jardungo dute Sanchezen eta Idiakezen aurka. Zapatuan, 12:00etan hasiko da bigarren partidua eta Iparragirrek eta Iturbek Rodriguez eta Muxika izango dituzte aurrez aurre. Finala domekan izango da, 12:00etan.

> ASTE SANTUA

### Liburutegia eta udal bulegoak itxita izango dira oporretan

Aste Santuko oporrak direla eta, Udaleko hainbat zerbitzu itxita izango dira. Udal bulegoetan astelehen eta martitzenean egingo dute lan, baina ateak itxiko dituzte hilaren 19tik 24ra bitartean. Udal Liburutegia ere itxita egongo da martxoaren 17tik 24ra bitartean. Eskolan ere oporrak izango dituzte hilaren 17tik 28ra arte. Frontoia, ordea, ez dute itxiko: 09:00etan zabaldu eta aste barruan 20:00etan ixten dute; aste bukaeretan, berriz, 22:00etan.

> ERRETIRATUAK

### Lizarrako irteerarako izena eman behar da hilaren 26an edo 27an

Apirilaren 2an irteera egingo dute erretiratuek Lizarrara. Ohiko lekuetatik 09:00etan irten eta Iratxe hotelean hamarretakoa egin ostean, eliza bisitatu eta herria ikusteko astia izango dute. 14:00etan egingo dute bazkaria eta bingoa, dantzaldia, *Gran Ruleta de la Fortuna* jokoa eta oparia izango ditute gero. Izena emateko martxoaren 26an edo 27an jo beharko dute lokalera, eta 28 euro ordaindu.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**GAZTETXEA** > URTEURRENA

# Herri bazkaria eta kontzertua, bihar

## Sus Scrofa eta Joxpa taldeek egingo dute kontzertua, bihar, 22:30ean gaztetxean

**L.Z.**> ELGETA
Badira hiru aste Elgetako gaztetxekoak, 12. urteurrena delaeta, ekintzak egiten ari direla. Aste bukaera honetan egingo dituzte, baina, ekitaldi nagusiak. Hain zuzen, urteroko herri bazkaria antolatu dute eta eguna giro onean amaitzeko kontzertua egingo dute gaztetxean bi taldek.

Bihar, zapatua, trikipoteoarekin emango diete hasiera ospakizun ekitaldiei. 14:30 aldera bazkaria egingo dute. Aurten ere bertsolariak izango dira bazkari ostean giroa animatuko dutenak: Andoni Otamendi, Mikel Arrillaga eta Alaia Martin bertsolariak, hain zuzen ere. Iluntzean, atzera ere, trikipoteoa egingo dute eta egunari amaiera emateko kontzertua dago iragarrita gaztetxean bertan.

**BI TALDE, 22:30EAN**
Bihar goizeko ordu txikietara arte luzatu nahi dute festa gaztetxean. Sus Scrofa boskote durangarrak punk rock doinuak egingo ditu, 22:30ean hasita. Ondarroako Joxpa taldeko laukoteak, berriz, hainbat talderen bertsioak joko ditu. Publikoa dantzan jarri nahi dute.



**BAZKARIA** Urtero egiten dute gaztetxearen urteurrena ospatzeko. GOIENKARIA

> HIRUNAKO SASKIBALOI TXAPELKETA

### Gaur, barikua, emango diote hasiera txapelketari Antzuola eta Elgetako 11 taldek

Eskola Kirola batzordeak, Egokik eta Udalak antolatuta hirunako saskibaloi txapelketa egingo da egunotan Elgetan. 8-12 urte bitarteko 11 taldek eman dute izena: sei Antzuolakoak eta bost Elgetakoak. Txapelketa gaur, barikua, eta hilaren 17an jokatuko dute, 18:00etatik 20:00etara, kiroldegian.

> HELDUENDAKO ESKOLAK

### Udalak bilera egingo du hilaren 17an, 19:00etan, eskolak jasotzeko interesa dutenekin

Gutxieneko jende kopurua behar da ikastaroak martxan jartzeko. Eusko Jaurlaritzari eskaera egiteko Udalak maiatzerako jakin behar du herrian talderik osatuko den edo ez. Hori horrela, bilera deitu du hilaren 17rako, astelehena. Udaletxean egingo dute, 19:00etan. Interesatu guztiak daude deituta.

> ATHLETIC TALDEA

### Intxortako Lehoiek lehenengo batzar orokorra egingo dute bihar, zapatua, 19:00etan

Athletic taldearen Elgetako lagunarteak bihar, zapatua, egingo du lehenengo batzar orokorra. Egoitza duten Bolatokia tabernan egingo dute, 19:00etan hasita. Zuzendaritza batzordea berretsiko dute, bazkide egin nahi dutenen izenak Bazkideen Liburuan jasoko dituzte eta kuoten ordainketa egiteko pausoak zeintzuk diren azalduko dute.



IBILTARIXANAK.

**LAGUNARTEAN** Alberto Agirreazaldegi eta Andoni Aizpuru Laponian.

**KIROLA** > IRAUPENEKO ESKIA

# Laponian da Alberto Agirreazaldegi

## Rajalta Rajalle Hiito izeneko iraupen eskiko proba egiten dihardu elgetarrak

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA
Errusiako mugatik Suediako mugarainoko luzera duen Rajalta Rajalle Hiito izeneko proba egiten dihardu Alberto Agirreazaldegi elgetarrak. Domekan egin zuen lehen etapa. Abenturazale amorratua eta blogaria ere bada Agirreazaldegi. Hala, nere abentura gertutik jarraitzeko aukera ematen du *Ibiltarixanak* izeneko blogean (*www.blogak.com/ibiltarixanak*).

**440 KILOMETROKO PROBA**
"Orain dela hilabete erabaki nuen parte hartzea", azaltzen du Agirreazaldegik bere blogean. "Antton Dorronsoro beasaindarrak eman zidan bere asmoen berri eta berarekin joateko prest nengoela azaldu nion hurrengo egunean".

Astebeteko iraupena duen eskiko proba egitera joan da elgetarra, 440 kilometro luze dena. "Aspalditik nuen proba horren berri, baina iaz sartu zitzaidan egiteko gogoa lau eibartarrek, tartean Josu Elejalde nire lagunak, egin zutela jakitean. "Eibartarrek egin badute, zelan ez du egingo elgetar batek!", esan nion neure buruari". Prestakuntza egokia egiten saiatu dela adierazi du Agirreazaldegik: "Sonporteko pistetan eta Elgoibarko kiroldegian eta Mintxetan orduak sartu ditut", azaldu du. "Ez dut prestaketa berezirik egin, baina saiatu naiz ia egunero zerbait egiten eta intentsitatea igotzen".

**ETAPA GOGORRAK**
Luzea egin zitzaion lehenengo proba elgetarrari. Hilaren 9an, domekan, egin zuen. Zortzi ordu eta erdi behar izan zituen 63 kilometroko etapa egiteko. Tenperatura 10 eta 5 gradu zero azpitik zen, eta izoztu egin zitzaion edateko zuen ura.

Agirreazaldegik goizero jasotzen ditu *Ibiltarixanak* blogean egunak emandakoak. Laponiatik Elgoibarren utzi dituen emaztea eta alabari bidaltzen dizkie albisteak. Bien artean moldatzen dute bloga, testuak idatzi, argazkiak sartu...: "Domekan dator aita etxera", azaldu digu haren alaba Irati Agirreazaldegik. "Gustura dabil. Taldean joan da Laponiara, 17 bat lagun joan dira". Talde horretan aurpegi ezagunak ere badira. Nabarmenena, Andoni Aizpuru. Laster amaituko du bere Laponiako abentura Agirreazaldegik. Itzulitakoan, bertatik bertara kontatuko ditu bizi izandakoak.

**bere ustez**



**Ana Gillegi**

## Biraorikan ez duen...

Hizkuntza garbia. Biraoak ez dakit, baina nik hementxe luzatzen dizkizuet aurkitu ditudan hainbat esamolde barruak husteko. Barru-barrutik esaten ez badira hutsean gelditzen dira, beraz, tripetatik, zuri hiltzaile, bizitza mesprezatzen duzun horri. Amorrua adierazteko: nazka-nazka eginda nago! Bakean uztea eskatu: Adarrik ez, hi!, Antzarrak perratzera!, Kaka hiretzat!, Pikutara joan zaitez! Ezezkoa garbi adierazteko: Ezta pentsatu ere!, Ezta urrik eman ere!,

**"Tripetatik, zuri hiltzaile, bizitza mesprezatzen duzun horri"**

Inola ere ez! Haserre egon: barrenak kiskali, berotu, erreta egon, izorratuta. Nazkatuta gaudela adierazteko: dedion!, ipurtzuloraino egon, kaka putza!, kaka zaharra!, kokoteraino egon, nahikoa da!, zakurraren putza! Gaiztoa: Alproja, Barrabasa, Lupua baino txarragoa, Maltzurra, Matalaz, Muskerra, Txerria, Txerrikumea, Urdea, Zantarra, Zipotza. Gauzak gaizki egiten dituena: Aldrebesa, Desastrea. Tontoa : artaburua, astozakila, atunburua, azapertza, babalorea, baboa, ergela, gaizki egindako mondejua, inozoa, kaikua, kirtena, leloa, lerdoa, lukainka, memeloa, mozoloa, pepelerdoa, petrala, purtzila, segapotoa, tontolapikoa… Motz gelditu naiz.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

RECYDE
AENOR
Empresa Erregistratua
ER-0182/2/95
RECYDE, S.A.
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

GOIENKARIA
2008ko martxoaren 14a

**Ester Uriarte** > Marimendi elkarteko kidea

# "Elbruseko gailurrera uztailaren 22an edo 23an iristea espero dugu"

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

**Ester Uriarte oletarra Marimendi elkarteko kidea da eta uztailean Elbrus mendia igoko du elkarteko beste 23 emakumerekin batera. Elbrus (5.642 m) Europa osoko mendirik altuena da, Errusia eta Georgiako mugatik gertu dagoena. Kaukasoko mendilerroaren mendebaldean dago. 2006an Mont Blancen izan ziren Marimendi elkarteko kideak. Bi espedizio horien inguruan egin digu berba Uriartek.**



Ester Uriarte aramaioarra Aconcaguako gailurrean. ESTER URIARTE

**Noiz eta nolatan sortu zen Marimendi elkartea?**

Orain dela urte eta erdi hasi zen istorio hau guztia. Marian Arin da elkartearen sortzaileetako bat. Izan ere, Alpeetara joan zenean konturatu zen aterpeetan ez zegoela ia emakumerik, eta are gutxiago, gure adinekoak. Orduan pentsatu zuen hori aldatu beharra zegoela, Euskal Herrian mendian ibiltzen diren andre asko dagoelako. Elkarte bat sortzeko ideia bururatu zitzaion eta pixkanaka-pixkanaka proiektuarekin bat eginez joan ginen.

**Zenbat zarete elkartean gaur egun?**

Guztira 30 bat emakume izango gara. Dena dela, Elbusera 24 lagun joango gara. Joan den urtean Mont Blancera egin genuen espedizioan, bestetik, 19 emakumek hartu genuen parte.

**Zenbat espedizio egin dituzue orain arte Marimendi elkartetik?**

Marimendi elkartetik espedizio bakarra egin dugu. Mont Blancera, hain zuzen ere. Egia esan emakumeak izanda ez da erraza. Badakizu, umeak, gizonak gurasoak zaindu beharra…

**Ze nabarmenduko zenuke Mont Blancera egindako espediziotik? Ze momentu ez duzu inoiz ahaztuko?**

Oso esperientzia polita izan zen eta ahaztuko ez ditudan momentu bat baino gehiago daude: bata tontorrekoa; gailurrera iritsi ginenean hango emozioa, negarra, poza eta besarkada. Emozio asko nahastu ziren orduan. Beste momentu polit bat izan zen lau taldeok elkartu ginenekoa. Izan ere, Mont Blancera lau alde desberdinetatik igo ginen eta guztiak puntu batean elkartu ginenean momentu oso berezia izan zen. Horrenbeste egunetan besteen berririk izan gabe egon ostean, eurekin berriz elkartzea… Zoragarria izan zen.

**Uztailean Elbrusera zoazte. Zer dakizue mendi horren gainean?**

**"Guztira 30 emakume inguru gara elkartean, baina Elbrusera 24 emakume joango gara"**

**"Emakumeak izanda, ez da erraza espedizioak antolatzea: umeak, gizona..."**

Ba, egia esan, oraindik ez dakigu gauza handirik. Kaukason dagoela, 5.642 metro dituela eta Europako mendirik altuena dela. Hotz handia egiten duela ere esan digute eta haizeak gogor jotzen duela. Azkeneko eguna ere gogor samarra izango dela esan digute, desnibel handia dagoelako eta egun horretan metro mordoxka igo beharko ditugulako.

**Zenbat egun egongo zarete etxetik kanpo?**

Uztailaren 16an irtengo gara Moskura eta 26an itzuliko gara. Hortaz, hamar eguneko irteera izango da. Gailurrera uztailaren 22an edo 23an iristea aurreikusten dugu.

**Ze ibilbide egingo duzue?**

Ba, esan bezala, lehenengo Moskura joango gara hegazkinez. Handik Mineralnye Vody hirira. Autobusez gero Baksaneko bailarara joango gara, Elbruseko magalean dagoen bailara da hori. Hurrengo egunean Cheget mendia igoko dugu (3.600 metrokoa). Hor hasiko dugu aklimatazioa eta hor hasiko da gogorrena. Kanpamentu nagusia Barrels Hut-en ezarriko dugu, 3.900 metrora, hain justu ere. Uste dut bi egun beharko ditugula, gero, gailurrera iristeko.

**"Mont Blanceko tontorrera iritsi ginenean hango emozioa, negarra eta besarkadak... "**

**"Elkarteko kide izateko beharrezko da emakumea izatea, 40 urtetik gorakoa eta euskalduna"**

**Entrenatzen hasi zarete? Nola entrenatzen zara?**

Badakit beste emakumeak hasi direla entrenatzen, aste bukaeretan hemengo mendietara joaten direla, baina nik oraindik ez dut gauza handirik egin. Ez dut denborarik izan orain arte. Baina, laster hasiko naiz entrenatzen. Astean zehar Euskal Herriko mendietara joaten hasiko naiz txakurrarekin eta aste bukaeretan, ahal bada behintzat, Pirinioetara, han daude-eta inguruko mendi altuenak.

**Fisikoki egoera onean egon behar duzu Marimendi elkarteko kide izateko?**

Elbruseko azken desnibela 1.700 metro ingurukoa da; beraz, atera kontuak. Hori egiteko fisikoki eta psikikoki ondo egon behar duzu. Aklimatazio ona egitea ere oso garrantzitsua da, mendiko gaitzik ez izateko. Aklimatazio ona egitea arrakastaren %50 izan daiteke.

**Ze beste baldintza eskatzen dituzue elkarteko kide izateko?**

Ba, oso baldintza gogorrak… Emakumea izatea, 40 urtetik gorakoa, eta euskalduna.

**Badago Elbruseko espedizioan parte hartzeko izena emateko aukerarik?**

Elbrusera joateko, ez dut uste. Gauza mordoa lotu behar dira horrelako irteera bat egin aurretik: bisatuak atera, hegazkineko txartelak erosi eta abar. Dagoeneko hasi gara tramite horiek guztiak egiten, eta nahiko aurreratuta dago guztia. Baina hurrengo baterako, bai noski, zergatik ez?

**Elkartetik kanpo ere espedizio bat egin berri duzula jakin dugu. Hala da?**

Bai, hala da. Gabon ostean, urtarrilaren 12an, hiru oletarrek Aconcaguako tontorra egin genuen: Jon Ander Lopez, Xabi Bastarrika eta hirurok.

---

> UDALA

## Saharako haurrak udan etxean hartzeko deialdia

Aramaioko Udalak, *2008ko Oporrak Bakean* programaren barruan, ume sahararrak etxean hartzeko deialdia egin nahi die herritarrei. Udaletik jakinarazi dute Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak haurren osasun laguntza bere gain hartuko duela eta Aramaioko Udalak, bestetik, bidaiaren gastuak. Saharar haurrak etxean hartu nahi dituztenek udaletxera joan beharko dute apirilaren 7a baino lehen.

> KULTURA

## Orri puntuen erakusketa ikusgai apirilaren 16tik 25era

Zuiako Koadrilak antolatutako II. orri puntuen lehiaketan parte hartutako lanak ikusteko aukera izango da laster. Aramaioko udaletxean egingo dute erakusketa eta apirilaren 16a eta 25a bitartean egongo da zabalik. Duranan martxoaren 31tik apirilaren 7ra ipiniko dute erakusketa bera, udaletxean. Legutianon, berriz, apirilaren 8a eta 15a bitartean izango da orri puntuak ikusteko aukera, liburutegian .

> ZINEMA

## Domekan ez da film emanaldirik egongo, txapelketagatik

Aste bukaera honetako zinema emanaldia bertan behera utziko dute Arabako Bertso Txapelketa dela-eta. Izan ere, txapelketako bigarren final aurrekoa jokatuko da domekan Aramaioko kultura etxean. Bertso saioa 17:00etan hasiko da eta lehian jardungo dute bi aramaioarrek: Andere Arriolabengoak eta Iker Agirrek, hain zuzen ere. Manex Agirre joan den astean Gopegin jokatutako finalaurrekoan sailkatu zen finalerako.

> UDALA

## Pazko astean udaletxea itxita egongo da arratsaldez

Aramaioko udaletxea itxita egongo da Aste Santuko oporretan. Hilaren 19tik 24ra egongo da itxita, hain justu. Pazko astean ere ordutegi berezia izango dute Udaleko langileek. Martitzenean eta eguaztenean arratsaldez ez dute lanik egingo. Hau da, 09:00ak eta 14:00ak bitartean bakarrik egongo da udaletxea zabalik. Bestelakoan, Pazko astean, betiko ordutegiarekin jarraituko dute.

**OSPAKIZUNA** > MARTXOAK 8

# 'Sorginek' 20. urteurrena ospatu dute

Sorginak emakume elkarteak 20 urte beteko ditu aurten, eta zapatuko bazkarian gogoan izan zuten

Emakumeen eguneko ekitaldiak ez dituzte bukatu: 'Zai beti zai' antzezlana dute gaur, 19:00etan



**ISUSKIAREKIN** Maritxu Plazaola, Rosa Urreta eta Mertxe Altuna dantzan. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Joan zen zapatuan, martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu zuen Sorginak emakume elkarteak. Urtero legez, Gure Ametsa jatetxean zuten hitzordua bazkaltzeko. Aurtengo, ospakizuna, baina, berezia izan da, 20 urte bete dituelako elkarteak. "Samur esaten da 20 urte, baina Gatzaga herri txikia da eta emakumeok hor egotea garrantzitsua da", dio Amaia Olabe kideak.

**HERRIKO NAGUSIENA ERE BERTAN**

Iaz baino emakume gutxiago elkartu dira, 23 guztira, eta 40 urte ondo betetakoak gehienak: "Gazteen hutsunea igarri dugu, baina ez dakigu zergatik ez diren etorri", dio Olabek. Herrian bertan eta baserrietan bizi diren emakumeak elkartu dira, asko adinean aurrera doazenak. Gatzagako emakume nagusiena, bera ere bertan da, urtero legez. Gaur, hain justu, beteko ditu Matilde Arresek 90 urte.

Bapo bazkaldu ostean isuski banaketa hasi zuten. 20 urtean makina bat isuski banatu dituzte. Hala, batek izan ezik, gainerako guztiek daukate etxean; horregatik, zozketa bidez hautatu zituzten hiruren izenak. Hona hautatutakoak: Mertxe Altuna, Maritxu Plazaola eta Rosa Urreta. Dantzan egin zuten gero hirurek, isuskiarekin. Eta ondoren, gainerakoek ere jarraitu zieten dantzan.

**'ZAI BETI ZAI' ANTZEZLANA, GAUR**

Emakumeen aldeko aldarrikapen ekitaldiak, baina, ez dituzte bukatu Gatzagan. Hala, gaur, egubakoitza, antzerkia izango dute Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatuta. Oihulari Klown taldeko kideek *Zai beti zai* antzezlana eskainiko diete 19:00etan, kultura etxean elkartzen direnei. Virginia Imaz klown pailazoak idatzitako antzezlana da, eta hainbat emakumek jasotako heziketa afektiboa du gai. "Printze urdinaren" zain dauden bi pailazoren desio eta zalantzen testigu izango dira ikusleak.



**BAZKARIA** Herriko eta baserritako emakumeak elkartu ziren Gure Ametsa jatetxean egindako bazkarian, 23 guztira. M.A.

> ERRETIRATUAK

## Toki Eder elkarteak batzar orokorra egingo du, bihar

Toki Eder erretiratuen elkarteak urteko batzarra dauka, bihar, 17:00etan. Elkartearen egoitzan egingo dute, eta bazkide guztiek (47) dute deialdiaren berri. Iazko diru-kontuak aurkeztuko ditu zuzendaritza batzordeak, eta 2008rako ekintzen berri eman. Pedro Mari Elkorobarrutiak jarraituko du presidente izaten, eta gainerako kideen artean ere ez da aldaketarik izango.

> ERLIJIOA

## Eguen, egubakoitz eta domekan Aste Santuko elizkizunak

Hainbat ospakizun izango dituzte Gatzagako parrokian Aste Santua dela-eta. Eguen eta egubakoitzeko elizkizunak arratsaldean izango dira, baina oraindik ez dute ordurik zehaztu. Domeka honetan, meza ostean, emango du horren berri Martin Mendizabal Arantzazuko fraideak. Hilaren 23ko meza nagusia, ostera, 12:30ean izango da domeka guztietan legez.

> TURISMOA

## Aste Santuko jai egunetan goizez dago zabalik gatz museoa

Aste Santuko jai egunetan, martxoaren 19tik 23ra bitartean, zabalik egongo da Eugenio Otsoa gatz museoa. Goizez egingo dituzte gidatutako bisitak gatzaren gaineko goraberak erakusteko: 12:00etan, euskaraz; eta 13:00etan, gaztelaniaz. Eta arratsaldetan ez dute zabalduko. Era berean, Pazko astean, itxita egongo da.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76







KORRIKA ETA BIZIKLETAN Iazko erretratuetan, korrika dabilen taldea, tartean Mikel Larrañaga arrasatearra; ondoan, atleta bat boxetan bizikleta hartzen. GOIENKARIA

**DUATLOIA** > OÑATIKO XVII. DUATLOIA

# Duatloi denboraldia Gipuzkoara iritsiko da bihar, Oñatira (16:00)

Euskadiko Duatloi Txapelketako hirugarren proba egingo dute bihar Oñatin, Gipuzkoako lehena; 16:00etan hasiko dute lasterketa, plazan

**XABIER URTZELAI** > OÑATI

Oñatiko Triatloi Taldeak eta Euskadiko Federazioak antolatuta, Oñatiko XVII. Duatloia egingo dute bihar. Atletak oraindik ez daude gorputzaldi onenean, denboraldi hasiera delako, baina aurreko duatloietan –Durangon eta Basaurin– bistan geratu da aurten zeintzuk izango diren aurrean. Hala, biharko lasterketarako gertu izango dira iazko irabazle Virginia Berasategi eta Mikel Elgezabal. Horiekin batera, Oñatiko zaleendako ezaguna den Laurent Galinier atleta frantziarra ere izango da –2006an irabazi zuen Oñatiko proba–, eta baita Patxi Urizar ere, gaur egungo zirkuituko liderra –Durangon nagusitu zen–. Basauriko proban, berriz, Jon Arozena izan zen azkarrena, eta hura ere Oñatin izango da. Gizonezkoen kategoria, baino, emakumezkoena azpimarratuko dugu, Berasategirekin batera Ainhoa Murua atleta olinpikoa, egun lider dagoen Inma Rafael eta 2007ko txapelketako irabazle Amaia Ostolaza ere irteera puntuan izango direlako; lehia estua emakumezkoetan.

Eta, ezin alde batera utzi Oñatiko proban esku hartuko duten debagoiendar mordoa. Egongo da aurrean ibiliko denik.

**DISTANTZIA MOTZEAN**

Beste edizioetan moduan, aurten ere distantzia motzeko duatloia egingo dute Oñatin. Lasterkariek hiru lan saio egin beharko dituzte segidan: hasteko, zortzi kilometro korrika –bi itzuli herri barruko zirkuituari: Foruen plaza; Kale Barria; Apaolaza; Kurtzebide; Errekalde; Kale Zaharra; Otadui; Lizaur; Unibertsitatea; Foruen plaza–. Eta bizikletak hartuko dituzte gero, Antzuolatik eta Legazpitik bueltan 40 kilometroko ibilbidea egiteko. Proba amaitzeko, berriro ere korrika egiteko zapatilak jantzi beharko dituzte, azken lau kilometroak egiteko.

**XAKEA**

## Arlutz Xake Taldeak kategoria galdu du

Aretxabaletakoak datorren urtean ahaleginduko dira berriro gora igotzen

**X.U.** > ARETXABALETA

Denboraldia hasi zutenetik Aretxabaletako Arlutz Xake Taldekoek bazekiten aurtengo liga inoiz baino gogorragoa izan behar zela. Goialdean ibili diren taldeek fitxaketa garrantzitsuak egin dituzte, eta hori Arlutz moduko talde txiki batek ondo baino hobeto igartzen du.

Joan den astean jokatu zuten Aretxabaletakoek azken norgehiagoka, eta sailkapenean 10 puntu eta erdi batuta jaitsi egingo dira, Easorekin eta Abadiñorekin batera. Ligako irabazlea, berriz, Gros A taldea izan da. Maila galduta, datorren urtean berriro ere Euskadiko xakeko maila gorenera itzultzen ahaleginduko dira.

**ARRASATE SAN ANDRES**

Gipuzkoako Ligan, bestalde, Arrasate San Andres Xake Taldea mailaz igotzeko lehian dabil. Zarautz da liderra (24,5 puntu), eta Arrasate San Andres eta Easo B bigarren eta hirugarren daude, 24na punturekin. Talde bakarra igoko da gora, bi jardunaldi geratzen dira, eta Arrasatek eta Zarautzek elkarren kontra jokatu behar dute oraindik.

**ATLETISMOA** > ESPAINIAKO TXAPELKETA

# Ibarreko atletak Oviedon, Anoetan eta Cuencan

Pertika jauzilariak Oviedon eta Anoetan lehiatuko dira; krosean dabiltzanak, berriz, Cuencan

**X.U.** > BERGARA

Arrasateko eta Oñatiko atletismo taldeetako atletak batera eta bestera ibiliko dira asteburuan.

Batetik, Oviedon (Asturias) egingo dituzten Espainiako Atletismo Txapelketan Eukene Dorronsorok 60 metroko lasterketan hartuko du esku. Harekin batera izango dira, baita ere, Arrasateko taldeko Maialen Axpe eta Lore Mar pertiga jauzilariak. Hala, domekako saiora sailkatzeko Dorronsorok biharko kanporaketak gainditu beharko ditu.

Pertika jauzilariei dagokienez, Maialen Axpek Euskadiko marka ondu zuen otsailean egindako txapelketan (3 metro), eta Lore Marrek ere marka oso ona egin zuen (2,80 metro). Modalitate horretan, baina, Espainiako errekorra 3,45 metrotan dago.

Gazte mailako txapelketa, berriz, Anoetan egingo dute, eta 500 atletatik gora izango dira han. Lide Pagaldaik ere pertika jauzian jardungo du. Euskadiko Txapelketan.

**OÑATIKOAK CUENCAN**

Bestalde, Oñatiko lasterkari Yerai Varela (Promesak) eta Sergio Gartzia (Gazte maila) Cuencan izango dira, Espainiako Kros Txapelketan. Oñatikoak "dena emateko asmoz" doaz, 11 kilometro izango dituen ibilbidean.




PERTIKA JAUZILARIAK Lide Pagaldai, Maialen Axpe eta Lore Mar Jonathan Perez entrenatzailearekin. ARRASATE ATLETIKO

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# Ausart jokatzeko asmoz zelairatuko dira Aretxabaleta eta Mondra derbian

Bi taldeetako entrenatzaileek GOIENKARIAri esandakoaren arabera, bi taldeak gorputzaldi ezin hobean daude derbira begira (16:30, Ibarra)



**FALTA** Iazko derbian, Igartua eta Bereziartua zelai erdian lehian; Mondrako jokalariak falta egin zuen hor. GOIENKARIA

**XABIER URTZELAI** > ARETXABALETA

Ligako momentu gozoenean daude bai Aretxabaleta (42) eta bai Mondra (40). Ez dugu guk esaten, bi taldeetako entrenatzaileek onartu dute hori. Aretxabaleta eta Mondra konfiantzaz daude, etxeko lanak dagoeneko eginda dituzte eta geratzen diren bederatzi jardunaldietan aurrera begira jarraitzea baino ez dute buruan. Horretarako irabazi egin behar da, berdinketek ez dute balio; izan ere, puntu bat gaur egun saria baino gehiago zigorra da.

Aurrekari horiekin, eta jakinda bi taldeetako inor ez dela berdinketarekin konformatuko, badirudi domekako derbia ez galtzeko modukoa izango dela. Badago beste datu baikor bat: bi talde horiek jokatu dituzten azken derbiak joko aldetik onak izan dira.

**ERRESPETUA**

Nahita ere ez diegu ez Igor Gordobili ezta Igor Arenazari ere kontrarioarengatik berba txar bat entzun. Errespetu handia diote elkarri; alde horretatik, saltsa gutxi: "Mondratik neure talderako norbait aukeratu beharko banu, Gordobil bera ekarriko nuke", erantzun digu Arenatzak nor *fitxatuko* lukeen galdetuta: "Bigarren entrenatzailea izango nintzateke neu, haren laguntzailea".

Gordobilek barre egin du: "Arenatzak entrenatzaile mordoa ezagutu ditu, eta igarri egiten da hori, asko ikasten delako. Aretxabaletan egiten dabilen lana azpimarratzekoa da". Esandakoa, entrenatzaileen artean harreman oso ona, eta jokalarien artean lagun asko: "Akaso, zaleek aparteko garrantzia emango diote derbiari, baina niretako beste partidu bat gehiago da. Noski, irabazi egin gura dut, astero moduan", adierazi du Gordobilek.

Kontrarioari begira, inor azpimarratu barik Mondrak duen taldea osotasunean baloratu du Arenatzak. Hala, Arrasateko entrenatzaileak ere ez du inor azpimarratu gura izan, mingainetik tira egin diogun arte: "Niri Igartua asko gustatzen zait, eta Eriko sekulako lana egiten dabil, gorputzaldi onean dago. Gero, hegaletan jokalari oso onak dituzte: Piru eta Espinosa, eta Lopez ere ondo dabil". Konturatu orduko, ia jokalari guztiak errepasatu ditu Arrasatekoak. Esandakoa, gozatzeko partidua izango da, Arenatza ados dago horrekin: "Partidu horrengatik urte bukaeran ez gara aurrerago edo atzerago egongo".


Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**



**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

**AHOLKULARITZAK**

**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**ASEGURUAK**

**GOIENA ASEGURUAK**
ARRASATE / Antso Abarka 6
T: 943 79 59 81
F: 943 79 39 18
BERGARA / Zurradero 2
T: 943 76 97 65
F: 943 76 40 37
goiena@goienaaseguruak.com

**EKONOMISTAK**

**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA**
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

**GESTORIAK**

**EGUREN**
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 71 23 91** zenbakira.

**FUTBOLA** > REALEKO GAZTE MAILAKO TXAPELKETA

# Realeko txapelketan, belar artifizialik ez

Atxabalpek urtetan hartu du Realak Aste Santuan antolatzen duen gazte mailako futbol txapelketako partidu bat; aurten ez, Mojategik belar artifiziala duelako



**PRIETO** Gazte mailan zebileneko irudian, Xabi Prieto, goitik hasita lehena. ARTXIBOA

**X.U.** > ARRASATE

Urtero moduan, ibarreko futbolzaleek Realak Aste Santuan antolatzen duen gazte mailako txapelketaz gozatu ahal izango dute. Oraingoan, baina, eskaintza murritzagoa izango da, talde gonbidatuek Bergaran eta Oñatin jokatuko dutelako, Arrasaten ez. Izan ere, belar artifizialeko zelaia zutelako aretxabaletarrak txapelketa barik egon dira orain arte, eta Mojategiko zelai berriarekin, Arrasatekoak batu zaizkie orain.

Kontua da, baina, datorren urtean Oñatikoak egoera berean egongo direla, Azkoagainen belar artifiziala jartzeko proiektua dagoelako.

**REAL MADRIL ETA BARTZELONA**

Bi talde horiek gertutik ikustea da txapelketak duen erakargarritasunetako bat. Hain zuzen ere, bi talde horiek gurean jokatuko dute.

Txapelketan Realak, Gipuzkoako selekzioak, Bartzelonak, Real Madrilek, Osasunak eta AJ Auxerrek (Frantzia) hartuko dute parte –Chelseak azken orduan ezin izan du etorri–. Hiru taldeko bi multzo osatuko dituzte. Lehenengo multzoan, egubakoitzean (hilak 21), Gipuzkoako selekzioak Osasunaren kontra jokatuko du; eta, galtzaileak Bartzelonaren kontra jokatuko du zapatuan (hilak 22) Agorrosinen (17:00). Beste multzoan, berriz, egubakoitzean Realak eta Auxerrek jokatuko dute, eta partidu horretako irabazleak Real Madrilen kontra jokatuko du domekan (hilak 23) Azkoagainen (17:00).

Txapelketako finala astelehenean (hilak 24) jokatuko dute, 16:00etan, Anoetan.


IÑARRA

## Labegaraietan, Gipuzkoako Karate Txapelketari etekina aterata

Joan den asteburuan egin zuten Bergaran Gipuzkoako Karate Txapelketa, eta etxekoek azpimarratzeko lana egin zuten. 90 karatekaren artean, Shotokanekoak aurrean izan ziren; gainera, euretako batzuk Euskadiko Txapelketarako sailkatu ziren –apirilak 5, Bilbo–.

Katan, Haizea Iñarra bigarren izan zen, eta Jon Urkia, Markel Lopez, Mikel Aginagalde, Irati Rodriguez eta Maider Agirrezabal hirugarren. Kumitean, lehenengo sailkatu zen Joane Amasorrain, eta bigarren izan ziren Haizea Iñarra eta Markel Lopez; hirugarren lekuan sailkatu ziren Sara Manzano, Jon Urkia eta Iker Moreno.

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**
Reala-Numantzia
Zapatua. 18:30. Anoeta.

**Kadeteen euskal liga**
Aretxabaleta-Alaves
Domeka. 12:00. Ibarra.

**Preferente maila**
Aloña Mendi-Zumaiako
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Aretxabaleta-Mondra
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Lehen erregionala**
Bergara-Lagun Onak
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

Soraluze-Antzuola
Zapatua. 16:30. Ezozia.

**Bigarren erregion. Igoera**
Aretxabaleta-Gazteak
Zapatua. 16:30. Ibarra.

Getaria-BTLS
Domeka. 16:00. Orio.

Kostkas-Mondra
Zapatua. 17:15. Matigoxotegi.

**Ohorezko mailako gazteak, igoera fasea**
Anaitasuna-Bergara
Domeka. 16:30. Txerloia.

Herrerako Spo.-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Herrera.

**Ohorezko mailako gazteak, kopa eta jaitsiera**
Orioko-Mondra
Zapatua. 19:00. Orio.

Aloña Mendi-Burumendi
Zapatua. 15:30. Azkoagain.

**Lehen mailako gazteak**
Ilintxa-Aretxaba. B Arizm.
Zapatua. 16:00. Legazpi.

**Gazteak, Kopa**
Zestoa-Bergara
Zapatua. 16:00. Iraeta.

**Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea**
Lengokoak-Aloña Mendi
Domeka (hilak 30). 17:30.
Cesar Benito zelaian.

Bergara-Tolosa
Zapatua. 12:00. Ipintza.

**Lehen mailako kadeteak. Igoera fasea**
Arrasate-Zarautz
Domeka. 11:00. Mojategi.

Aretxabaleta B-Lagun Onak
Zapatua. 10:00. Ondarroa.

**Kadeteak, Kopa**
Arizmendi-Ikasberri
Zapatua. 11:30. Almen.

**Kadete Txiki. Kopa**
Arrasate-Mundarro La Salle
Zapatua. 12:00. Mojategi.

**Ohorezko mailako infantilak, txapeldunak**
Aloña Mendi-Elgoibar
Zapatua. 11:30. Ibarra.

**Infantil Txiki, Kopa**
Arrasate-Vasconia
Zapatua. 10:00. Mojategi.

Kostkas-Aretx.Arizmendi B
Zapatua. 11:00. Matigoxote.

**Emakumezkoen igoera**
Hernani-BTLS
Zapatua. 16:30. Zubipe.

**Emakumezkoen kopa**
Arizmendi-Bergara
Zapatua.15:30. Almen.

Mondra-Zestoa
Zapatua. 18:00. Mojategi.

Urola-Arizmendi
Zapatua. 18:00. Argixao.

**Emakumezkoen F8 Kadet.**
Bergara KF-8-Zestoa
Domeka. 18:00. Ipintza.

**Emakumezkoen F11 Kadeteak, txapeldunak**
Intxaurdi-Arizmendi
Domeka. 10:30. Donostia.

**Alebinak**
Ordizia-Arrasate
Domeka. 11:00. Altamira.

Anaitasuna-Aretxabaleta
Domeka. 10:30. Azkoitia.

Bergara-Aloña Mendi
Domeka. 10:30. Ipintza.

**ARETO FUTBOLA**

**Euskadiko Txapelketa**
Eskoriatza-Kanikas Infrac.
Eguna eta ordua zehazteke.

**Lehenengo maila**
Zarautz-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Antoniano.

**Hirugarren maila**
Prexkuk-UDA Izotz
Gaur. 21:30. Azkoitia.

**Gazte maila**
Anoeta Gazte-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Anoeta.

**SASKIBALOIA**

**Lehenengo maila**
MU-CNP UPNA
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Gipuzkoako seniorrak**
Kevian Sport-Candy BKE
Zapatua. 20:15. Donostia.

DKS-MU
Zapatua. 20:00. Donostia.

Aloña Mendi-Santo Tomas
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak**
Oiarso-Eskoriatza
Domeka. 11:45. Errenteria.

**Gazte maila, gizonezkoak**
MU-La Salle
Zapatua. 10:00. Musakola.

Aloña Mendi-Easo A
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

**Gazte maila, emakumezk.**
Eskoriatza-Krafft Atco.
Zapatua. 16:00. Intxaurtxu.

Bergara-MCM
Zapatua. 18:00. Labegaraiet.

**kadete maila, gizonezkoak**
MU.-Easo Loyola
Domeka. 11:00. Musakola.

Billabona-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Billabona.

MU C-Internacional A
Zapatua. 12:00. Musakola.

**Gipuzkoako ligako kadete maila, emakumezkoak**
Eskoriatza-Ostadar
Zapatua. 16:00. Intxaurtxue.

Lasarte-Aloña Mendi
Zapatua. 10:00. Lasarte.

Take Lasko.-Arizmendi Esk.
Zapatua. 12:00. Tolosa.

**Infantilak mutilak**
Arizmendi-Ikasi ISB
Zapatua. 10:30. Musakola.

Mutriku-Aloña Mendi.
Zapatua. 11:30. Mutriku.

Langaitz-Arrasate Institut.
Zapatua. 12:00. Errenteria.

Bergara-STL Etxaun
Zapatua. 10:30. Tolosa.

**Infantilak neskak**
Take Laskorain-LEK E
Zapatua. 10:30. Tolosa.

LEK B-Ordizia
Zapatua. 12:00. Musakola.

LEK D-Zubiri Manteo
Zapatua. 12:00. Musakola.

Zarautz-Bergara
Zapatua. 09:30. Antonianos.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko Txapelketa**
Ford Mugarri-Egia Servi
Domeka. 10:00. Iturripe.

Bergara-Escolapios
Zapatua. 18:00. Labegaraie.

**Euskadiko senior mailako emakumezkoen txapelk.**
Verkol Aloña-Elorrio
Domeka. 11:45. Zubikoa.

**Lehen maila territoriala**
Arrasate-Donibane
Domeka. 11:30. Iturripe.

**Bigarren maila territoriala**
Allerru-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Lezo.

Bergara-Irungo gazteak
Zapatua. 16:15. Labegaraiet.

**Gazte maila, gizonezkoak**
Aloña Mendi-BKL Haritza
Zapatua. 16:00. Pasaia.

Amenabar-Arrasate
Domeka. 10:00. Zarautz.

**Kadeteak, gizonezkoak**
Bergara-Berezao Aloña
Domeka. 12:00. Labegaraie.

Citroen Chapime-La Salle
Zapatua. 16:00. Iturripe.

Verkol Aloña-Consulting
Domeka. 10:30. Zubikoa.

Bergara-Ereintza Eskub.
Domeka. 10:30. Labegarai.

**ERRUGBIA**

**Emakumezkoak**
Getxo-Arrasate
Zapatua. 11:00. Getxo.

**DUATLOIA**

**Oñatiko XVII. Duatloia**
Zapatua. 16:00. Oñati.

**PILOTA**

**Eskoriatzan**
Egubakoitza. 19:30. Eskuz binaka kadeteak:
Eskoriatza-Gazteleku

**Bergaran**
Egubakoitza. 20:00. Eskuz binaka nagusiak:
Bergara-Eple.

**Aretxabaletan**
Egubakoitza. 20:00.
Kadeteak eskuz binaka:
Aretxabaleta-Lizardi.

**Arrasaten**
Egubakoitza. 21:00.
Kadeteak eskuz binaka:
Aretxabaleta-Mundarro


**Ligako azken jardunaldia jokatuko dute, Getxon**
Arrasateko emakumezkoen talde berriak Getxon amaituko du aurtengo ibilbidea (zapatua, 11:00).



**> ANTZERKIA**
'Made in Xina' umorezko antzezlana gaur Espaloian **> 45**



**> KOMUNIKAZIOA**
Etorkizuneko komunikatzaileak hizketagai Eskoriatzan **> 46**

**> NAIARA URTZELAI**
Sospechosos musika taldeko abeslaria da Naiara Urtzelai oñatiarra; musika ikaragarri gustatzen zaio, baita sukaldean aritzea eta bidaiatzea **> 47**






# HITZA JOLAS
## 25 urtean Oñatin

Oñatiko bertso eskolak 25 urte betetzen ditu aurten, mende laurdena

Gaur egun 50 lagun inguruk osatzen dute, gaztetxoenetatik hasi eta nagusietaraino

**OIHANA ELORTZA** > OÑATI

Oñatiko bertso eskolak 25 urte bete ditu aurten. Mende laurdena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte urte guztirako, eta denetan, bertso eskola sortzeko lan egin zuten bi oñatiar omendu gura dituzte: Emilio Urtzelai eta Jose Mari Agirresarobe *Txinparta*. Bi horiekin batera, Benito Barrena, Isidro eta Jabier San Miguel anaiak eta Daniel Agirre izan dira bertso eskola martxan jarri zutenak.

**66 NESKA-MUTIKO**

Patxi Goikoleak eman zion Benito Barrenari Oñatin bertso eskola sortzeko ideia: "Oñatin zaletasuna zegoela bagenekien, baina nola irakatsi zen kontua. Oraindik gogoan dut bertso eskolako lehen egunean 66 neska-mutiko etorri zirela. Mikel Mendizabalek ekarritako materialarekin eta ilusio handiarekin jarri genuen martxan bertso eskola, eta jarraipena izan du", dio Benito Barrenak. > 44

**URTEURRENA** Txantxikuak bertsotan ageri diren marrazkia aukeratu du bertso eskolak 25. urteurrenerako.

JATORRIZKO ARGAZKIA: OÑATIKO BERTSO ESKOLA

# Hitza jolas 25 urtean Oñatin

(43. orrialdetik dator)

**ZALETASUNARI EUTSI**

Oñatin zegoen bertso zaletasunari eusteko helburuarekin sortu zuten bertso eskola. "Puntako bertsolariak sortzea baino gehiago, horixe zen gure asmoa, zaletasunari eustea. Guk orduan herriko auzo guztietan egiten genuen bertsotan. Uribarri, adibidez, zaletasun handiko auzoa izan da beti", dio Benito Barrenak. Orduan Nikolas Segurola izaten zuten gai-jartzaile.

Oñatin ez ezik, inguruko herrietan ere bazeuden bertsoa gustuko zutenak: "Txapelketak ere egoten ziren, Arrasaten adibidez, eta desafioak ere antolatu izan ditugu. Leintz bailarako bertsolari gazteekin eta zaharrekin, esaterako, desafio bana egin dugu eta biak oñatiarrok irabazi ditugu", kontatzen du Barrenak.

Zaletasuna zegoela ikusita, etorkizuneko bertsolariak nola sortu, gazteei bertsotan nola irakatsi zen orduko bertsolarien kezka: "Guk bertsotan egiten bakarrik genekien, baina ez idazten. *Txinparta*-k lan ikaragarria egin zuen arlo horretan. Patxaradun gizona zen, irakasteko dohaina bazuen eta bazekien gaztetxoekin nola moldatu", dio Benito Barrenak.



**IKASLEAK** Diaz de Gereñu, Agirre, Aizpurua, Lasagabaster, Igartua eta Olalde ikasleak bertso afari baten. IÑAKI OLALDE



**BERTSOTAN** Benito Barrena, Emilio Urtzelai, Isidro San Miguel eta Nikolas Segurola 1983ko Herri Egunean. BENITO BARRENA

**LEHEN IKASLEAK**

Lehen egunean kultura etxeko aretora joan ziren ikasleetako batzuek jarraitu egiten dute oraindik bertso eskolan: "Hilabete gutxian ikusten da gaztetxo batek bertsotarako balio duen edo ez; berezkoa den zerbait duten edo ez. Batzuek, horretaz konturatuta, utzi egin zuten bertso eskola eta beste batzuek, beste zaletasun bategatik. Hala ere, hasierako ikasle batzuek hortxe jarraitzen dute oraindik eta horrek asko pozten nau", onartzen du Benito Barrenak.

Iñaki Olalde, Egoitz Aizpurua, Josu Igartua, Joseba Lasagabaster, Lander Diaz de Gereñu eta Iker Agirre dira ikasle horietako batzuk: "Txokolate janak eta elkarte gastronomikoetan afari-meriendak egiten genituen orduan ere, eta bertsolari gazte horiek sarri egiten zuten elkarrekin bertsotan. Taldetxoa osatzen zuten, bazekiten elkarren berri eta barre asko egiten genituen euren bertsoekin", kontatzen du irakasle izan zuten Benito Barrenak.

**SEI TALDE BERTSO ESKOLAN**

Gaur egun Errekalde auzoko plaza txikian dagoen eskolan du egoitza bertso eskolak, kultura etxean eta Errekaldeko lokal baten egon ostean: "50 lagun inguru gaude bertso eskolan, sei taldetan banatuta. 12-15 lagun inguru elkartzen gara taldetan eta askotan justuan sartzen gara, lekua ez delako handia. Gazteenak adinaren arabera daude banatuta eta nagusienak, egutegi eta ordutegiaren arabera. Talde ezberdinak egon arren, nagusiek ez dute arazorik talde batekoak bestekoekin bertsotan egiteko", azaldu du Iñaki Olaldek.

**GAI-JARTZAILE LANAK**

Oñatin urtean bi bertso saio nagusi egiten dira normalean: Errege bezperan eta San Miguel jaietan. Saio bietan bertso eskolako kideak aritzen dira gai-jartzaile lanak egiten: "Saio horietarako gai freskoak erabiltzen ditugu, egunerokotasunarekin lotura dutenak. Lankide bati gertatutakoa edo tabernan edo lagun artean sortutako solasaldi bat ere aproposa izan daiteke batzuetan gai moduan planteatzeko. Baina gaia nori, nola eta noiz planteatu ere gai-jartzailearen lana da, pisu handiko lana, gainera", azaldu du Iñaki Olaldek. "Oñatiko bertso txapelketarako, aldiz, taldetxo bat sortzen dugu gaiak pentsatzeko. Bestela, gaien biltegi bat ere izaten dugu, nolabait esatearren. Askotan jendeak kalean ematen dizkizun ideiak eta gaiak zerrenda horretan sartzen ditugu", jarraitu du bertso eskolako kide Iñaki Olaldek.

**BERTSO TXAPELKETA**

Urteekin bertso eskolak irabazi egin duela uste du Benito Barrenak: "Jende asko dabil eta herri mailako txapelketak ere antolatzen dituzte", dio. Hain zuzen, bosgarren aldiz antolatu dute aurten herri mailako bertsolari txapelketa. Pako tabernan izaten dira kanporaketak. Hurrengoa bihar, zapatua, martxoak 15, da eta finala Arrano tabernan jokatuko dute, martxoaren 29an. Mirari Sagarzazuk egingo du gai-jartzaile lanak.

**25. URTEURRENA OSPATZEN**

Aurten bete duen mende laurdena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Oñatiko bertso eskolak urte guztian zehar egiteko. 25. urteurreneko kamisetak ere atera dituzte, hainbat koloretan. Antolatutako ekitaldietako batzuk pasa dira dagoeneko, baina urtea bukatu aurretik beste hainbat plazaratuko dituzte. Hurrengo ekitaldia, adibidez, San Jose egunean, martxoaren 19an, egingo dute, baserritarren elkartean. Oñatiko eta Apotzagako bertsolari zahar eta gazteek egingo dute bertsotan elkarrekin. Maiatzerako, berriz, umorezko bertso saio bat egitea pentsatu dute eta udako oporrak hartu aurretik, haragi eta bertso festa, Giokelak lagunduta.

Antolatutako ekitaldi guztietan Emilio Urtzelai eta Jose Mari Agirresarobe *Txinparta* izango dituzte gogoan, bertso eskolaren lehen urteetan egin zuten lana eskertze aldera. Bertsoa gustuko duten guztiak daude gonbidatuta.

**EGITARAUA**

**> UDA**

Bertso eskolaren eguna. Ekitaldien artean: trikibertso poteoa, bazkaria eta bertso saioa.

Bertso musikatuen aurkezpena, musika taldeekin.

Bertso txotxongiloak herriko umeendako.

**> UDAZKENA**

San Migeletako urteroko bertso saioa kiroldegian.

Jon Maiaren berbaldia *Apaizac obeto* espedizioaren inguruan.

**> NEGUA**

Ander Lipus eta bertsoak eskaintzen dituen ikuskizuna.

Urte amaierako festa.

**> URTE OSOAN**

Urtean zehar egingo dituzten ekitaldi guztien bidez Emilio Urtzelai eta Jose Mari Agirresarobe *Txinparta* omendu gura ditu bertso eskolak, hura sortzeko egindako lana eskertzeko.

## Araotz izan zen Sebastian Lizasoren lehen bertso plaza

Araotzeko Trinitate jaietako bertso saioan gai-jartzaile lanak egin behar zituen Benito Barrenak duela 35 urte, baina bertsolariek huts egin zuten eta Sebastian Lizasori deitu zioten, "Joxeren semea zela-eta. Onartu egin zuen gonbidapena eta elkarrekin egin genuen bertsotan", gogoratzen du Barrenak. Horrela, Araotz izan zen Sebastian Lizasoren lehen plaza. Handik denbora batera orduko argazki bat eman zion oñatiar batek Joxe Lizasori, semeari entregatzeko, eta horrela enteratu zen aita, semea bertsotan hasi zela.



Benito Barrena eta Sebastian Lizaso bertsotan Araotzen 1973an. BENITO BARRENA

**ZINEMA** > HUHEZINEMA LEHIAKETA

# Film laburren lehiaketa eta emanaldiak antolatu ditu Huhezik maiatzerako

Huhezinema lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna apirilaren 9a izango da

Film laburren emanaldiak maiatzaren 6tik 9ra bitartean egingo dituzte Kulturaten eta Huhezin

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ESKORIATZA

Huhezi fakultatean Ikus-entzunezko Komunikazioan diharduten laugarren mailako ikasleek zinemaldia antolatu dute Huhezinema izenburupean. Maiatzaren 6tik 9ra bitartean izango da eta Arrasaten, Kulturaten eta Eskoriatzan, Huhezi fakultatean egingo dituzte emanaldiak.

Film laburren zinemaldia izango da Huhezinema eta bi generotako lanak egongo dira ikusgai: fikzioa eta dokumentalak. Film labur horiek izango dira Huheziko ikasleek eginak edo lehiakideenak.

**LEHIAKETA**

Lehiaketa moduan egingo dute zinemaldia. Lehiaketarako lanak, hiru hizkuntzatan aurkeztu ahal izango dira: euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

Sariak ere, hiru izango dira: film laburrik onenarendako, dokumentalik onenarendako eta euskarazko lanik onenarendako. 500na euro irabaziko ditu lan irabazle bakoitzak. Sari horietaz gain, ikusleek beste sari bat emango diote Huheziko lanik onenari, 500 eurokoa hori ere.

Dena dela epaimahaiak erabaki dezake sariren bat hutsik geratzea eta film batek bi sari ere irabaz ditzake. Saritutako egileek eurek edo talde teknikoko edo artistikoko kideren batek jaso beharko dute saria, Kulturaten, Arrasaten, maiatzaren 7an egingo den sari banaketa ekitaldian.

**LANAK HUHEZI-RA**

Izan ere, lehiaketa moduan egingo dute zinemaldia. Lehiaketarako lanak, hiru hizkuntzatan aurkeztu ahal izango dira: euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

Lanak aurkezteko epea apirilaren 9an amaituko da. Honako helbidera bidali beharko dira: Huhezinema film laburren I.jaialdia/ Huhezi (Dorleta auzoa, z/g 20540 Eskoriatza).

Gero, Aukeraketa Batzorde batek apirilaren 25erako egingo du behin betiko aukeraketa lanak aurreikusi ostean. Egileei orduan jakinaraziko zaie.



**IKASLEAK** Zinemaldia *Ikus-entzunezko sistemen egitura* gaian antolatu dute. HUHEZI

Epaimahaia osatuko dute Huhezin ikus-entzunezko ikasketak egiten ari diren laugarren mailako bi ikaslek; Huheziko sail honetako bi irakaslek eta ikus-entzunezko alor profesionaleko bi adituk.

Lanak Huhezinemaren esku geratuko dira eta erakusketa publiko eta sustapen-muntaiak egin ahal izango dira.

**JARRAIPENA BLOG BITARTEZ**

Zinemaldi hau *Ikus-entzunezko sistemen egitura* ikasgaian antolatu dute. Horretarako, ikasleak taldetan banatu dira: komunikazio taldea, produkzio taldea... Komunikazio taldeak, hain zuzen ere, blog bat sortu du zinemaldiaren jarraipena egiteko eta helbide honetan aurki daiteke: *www.blogak.com/huhezinema*.

OINARRIAK

## Parte hartzaileek bete beharrekoak

**- Egileen adina:**
35 urte gehienez.

**- Egilearen jatorria:**
Euskal Herrian (EAE, Nafarroa edo Iparraldean) jaioak edo Euskal Herrian bizi izan direnak azken bost urteotan.

**- Hizkuntza:**
Euskara, gaztelania edo frantsesa (jatorrizko bertsioa).

**- Lanaren ezaugarriak:**
- Gaia eta generoa libreak.
- 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera egindakoak.

**- Gehienez iraupena:**
- Fikziozkoak: 20 minutu.
- Dokumentalak: 30 minutu.

**- Lanak aurkezteko epea:**
Apirilaren 9an, Huhezin.

**- Bidali beharrekoa:**
- Izen-emate orria beteta.
- Zuzendariaren NAren kopia.
- Lana DVD formatuan (bi kopia). Jatorrizko formatua bideoa edo pelikula izan daiteke.
- Filmaren kartela, argazkia edo fotograma; bi, JPG formatuan.

**ANTZERKIA** > CASCAI KONPAINIA ESPALOIAN

# 'Made in Xina' antzezlanean umore giroan landuko dute enpresa munduko efizientzia

Umore eta burla giroan ikusleari barrea eragitea dute helburu, kolorea, efektu bereziak, mimoa eta keinuak erabiliz

**I.A.** > ELGETA

Cascai Teatre antzerki talde kataluniarrak *Made in Xina* antzezlana aurkeztuko du martxoaren 14an, barikuan, 22:30ean, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian.

Marcel Tomas, David Estany, Carles Amarlrich eta Susanna Lloret aktoreak izango dira taula gainean. Umore eta burla giroan jardungo dute kolorea, efektu bereziak, mimoa eta keinuak erabiliz ikusleak barrez jartzeko.

Aktoreek Txinako produktuen gaineko kalitate kontrolean lanean diharduten hainbat langunen papera jokatuko dute. Euren bizipenak, lan egiteko moduak, ilusioak, penak... azalduko dituzte. Onenak izaten saiatzen dira, erabat haserre dagoen txinatar baten agindupean.



**ITXURA** Aktoreek marrazki bizidunetako pertsonaien itxura dute. CASCAI

**EFIZIENTZIA GAI**

Ikuskizun surrealista da eta enpresa munduan hainbeste entzuten den efizientziaz dihardute. Sarrerak 14 euro balio du eta bazkideendako 11 euro.

**BERTSOLARITZA** > ARABAKO TXAPELKETA

# Manex Agirre aramaioarra finalerako sailkatu da

Aramaioko final erdian, hilaren 16an, arituko dira Iker Agirre eta Andere Arriolabengoa

**I.A.** > ARAMAIO

Domekan jokatu zen Ondategiko Zigoitia Aretoan Arabako Bertsolari Txapelketako lehen finalaurrekoa. Serapio Lopez, Asier Otamendi, Felipe Zelaieta, Oihane Perea, Iñaki Viñaspre eta Manex Agirrek jardun zuten bertsotan. Azken honek lortu zuen saio amaieran finalerako txartela.

Bi ordu inguru iraun zuen saioan barre algarak izan ziren nagusi. Nahiz eta hasieran urduri ekin, saioak aurrera egin ahala kontzentratuz joan ziren sei bertsolariak eta oro har fin jardun zuten. Aramaioarrak saio egonkorra eta borobila egin zuen freskoa eta zuzena.

Gainontzeko bertsolariek domeka honetako finalerdiko puntuazioen zain geratu beharko dute. Han erabakiko da apirilaren 5ean Gasteizko Printzipal Antzokian jokatuko den finalerako seikotea zein izango den.

**HIRU ARAMAIOAR**

Bigarren finalerdia Aramaioko kultura etxean izango da, martxoaren 16an, 17:00etan. Bertsotan jardungo dute Ruben Sanchezek, Zigor Enbeitak, Juan Mari Juaristik, Rikardo Gonzalez de Duranak, Andere Arriolabengoak eta Iker Agirrek, azken biak aramaioarrak. Gai jartzailea ere herritarra izago dute: Lierni Altuna.

Bertsolariek ofizioka jardun beharko dute zortziko handian, zortziko txikian eta hamarreko txikian. Ondoren, bina punturi erantzun beharko diete eta kartzelako lanean bina bertso kantatuko dizkiote gaiari doinu eta neurri librean.

**KOROSTI INMOBILIARIA**
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Martoko 92 m². Prezio ona.
- Aranerreka 75 m². Eguzkitsua.
- Elusu baserria. Berritua.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua.
- Ibargarai 74 m². Ondo.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubiaurre 70 m². Berritua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 60 m². Berritua.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Zubieta.75m². Txokoarekin.

**Antzuola:**
- Buztinzuri 76 m². Prezio ona.
- Aiherra 123 m². Duplexa.
- Antigua 80 m². Eguzkitsua.

**Eskoriatza:**
- Baserria. Berritua.

**DEBA GARAIA INMOBILIARIA**
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- Matxiategi, 61m², oso ondo
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin
- San Pedro, 88 m², ondo
- Ibargarai, 80 m², oso ondo
- Artekale, 70 m², oso ondo
- Koldo Elizalde, 87 m², oso ondo
- Artekale, 89 m², ondo
- Zubieta 70 m², ondo
- Urdangarin p., 132 m², berritzeko
- Irizar p., 89 m², oso ondo
- Matxiategi, 73m², berritzeko
- Bidekurutzeta, duplexa, berritua
- Aranerreka, 80m², oso ondo
- Etxebizitza berrien eraikuntza Madura, Masterreka eta Zubiaurren.
- Zurradero, 81m², oso ondo

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83m², berria

**ANTZUOLA**
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Erdigunean teilatupeko 72 metro koadroko etxebizitza salgai. Jantzita. 16 metro koadroko garajea. Prezio interesgarria. Presazkoa da saltzea. 659 64 67 38.

**Arrasate.** 117 metro koadroko etxebizitza salgai Zerrajeran. Lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Garaje eta guzti. 650 10 02 10 edo 943 79 96 63.

**Arrasate.** 47 metro koadroko apartamentua salgai. Erdialdean. Berritua eta jantzita. Argitsua eta material ederrekin egina. 635 70 88 88.

**Arrasate.** 61 m²-ko etxebizitza berritua salgai San Andresen. Bi logela, sukaldea, egongela, komun bat eta terraza. 12 m2ko sotoa ere badauka. Igogailu berritua. Sartzeko prest. 256.050 euro. 669 14 67 92.

**Arrasate.** Erdialdean 94 metro koadroko etxebizitza. Hiru logela, sukaldea, bi komun eta egongela. Igogailua eta berogailua. Garajea aukeran. Eraikin berria. 686 24 97 48.

**Arrasate.** San Andres auzoan etxebizitza salgai. 58 m². Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Berritua. 210.350 euro. 943 27 71 50.

**Bergara.** Barrenkalea kalean. 40 m2. Bi logela, komuna eta sukalde amerikarra. 627 90 68 91 edo 627 53 55 54.

**Bergara.** Erdialdean etxebizitza salgai: bi logela, sukaldea, komuna, sala eta despentsa; trastelekua eta garajea. 626 13 45 94.

**Bergara.** Koldo Eleizalde kalean 97 metro koadroko etxea salgai. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Eguzkitsua eta bista oso onak. Garajea eta trastelekua. 655 71 03 23.

**Bergara.** Zabalotegin etxea salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Deitu 653 70 84 04 zenbakira.

**Legazpi.** 52 metro koadroko etxebizitza berria. 50 metro koadroko terraza, sukalde-egongela, bi logela, bi komun eta hari musikala. 660 84 51 78.

**Lizarra.** Hiru solairuko txalet adosatua salgai. 210.350 euro. 675 71 07 24.

**Oñati.** 70 m²-ko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Berria, igogailuarekin, guztiz jantzita. Leku onean kokatua. 617 05 86 27.

**Oñati.** 75 metro koadro. Hiru logela, egongela-jangela, sukalde berritua, trastelekua eta estudioa egiteko moduko bi ganbara. Oso argitsua. Prezioa negozia daiteke. 629 93 87 01.

**Oñati.** Bidebarrieta kalean etxea salgai. Hiru logela, bi komun, egongela, sukaldea eta terraza handia. 665 74 98 47.

**Oñati.** Diseinuko duplexa salgai. 120 metro koadro Kale Zaharrean. Argitsua eta material ederrekin eginda. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 676 39 36 93.

**Oñati.** Duplexa salgai erdialdean. 105 m2. Lau logela , bi komun, egongela eta sukaldea. 635 71 41 39.

**Oñati.** Erdigunean eraikitzen ari den etxebizitza. 105 metro koadro. Hiru logela, bi komun, 40 metro koadroko egongela-jangela, sukaldea eta trastelekua. Aukera paregabea, prezio onean. 651 70 80 04.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Arantzazu kalean. Berri-berria. Garajearekin. Prezio onean. 608 54 40 44.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Olakua auzoan. Hiru logela, sukaldea, bainugela, egongela, trastelekua eta garaje itxia barne. Guztiz eraberritua. 657 72 25 70 edo 665 72 87 89.

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 22 EURO ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.**
**PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 30 EURO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**BERGARA**
**Hamaika tabernan sukalde-laguntzailea behar da.**
**669 36 65 79**

**ARAMAIO**
**Zerbitzaria behar da asteburuetarako.**
**690 85 52 25**

**ARRASATE**
**Muxibar tabernak zerbitzaria behar du.**
**943 79 11 25**

**OÑATI**
**Estetizista behar da.**
**943 78 08 86**
**943 78 14 07**

**Oñati.** Zubibarri kalean eraikitzen ari diren etxean duplexa salgai 1. eta 2. solairuak. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela handia, garajea eta trastelekua. Dena igogailuarekin lotuta. Eguzki energia termikoa. 670 85 85 41.

**Oñati.** Zubillaga auzoan etxebizitza salgai. 79m2. Hiru logela, sukaldea, sala, komuna eta ganbara guztiz eraberritua. 39 milioi, negoziagarriak. 635 71 41 39.

**Soraluze.** Hiru logela, bi komun eta trastelekua dituen etxebizitza salgai. Sukalde-jangela eta egongela, dena bat da. Lau balkoi eta terraza dauzka eta arropa barruan eskegitzeko aukera. 258.435 euro, negoziagarriak. 616 17 94 01.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** 100 metro koadroko etxebizitza Bolun. Guztiz jantzia. Hiru logela, bi komun, sukalde-jangela, egongela, sarrera eta trastelekua. 607 41 14 44.

**Bergara.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza daukat alokatzeko. Deitu 20:00etatik aurrera. 626 00 96 32.

**Hendaia.** Uztail eta abuzturako apartamentua errentan. Erresidentzia batean kokatua, igerilekuarekin eta parking pribatuarekin. Hondartzatik gertu. Inaxio. 670 41 08 58.

**Torremolinos (Malaga).** Aste Santuan eta Bergarako jaietan apartamentua emango nuke errentan. Bi logela, eta guztiz jantzita. Hondartzatik 150 metrora. Prezio onean. 657 01 18 16.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Emakume arduratsu batek logela behar du. Presazkoa da. Hobe erdigunean badago. 666 21 88 95.

**Bergara.** Etxea errentan hartuko nuke Bergaran. 665 75 52 11.

**Debagoiena edo Soraluze.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 617 88 20 93.

### 105. ETXEAK OSATU

**Bergara.** Gela ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Bolun. 260 euro. 670 85 86 68.

**Gazte langilea** logela bila Arrasaten edo inguruan. Deitu 630 43 72 96 telefonora.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garajea salgai Loramendin. 10.000 euro. 656 77 64 64.

**Arrasate.** Garajea salgai Jauregibarria kalean. 943 08 29 81.

**Oñati.** 17 m²-ko garaje itxia salgai Olakua auzoan. Deitu 943 08 18 13 edo 677 42 57 94.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Garaje itxia emango nuke errentan. 650 55 44 98.

**Aretxabaleta.** Garaje itxia ematen dut errentan. Andramari auzunean dago. 943 77 12 81.

**Arrasate.** Unibertsitate ondoan garaje itxita errentan ematen da. 667 07 14 17.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Arrasate.** Lokala salgai Anboto kalean. 61 metro koadro. Deitu 656 73 34 84 edo 945 44 50 15 telefonoetara.

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** 80 metro koadroko lokala ematen dut errentan. Berriztatuta. 450 euro hilero. 645 00 80 55.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara-Arrasate.** Musika talde batek lokala alokatu edo partekatuko luke. 618 02 03 00.

**Bergara.** Bergaran taberna bat hartuko nuke errentan. Jantzita egon behar du. 697 20 78 24.

**Bergara.** Taberna edo jatetxea errentan hartuko nuke. Deitu 665 75 52 11 zenbakira.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakumea behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 696 79 43 89.

### 402. ESKAERAK

**Bergara.** Emakume bat gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak orduka egiteko. 606 64 16 09.

**Bergara.** Erizain laguntzaile titulua duen neska euskalduna zaharrak eta umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. 625 19 08 63.

**Bergara.** Mutil arduratsua atarietako garbitasun lanak egiteko gertu. Lan txukuna eta profesionala bermatzen du. 696 38 10 07 edo 649 63 23 24.

**Bergaran** umeak edo nagusiak zaintzeko gertu dagoen emakumea naiz. Horrez gain, garbiketa lanak ere egingo nituzke. 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Atariak garbituko nituzke. Lan txukun eta serioa ziurtatzen dut. 696 38 10 07.

**Debagoiena.** Baserrietan mantentze-lanak egin edo baso, pinudi eta lursailak garbitzen lan egingo nuke. 678 88 05 64 edo 678 53 82 11.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... 696 11 01 94.

**Debagoiena.** Mutil bat edozein lan egiteko prest. 671 92 79 85.

**Debagoiena.** Paperak dituen emakumea garbitasun lanak edo pertsonak zaintzeko gertu. 609 76 72 69.

**Debagoiena.** Paperak dituen mutil gaztea gertu eraikuntza alorrean lan egiteko. Deitu 617 85 32 72 zenbakira.

**Emakumea** edozein lan egiteko prest. Batez ere garbiketan eta nagusiak zaintzen. Deitu 666 21 88 95 telefonora.

**Margolari** edo iturgin laguntzaile lanetan aritzeko lan bila nabil. 610 82 02 17.

**Ostalaritzan** lan egingo nuke sukaldari edo zerbitzari. Baita nagusiak zaintzen ere. Berehala lanean hasteko prest. Deitu 666 75 73 21 zenbakira.

**Sukaldaria** eskaintzen da lan egiteko. 677 64 84 82.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**BMW 325 CI.** 146.000 km. 16.000 euro. 606 24 21 21.

**Citroen ZX** 1.9i Volcane autoa salgai. 130 ZP. ABS, direkzio lagundua, kristal-igogailu elektrikoa, aire girotua eta itxitura zentralizatua. 900 euro. Deitu 686 91 45 37 zenbakira.

**Daevoo.** Hiru ate. Egoera onean. 3.000 euro. 688 62 98 03.

**Golf GTI** Serie II salgai. 1990ekoa. 165.000 km. Egoera onean. 1.200 euro. Deitu 653 71 44 31 telefono zenbakira.

**Opel Astra** Caravan 1.7 TD autoa salgai. Matrikula: SS-AT. 2.000 euro. 690 36 86 66.

**Opel Meriva** salgai. 2004koa. Gasolinazkoa. Egoera oso onean. 9.500 euro. 670 26 45 03.

**Opel Vectra** autoa salgai. Egoera onean. 2.400 euro, negoziatzeko prest. 658 73 40 21.

**Peugeot 106 XT** autoa salgai. 649 32 92 94.

**Renault Laguna** 2.2 salgai. 1997koa. Kontsumo txikia du. Egoera onean. 1.800 euro. 677 93 83 19.

**Yamaha 426** motorra salgai. 2001ekoa. Egoera onean dago. 2.000 euro. 615 00 84 49.

**Yamaha Aerox** Ultimate 49 cc-ko motorra salgai. Beltza eta gorria da. Egoera onean. 606 08 09 17.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Administrazio** laguntzaile lanposturako oposaketak prestatzeko apunteak salgai. Gai guztiak eta testak egiteko CDa. 2008koak. 636 05 36 18.

**Segurtasun aulkia.** Autoan umeak eramateko segurtasun aulkia salgai. 656 78 64 64.

**Errepideko bizikleta** salgai. Aluminiozkoa. Oso egoera onean. Karbonozko urkila. Osagarriak: Ultegra. 550 euro. 635 71 94 66.

**Garajeko ate berria** salgai. Prezio bikainean. Neurriak: 3,16x3 m. Gainekoa: 0,50m. Automatismoa jartzeko prest. Fabrikatzailea: Puertas Nueva Castilla. 605 75 96 11.

**Jaunartzea** egiteko marradun alkandora eta jaka urdin iluna salgai. 656 78 64 64.

**Karro-denda** salgai. Alpen-Kreuzer. Sukalde-denda independentearekin. Bi logela bikoitz, mahai-jantokia 4-6 pertsonarentzako, abantzea eguzkitarako biserarekin eta sukaldea. Ondo zainduta eta egoera onean, beti garajean gordeta. 1.800 euro. 615 72 47 43.

**Karabana** salgai. Zazpi metrokoa. Kalefakzioa eta ur berogailua, komuna, dutxa eta sukalde osoa kanpoan, Mutrikuko Santa Elena kanpinean jarrita. 652 75 03 61.

**Mahai obalatua** salgai. Neurria: 1,36x92. Luzagarriekin. Asier. 617 17 15 88.

**Pultsometroa** salgai. S410 modeloa, CD-ROMa barne. Merkea eta egoera onean. 685 76 44 77.

**Tabernako tresneria.** Hamar bandejako labea, 36 diametrodun xaflakako ebakitzaile industriala, Fagor garbigailua eta mahai eta aulkiak saltzen ditut. 649 84 67 09.

**Teleskopioa** daukat salgai. Astrolon markakoa. 402 potentzia. 656 78 64 64.

### 806. GALDU

**Bergara.** Ezkontzako urre koloreko eraztuna galdu nuen. Gizonezko izena eta 99-09-25 data du idatzita. 627 64 91 58.

**Betaurrekoak.** Arrasaten, erdialde eta ospitale artean graduatutako betaurrekoak galdu ditut. Itxura zaharra dute: beltzak dira, eta borobilak. Deitu 678 30 42 02 zenbakira.

### 807. AURKITU

**Belarritakoa** aurkitu nuen, otsailaren 26an, Bergarako osasun etxearen eta taxi geltokiaren artean. Emakumezkoena da, eta bola zuri batekin. Deitu 943 76 46 90 zenbakira.

**Aretxabaleta.** Bizikleta aurkitu dute Loramendi kalean. Umearena da. 943 79 58 98.

**Bergara.** Patinetea aurkitu dut Espoloian. Udaltzaingoan dago. 943 77 91 06.

**Eskumuturreko** bat aurkitu nuen Bergaran geltoki ondoan. 695 73 45 76.

**Eilarrezko eraztun** bat aurkitu dugu Bergaran, Tximeleta ondoan. Izena du. 685 71 51 93.

## KULTURA TEKNIKARI LAN POLTSARAKO DEIALDIA

**EGINKIZUN ZEHATZAK:**
- Kultura zerbitzu zehatzen gestio, koordinazio eta komunikazio lanak.
- Kultura zerbitzuetarako egitasmo eta programa berriak diseinatu eta gauzatu.

**ESKATZEN DA:**
- Euskara ongi menperatzea.
- Harremanetarako eta negoziaketarako gaitasuna izatea.
- Dinamikoa eta lan taldean aritzeko gaitasuna izatea.
- Autonomiaz funtzionatzeko gaitasuna edukitzea.
- Ofimatikako tresnatan erabiltzaile maila izatea.
- Gidatzeko karneta eta autoa edukitzea.

**BALORATZEN DA:**
- Gazteei zuzendutako aisialdi programen ezagutza.
- Teknologia berrien ezagutza.
- Antzeko lanetan eskarmentua izatea.

Curriculumak apirilaren 4a baino lehen bidali posta elektronikoz:
*kudeaketa@topagunea.com*
Zalantzak argitzeko: 94 621 57 80

ARANZADI ikastola

**ARANZADI IKASTOLA**k ondorengo profila duen pertsona behar du **IDAZKARI LANPOSTUA** betetzeko:
- Euskara eta gaztelania erraztasunez erabili eta bietan alfabetatua dagoena. (EGA edo pareko titulazioa duena)
- Administrazioaren familiako Goi Mailako Heziketa Zikloaren titulazioa duena
- Giza harremanetarako gaitasuna duena
- Ekimena/iniziatiba duena

**BIDALI CURRICULUMAK HELBIDE HONETARA apirilaren 2a baino lehen: bergara@ikastola.net**

**Aranzadi Ikastola - San Martin plaza 4**
**20570 BERGARA Tel.: 943 76 90 71**

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
**Arrasate** Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05 / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05. **Oñati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65 **Aretxabaleta:** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramaio**: Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22. **Elgeta:** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98. **Antzuola:** Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle (CIES).**




## hildakoak

- **Reyes Alberdi Muruamendiaratz.** Bergaran, martxoaren 6an. 60 urte.
- **Victoria Orobengoa Bilbao.** Oñatin, martxoaren 7an. 86 urte.
- **Jose Ignacio Goikoetxea Uriarte.** Arrasaten, martxoaren 7an. 63 urte.
- **Sabino Arantzeta Arregi.** Elgetan, martxoaren 8an. 85 urte.
- **Maria Oliva Piñel.** Arrasaten, martxoaren 9an. 85 urte.
- **Juste Amenabar Gallastegi.** Bergaran, martxoaren 9an. 93 urte.
- **Felix Gardoki Mazmela.** Arrasaten, martxoaren 10ean. 83 urte.
- **Julia Amiano Calvo.** Arrasaten, martxoaren 10ean. 80 urte.
- **Isaias Carrasco Miguel.** Arrasaten, martxoaren 10ean. 43 urte.
- **Jose Luis Kortabarria Galdos.** Arrasaten, martxoaren 10ean. 78 urte.
- **Jesus Garitano Astigarraga.** Bergaran, martxoaren 12an. 77 urte.
- **Maxima Madina Arriola.** Aramaion, martxoaren 12an. 85 urte.



**Eider Iturbe** bergararra eta **Julen Anakabe** oñatiarra martxoaren 1ean ezkondu ziren, Arantzazun. Ospakizuna Angiozarren egin zuten, familiakoekin, Taberna Zaharra jatetxean. Bidaian, New Yorkera eta Mexikora joan dira. Zorionak, bikote, eta laztan handi bat lagunen eta etxekoen partetik. Ondo bizi.

ESKER ONA

## Jesus Garitano Astigarraga

Lapatza

Asteazkenean martxoak 12an hil zen, 77 urte zituela

Banan-banan eskertzea zaila zaigunez, hitz hauen bidez, ESKERTU nahi dizuegu bihotzez zuengandik jasotako elkartasuna eta bidalitako samin-agurrak. Mila esker gurekin izateagatik egun triste hauetan.



Bere familiak.
Bergaran, 2008ko martxoaren 14an.

ESKER ONA

## Maxima Madina Arriola

Felipe Arejolaleibaren alarguna

Aramaion hil zen 2008ko martxoaren 12an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Aramaion, 2008ko martxoaren 14an.

ESKER ONA

## Reyes Alberdi Muruamendiaraz

Gasteizen hil zen 2008ko martxoaren 6an, 60 urte zituela.

Une gogorretan zuen samin-agurrak
eta laguntza eskaini diguzuen guztiei
eskerrak eman nahi dizkizuegu,
bere sendi guztiaren partetik.



Bergaran, 2008ko martxoaren 14an.

ESKER ONA

## Jesus Kalboetxeaga Zabaleta

Bergaran hil zen 2008ko martxoaren 3an, 71 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko martxoaren 14an.

ESKER ONA

## Sabin Arantzeta Arregi

Elgetan hil zen 2008ko martxoaren 8an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Elgetan, 2008ko martxoaren 14an.

OROIGARRIA

## Sabin Arantzeta Arregi

Elgetan hil zen 2008ko martxoaren 8an, 85 urte zituela.

*Intxorta elkarteko mahai
borobileko zure lagunek
ez zaitugu ahaztuko.*



Elgetan, 2008ko martxoaren 14an.

9. URTEURRENA

## Mikel Elorza Colinas

Gurasoek, anaiek, osaba-izebek,
gainerako senideek eta adiskideek
maitasunez gogoratzen zaitugu.



Oñatin, 2008ko martxoaren 14an.

1. URTEURRENA

## Amaia Aiastui Andueza

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoaren 16an,
12:30ean ,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

## Antonio Lazkanoiturburu Korkostegi

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, martxoaren 15ean,
19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiangeruaren Parrokian



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

## Jesusa Balanzategi Beloki

Pako Berezibarren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan,
2008ko martxoaren 16an, 12:30ean,
Arrasateko San Joan Bataiatzailea parrokian.
–
*Zeruan egon arren, lurrean ere, zuk, Jesusa,
gure etxekoa izaten jarraituko duzu beti..*



Ezkurra-Galdos familia
Arrasaten, 2008ko martxoaren 14an.

1. URTEURRENA

## Bonifacio Iraegi Aranzabal

'Boni'

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoaren 16an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.


Babeslea:

OROILORE Hileta eta Beilatoki zerbitzuak
Amillaga Auzoa, 27. 20570 Bergara
Tel.: 617 442 155 - 943 76 94 73 - Faxa: 943 76 94 76
maribi@oroilore.com



Bidaia ezin hobea

OROILORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

## bila-bila 7





## hitz gezidunak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | Hitz zaharkitua / Sumendi-aren aho | | Nafarroako herria / A biritan | | Modua / Aitzakia | |
| | | | | | | | | |
| | | | Arrazoia, zioa / Era xaloan | | | | | |
| Alaben senarrak / Aizturrak | | Xakearen hasiera / Musika nota | | | Urtearen erdian / Toka, zuen | | | Norekin atzizkia |
| | | | | | | | | |
| * Irudiko hiriburua / 51 | | | | | | | | |
| | | Bizkaiko harana / Azkena eta lehena | | | | Dunaren erdian / Lehena eta azkena | | |
| Ugaztun haragijale / Gauza, gaia | | | | | | | | Röntgen |
| | | | | | Egur | | | |

GOIENKARIA

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 4 | | 7 | 5 | 9 | | 3 | |
| 9 | | | | 1 | | | | |
| | | | | | | | | |
| 1 | | | 3 | | 5 | | 2 | |
| | 5 | | | | | | 4 | |
| | 8 | | 9 | | 4 | | | 6 |
| | | | | | | | | |
| | | | | 6 | | | | 7 |
| | 3 | | 2 | 4 | 8 | | 6 | 1 |

## hieroglifoa

Non irakurri duzue hori?




## hizki salda

Euskal Herriko sei urtegi

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| U | L | U | K | R | U | O | N | M |
| B | E | R | A | E | L | A | I | A |
| E | A | I | X | O | L | A | X | Z |
| R | B | R | K | T | S | G | E | T |
| R | A | S | R | X | Z | A | L | O |
| U | U | R | I | B | A | R | R | I |
| I | Z | A | G | R | P | A | M | I |
| B | E | L | R | T | E | I | B | U |
| I | E | L | A | R | E | O | T | I |

## soluzioak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| U | L | U | K | R | U | O | N | M |
| B | E | R | A | E | L | A | I | A |
| E | A | I | X | O | L | A | X | Z |
| R | B | R | K | T | S | G | E | T |
| R | A | S | R | X | Z | A | L | O |
| U | U | R | I | B | A | R | R | I |
| I | Z | A | G | R | P | A | M | I |
| B | E | L | R | T | E | I | B | U |
| I | E | L | A | R | E | O | T | I |

**Jeroglifikoa:** Liburuan

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 4 | 8 | 7 | 5 | 9 | 1 | 3 | 2 |
| 9 | 2 | 3 | 4 | 1 | 6 | 8 | 7 | 5 |
| 5 | 7 | 1 | 8 | 3 | 2 | 6 | 9 | 4 |
| 1 | 6 | 4 | 3 | 8 | 5 | 7 | 2 | 9 |
| 2 | 5 | 9 | 6 | 7 | 1 | 3 | 4 | 8 |
| 3 | 8 | 7 | 9 | 2 | 4 | 5 | 1 | 6 |
| 4 | 1 | 6 | 5 | 9 | 7 | 2 | 8 | 3 |
| 8 | 9 | 2 | 1 | 6 | 3 | 4 | 5 | 7 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | B | ■ | G | ■ | B |
| | | | M | A | H | A | I | A |
| | | | ■ | H | O | R | N | I |
| ■ | T | ■ | M | I | R | O | T | Z |
| B | E | T | E | ■ | T | A | X | I |
| ■ | M | A | T | O | I | ■ | O | K |
| J | A | S | A | N | K | O | R | ■ |
| ■ | T | U | K | A | ■ | I | T | U |
| M | I | N | A | ■ | I | N | A | R |



## bono fotoa



**Bergarako herriari 1391an erantsi zitzaionetik Antzuolak ez zuen bere independentzia eskuratu Felipe III.ak hiri izaera eman zion arte. Ze urtetan: 1429, 1529 ala 1629an?**

**Argazkia eta galdera** > Migue Angel Elkoroberezibar

Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ...............................

IZEN-DEITURAK...............................
TELEFONOA...............................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Milka txokolate esneduna**
125 g-ko tableta

**0,76 €**

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**
**Bergarako Elena Agirre**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
**Galderaren erantzun zuzena: San Juani.**

# Jatetxe Gida



## Azkoagaenea
Gaztañadui 4 / ESKORIATZA
943 71 45 66 www.hotelazkoagaenea.com

**Eskaintza**
- Karta
- Enpresa menua
- Etxera eramateko platerak
- Kafetegia terrazarekin
- Dastatzeko menua




## Azpeitxi jatetxea
Aranerreka 13 / BERGARA
943 76 55 00

**Eskaintza**
- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

**Berezitasuna**
- Arraina eta haragia parrillan

**Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.**



## Baster-Alde
Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-aldejatetxea.com

**Eskaintza**
- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Igandeetan itxita**



## Dukiena jatetxea
Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi
Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56 www.etxeaundi.com

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**



## Torrekua
Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

**Berezitasunak**
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak



## Unzueta
Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**




## Uxarte
Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**



## Zotz jatetxea
Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**

**Naiara Urtzelai** > Sospechosos taldeko abeslaria

# "Musika etengabeko bizikidetza da, pertsona bezala aberastu egiten nau"

Naiara Urtzelairi izugarri gustatzen zaio musika. Hala eta guztiz ere, duela urte batzuk zaila ikusten zuena errealitate bihurtu da eta abeslari izateaz "oso pozik eta harro" dago. Sukaldari fina da, eta janari goxoak prestatzen dituela esan digu. Bidaiatzea ere asko gustatzen zaio. Aste Santuan Soriara joango da mutil-lagunarekin, kanpin batera.

JASONE ZABALA > OÑATI

**Naiara Urtzelai oñatiarra Oñatiko Sospechosos taldeko abeslaria da. Mikrofonoetatik kanpo izaera lotsatia duen arren, agertoki batera igotzen denean lotsa guztiak alde batera uzten ditu. Musikaz eta bizitzaz hitz egin dugu harekin.**

**Zure bizitza musika dela esan dezakegu?**

Bueno, nire bizitza ez da musika soilik, gauza asko daude, baina musikak garrantzi handia dauka nire bizitzan.

**Neska gutxi izango dira musika taldeko bateko abeslari. Nola hasi zinen?**

Egia esateko, bai. 2004an hasi ginen, gutxi gorabehera. Nire mutil-lagun Javi Bujanda, Ander Korkostegi eta Xabi Puertorekin batera Sospechosos izeneko taldea sortu genuen. Hasierako urteetan nire taldekideek garaje batean jotzen zuten. Han hasi ziren ikasten, eta ni ere garaje hartan egoten nintzen batzuetan. Hasieran bertsioak jotzen zituzten, eta nik abesten zituzten kantu ia guztiak nekizkienez, nire buruarendako abesten nituen. Beste lagun batzuek ere beste talde bat zuten, eta abesteko izugarrizko gogoa sartzen zitzaidan, baina ez nintzen ausartzen, mikrofono baten aurrean jartzeak lotsa ematen zidalako.

Behin, parranda batean, orain nire taldekide den batek Sospechosos taldeko abeslari izan nahi nuen galdetu zidan, eta izugarrizko ilusio egin zidan proposamenak. Ordutik hona taldean nabil, eta oso gustura ibili ere.

**Mutil-laguna ere taldeko kidea da. Nola eramaten da hori?**

Egia esan, bizikidetza oso zaila da orokorrean, eta musika bera bizikidetza bat da, baina oso-oso gustura nago. Nire bizitza aberasten dute halako gauzek, egunero zerbait berria ikasten dut.

**Txoritxo batek esan dit aitari ez diola grazia handirik egiten bere alkandorak zuretzat hartzen dituzunean...**

Bai. Orain ez, baina lehenago aitaren alkandora batzuk apurtu eta prakak, txalekoak... egiteko erabili izan ditut. Normala den moduan, ez zion grazia handirik egiten ez, baina bueno...

**Eta, musikak eta lanak uzten dizunean, zer egitea gustatzen zaizu?**

Gauza asko gustatzen zaizkit. Gauza bat esan beharko banu, ez zait bat bururatzen, egunekoak egunean, baina txakurrak pila bat gustatzen zaizkit. Gainera, etxean *Kaiku* izeneko bat daukagu. Mutil-lagunarekin egotea ere asko gustatzen zait. Gainera, ni ez naiz etxean denbora luzean egoten den horietakoa.

**Entzuna dut sukaldari fina ere bazarela...**

Bai. Sukaldean jardutea asko gustatzen zait. Janaria niretzat prestatzen dudanean gauza goxoak egiten ditut. Gainera, sukaldaritzak erlaxatu egiten nau.

**Honen guztiaren ondoren parrandarako ere izaten duzu astirik?**

Parrandarako beti ateratzen dut astia, nahiko denbora, gainera!

**Zer duzu gustukoago: zerbitzari lana, lantegia lanean jardutea ala zure taldearekin kontzertu bat?**

Duda izpirik gabe, nire taldekideekin kontzertu bat ematea, hori izugarria da. Nori gustatzen zaio, bada, lanera joatea? [Barre].

**Baduzu beste zaletasunik?**

Nik ditudan zaletasun guztiak musikarekin daude lotuta. Gehienetan lagunekin kontzertuetara joatea gustatzen zait, eta batez ere parranda.

**Musika zaletasuna duzu orain. Gurako zenuke hori ofizio bihurtu?**

Bai, noski, musika ofizio bihurtuko balitz, gustuko dudan ofizio bat izango litzatekeelako.

**Bidaiatzea ere gustuko duzu. Zein da buruan daukazun hurrengo bidaia?**

Bai, gustuko dut. Berlinen egona naiz eta berriz ere joango naiz bertara. Aste Santuan, baina, mutil-laguna eta biok eta agian *Kaiku* txakurra ere Soriara joango gara. Bertan, mutil-lagunak karabana bat dauka kanpin batean, eta bertara joateko izugarrizko gogoa daukat. Mutil-lagunak urteak daramatza kanpin horretara joaten.

**Nola ikusten duzu etorkizunean zure burua?**

Musika munduan zerbait lortuta izatea, musika nire ogibide bihurtuta ikustea eta, batez ere, nik nahi dudana egitea.










J.Z.

PERTSONALA

**Herria:** Oñati. **Adina:** 23 urte. **Zaletasunak:** Kirol gutxi egitea eta mutil-lagunarekin egotea. **Gorrotatzen duzun zerbait?** Politikariak, eliza eta beste batzuen kontura aberasten diren hipokritak. **Baduzu maniarik?** Asko. **Gomendatzeko moduko liburu bat:** *Días* (Iñaki de Juana Chaos-ena). **Musika talde bat:** Asko daude onak, baina bat esatekotan, Delirium Tremens. **Parrandarako toki bat:** Toki guztiak dira onak parrandarako. **Zure ametsetako agertokia?** Handia den edozein. **Bidaiatzeko leku bat:** Maroko, Berlin...

**Andres Gostin** > Huheziko Ikus-entzunezkoetako irakaslea

# "Hedabideetan gero eta gehiago behar dira komunikatzaile integralak"

Huheziko Komunikaldietan etorkizuneko komunikatzaileak izan zituzten hizketagai

Profesionalek aholkuak eman zizkieten bihar-etziko komunikatzaileei



Andres Gostin Huheziko irakasleak koordinatzaile lanetan jardun du aurtengo Komunikaldietan. JOXE ARANZABAL

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ESKORIATZA

**Etorkizuneko komunikatzaileak izan dira aurtengo Komunikaldietako gai. Andres Gostinek koordinatzaile lanetan jardun du Huhezin eta jardunaldietatik ez ezik urte luzetan hedabideetan jasotako esperientziatik egin digu berba unibertsitatean irakasle denak.**

**Zer dela eta jardun duzue etorkizuneko komunikatzaileez aurtengo Komunikaldietan?**

Aurten aterako da lehenengo promozioa Ikus-entzunezkoen karreran. Hortaz, pentsatu genuen aukera polita izan zitekeela ikasleei erakusteko ikasketak bukatzen dituztenean lan munduan nolako panorama dagoen eta nolako komunikatzaileak eskatzen dituzten. Ikasketak bukatzen dituztenean nolabaiteko gida bat falta zaie.

**Nola dago komunikazio mundua une honetan?**

Komunikazioaren alorra oso zabala da eta unibertsitatean saiatzen gara ahalik eta alderdi gehien ukitzen: prentsa idatzia, irratia, telebista, Interneteko mundu zabala, teknologia berriak, zinema… Panorama alde batetik bestera asko aldatzen da. Jardunaldietan atera dugun ondorioetariko bat da teknologia berriek sekulako aukerak eskaintzen dituztela alor askotan jarduteko, eta hori da hizlari gehienek nabarmendu zutena. Internet bitartez, blogekin… nork bere ideiak komunikatzeko aukera dago. Prentsan, irratian eta telebistan kontua pixka bat beherantz doa, baina teknologia berriekin lotuz gero esparrua zabaltzen da. Gero eta gehiago behar da komunikatzaile integrala: prentsa idatzirako jarduteaz gain, irratirako adierazpenak hartu behar dira, Interneten ibili, telebistarako aurkezpena egin… Horretarako prestatu behar ditugu ikasleak.

**"Iruditzen zait erosotasunerako joera dagoela komunikazioaren esparruan"**

**"Gogoa, bizitasuna eta jakin-mina behar ditu komunikatzaile batek, ezinbestean"**

**Etorkizuneko komunikatzaileak ez ezik komunikabideak ere izan ziren hizpide, ezta?**

Jendeak gero eta aukera gehiago ditu eskura prentsan, irratian, telebistan… Etorkizunean eskaini behar dena da norberak propio landutako informazioa, ikusitakoa, bilatutakoa, osatutakoa… Komunikazioaren munduan erosotasunerako joera dagoela iruditzen zait, gehiegi jartzen garela berri agentziek edo erakundeek eskainitako bigarren eskuko informazioaren esku.

**Komunikatzaileendako zein aholku azpimarratuko zenuke?**

Gogoa da komunikatzaile batek behar duena, jakin-mina eta bizitasuna izatea, ez geratzea gauzak noiz etorriko zain. Martxelo Otamendik "pasioa" deitu zion. Horretaz gain, jantzita egonez gero are eta hobeto; esaterako, hizkuntzak menderatu egin behar dira, eta ezinbestekoa da hori. Bestalde, sen berezia eduki behar da notizia ikusteko, informazioa non egon daitekeen, belarriak beti adi eta bizi ibili, galdetu… Eserita egonda ez da ezer lortzen. Aipatu ziren beste aholkuak izan ziren: kontalari ona izatea, ausardia… Bertsotan esaten da bertsoa ekarri egin behar dela, ez dela berez etortzen, eta komunikatzaileak ere informazioa ekarri egin behar du, jakinda, gainera, zenbait lan esker txarrekoak izan daitezkeela. Unibertsitateak oinarria ematen du; ikasi, gero, denok ikasi dugu lanean, jardunean. Eta eskarmentua urteek ematen dute.

**Martxelo Otamendiren esanetan, lan egoera eskasarengatik jende askok profesioa uzten du.**

Ofizioak badu alde bat oso esker txarrekoa. Baldintzak, esaterako, ekonomikoak zein oro har lanbide honetako baldintzak, ordutegiak… Baina gogoa izanez gero, emaitza ordaintzea oso zaila da. Lan baldintzen kontua oso eztabaidagarria da; oso eremu labaina da. Esan zuten ikasle hasi berriek argi izan behar dutela lehen urteetan lan baldintzak ez direla izango, seguru aski, eurek uste bezain onak. Hedabideek saiatu behar lukete lan baldintza duinak eskaintzen.

**Ikasleak prest daude etorkizunean komunikatzaile modura egoki jarduteko?**

Egon beharko dute. Egoera dagoena da eta merkatua dagoen moduan dago eta komunikatzaile izan nahi duenak badaki zer daukan. Jardunaldietan oso mezu baikorra zabaldu zuten: aukera asko dago bai prentsa idatzian, bai irratian, bai telebistan, bai teknologia berrietan… Langileak behar dituzte, jende prestatua behar dute, egon badagoelako lan eskaintza.

## Teknologia berriak menderatzea ala talentua izatea?

"Etorkizunean teknologia berriek gero eta pisu handiagoa izango dute. Hedabide ezberdinek bat egingo dute, eta gure inguruan ikusten da jadanik. Hedabideek aprobetxatu egin behar dituzte teknologia berriak, eta teknologia horien erritmoa galtzen duena atzean geratuko da. Baina teknologia gero eta eskuragarriago dago; hortaz, besteak du garrantzia. Teknikariak, kameralariak... behar dira, baina garrantzitsuena talentua da, horrek ematen dio berezitasuna lanari. Komunikaldietan parte hartu dutenek azpimarratu duten beti saiatzen direla talentuari ihes egiten ez uzten".

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak
/denetik
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/eguzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi
/gorla
/gurea
/guztizeder
/hamaikataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jcracing
/lamaino-etxeberri
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/optico
/otzeta
/pando
/perfipar
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernaberri
/udalatx
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbieta
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.biark.net



Goiena.net

## berriak

> POGRAMAZIOA

### Goiena Telebistak ez du etenik izango Aste Santuan

Ohiko programazioa eskainiko ez badu ere, Goiena Telebistak ez du etenik izango Aste Santuko jaiegunetan; izan ere, eguneroko albistegiak ez ditu eskainiko, baina bai saioak, hala nola *Berbaire, Ilunpean, Musikantoi* eta *Marrazki bizidunak*.

Pazko astean, bestalde, normaltasunera bueltatuko da Goiena Telebista eta berriz ere hasiko da albistegiak eskaintzen.

> 'EUSKALDUNAK HIZKETAN'

### Aste Santuaren ostean saioa berria hasiko da Goiena Telebistan

*Euskaldunak hizketan* izeneko saio berria eskaintzen hasiko da Goiena Telebista Aste Santuaren ostean. Tokiko telebisten elkartea osatzen duten zazpi telebistek ekoiztu dituzte saioak, GOITBk barne. Produkzio osteko lanak, berriz, Arteman enpresak egin ditu. Saio berrian, nagusi euskaldunekin egindako elkarrizketak dira protagonista: lehenagoko ohiturak izango dira oinarri.

> ARRASATE IRRATIA

### Pazko astera arte ez dute zuzeneko saiorik izango

Aste Santua datorrela-eta, Arrasate Irratiak ere hartuko ditu oporrak datorren astean. Hain justu ere, astelehenetik egubakoitzera bitartean ez da eguneroko irratsaiorik izango, zuzeneko saiorik, alegia.

Dena den, irratiarekin bat egin gura dutenek izango dute zer entzun uhinen bitartez, irratiko lankideek elkarrizketa bilduma prestatu dute-eta Aste Santurako.

> ARRASATE IRRATIA

### Zinema izango dute protagonista Aste Santutik bueltan

Aste Santuaren ostean, eguneroko albiste eta irratsaioez gainera, zinema izango da irratiko protagonistetako bat. Izan ere, Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateak, batetik, eta Udal Sexologia Zerbitzuak, bestetik, nork bere esparruan, jakina, film laburren gaineko ekimenak bideratuko dituzte. Sexologia Zerbitzuak film laburren lehiaketa antolatu du eta Huhezik, berriz, film laburren jaialdia.

**'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Ritxi Aizpuru hartuko du gaur Iker Barandiaranek

Azkoitiarra da Aizpuru, diskogintzan egin duen lanagatik da ezagun, eta gaur egun Baga-Bigan dihardu



**RITXI AIZPURU** GOIENKARIArako egindako argazkian. IKER BARANDIARAN

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Ritxi Aizpuru ezaguna da diskogintzan eman dituen urteengatik. 49 urte ditu eta luzaroan izan da Oihuka diskoetxeko arduradun. Gaur egun Baga-Bigan dihardu, baina horren aurretik, AEK-ko lehenengo promozioko irakasle izan zen, eta baita Bilboko gaztetxeko sortzaile ere.

Ritxi Aizpuru musika alorrean eman dituen urteek egin dute ezagun, baina haren bizitzako beste pasarte batzuk ezagutzeko aukera ere eskainiko du gaur Goiena Telebistak, *Ilunpean* saioan, 22:15ean.

**ERREPORTAJEA** > ASTELEHENA, 21:47

# Isaias Carrascoren hilketa ekarriko du gogora Goiena Telebistak, datorren astean

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Joan den martxoaren 7ko Isaias Carrascoren hilketaren gaineko erreportajea prestatu du Goiena Telebistak. Egun hartan San Andresko Navas de Tolosa kalean tirokatu zutenetik, haren hileta elizkizunaren eta hilketa gaitzesteko egindako mobilizazio guztien gaineko erreportajea izango da.

Carrasco tirokatu eta berehala iritsi zen Navas de Tolosa kalera Goiena Telebista, eta baita eskualdeko ospitalera ere. Martxoaren 7an Arrasatetik pasatu ziren politika alorreko hainbat eta hainbaten adierazpenak jasoko ditu erreportajean, hala nola Miguel Buen (PSE-EE); Espainiako Estatuko presidente Rodriguez Zapatero; Alderdi Popularreko presidente Mariano Rajoi; Unai Ziarreta (EA); Lorea Leanizbarrutia (EAJ); eta abar.

Gainera, hurrengo egunetako erreakzioak eta gaitzespen mobilizazioak utzitakoak ere eskainiko ditu. Horretaz gutziaz gain, Arrasateko Udal Gobernua hautsi izana ere ekarriko du GOITBk erreportajera.

## telebegi

**Leire Kortabarria**

### Inkestak, albiste

Joan den hauteskunde egunean ikusi nituen telebistan, ustez, punta-puntako kazetari eta analistak, lehen mailako interesa zuen gai baten, albiste ez zena albiste egiten, eta horren gainean ondorioak ateratzen. Inkestez nabil. Espainiako kate handi bakoitzak, eta erkidegoetakoek, nork bere inkesta eskatu zuen, eta horiek ematen hasi ziren 20:00etan. *Baina* txiki bat zegoen: datu horiek ez zirela albiste.

Askotan erabiltzen dute komunikabideek, delituak tartean daudenetan eta bestelakoetan, *ustezko* hitza egiaztatuta ez dauden gertakariak argitara emateko. Kasu hau antzekoa izan zen: inkesta bateko emaitzak zirela gogorarazten zuten, baina horiek albiste bihurtzen jarraitzen zuten. Azkenean, inkestetatik bakarra, Antena3-rena, gerturatu zen errealitatera. Emaitza ofizialak irten arteko denbora inkestekin bete baino hobe lukete beste formula bat bilatu, batez ere, emaitzak jakiteko hain gutxi falta denean: gertutasunak nahasmena sortzen du, eta izan zitekeenaz baina ez denaz hitz egiteak, are gehiago.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordui AEK-ko Komunikazio arduraduna; *Ibili munduan* geltokian, Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00**
Erreportajeak, elkarrizketak... tarte bereziak, oporraldiari begira prestatutakoak.

Aste Santua dela eta, Arrasate Irratiak oporraldia hartuko du hilaren 17an. Emisioei ekingo diegu martxoaren 25ean.

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza,14**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Kantari. **14:15** Animalia. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Musikantoi. **16:15** Ur eta lur. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. **18:15**Hitz bitan. **18:45**Albisteak. **19:15**Ikusmira. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Gertutik. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Musikantoi. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Klip 28. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 15**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15**Klip. **12:30** Gertutik **13:00** Eltze beroa **13:30** Erreportajea. **14:00**Berbaire. **14:30**Bertsoak. **15:00** Kantari. **16:00** Marrazki bizidunak. **19:00**Hitz bitan. **19:30**Klip@. **20:00**Ur eta lur. **20:30**Berbaire. **21:00**Euskal artzainak. **21:30**Erreportajea ttipi ttapa. **22:00**Erreportajea. **22:30**Ilunpean. **23:00**Musikantoi. **23:30**Jazmina. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 16**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. **11:00**Kantari. **12:00**Ur eta lur. **12:30**Berbaire.**13:00**Euskal artazainak. **13:30**Jazmina. **14:00**Animalia . **14:30**Eltze beroa. **15:00**Musikantoi. **15:30**Erreportajea. **14:00**Ilunpean. **14:30**Errepor ttipi ttapa. **15:00**Ur eta lur. **15:30**Eltze beroa. **16:00**Gertutik. **16:30**Marrazki bizidunak.**19:00**Jazz gauak. **19:30**Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea ttipì ttapa. **21:00** Bertsoak. **21:30**Animalia. **22:00** Astekoak. **22:15** Gertutik. **22:45**Erreportajea. **23:15** Teknopolis.**23:45**Ilunpean. **00:15** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera.

**Astelehena, 17**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea-Ttipi TTapa. **14:15**Eltze beroa. **14:45**Berriak. **15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Berbaire.**16:15**Berbaire. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ikusmira. 1**8:15**Ikusten. **18:45**Berriak. **19:15** Gertutik. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Bertsoak. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea. **22:15** Kirolari. **22:45**Berriak. **23:15**Bertsoak. **22:45**Gaurkoak. **23:30**28 Klipa. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena, 18**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Horry.**13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea. **14:15** Bertsoak.**14:45**Berriak. **15:15**Gertutik. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Kirolari. **16:15**Eltze beroa **16:45**Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47** 28 Klipa .**18:15**Musikantoi. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak: Horry. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Ikusten. **22:15**Animaliak. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusmira. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Erreportajea. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena, 19**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15**Klip. **12:30** Gertutik **13:00** Eltze beroa **13:30** Erreportajea. **14:00**Bertsoak. **15:00** Kantari. **16:00** Marrazki bizidunak. **19:00**Hitz bitan. **19:30**Klip@. **20:00**Ur eta lur. **20:30**Teknopolis. **21:00**Euskal artzainak. **21:30**Erreportajea ttipi ttapa. **22:00**Erreportajea. **22:30**Ilunpean. **23:00**Musikantoi. **23:30**Jazmina. **00:00** Emisio amaiera.

**Eguena, 20**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. **11:00**Kantari. **12:00**Ur eta lur. **12:30**Teknopolis.**13:00**Euskal artazainak. **13:30**Jazmina. **14:00**Animalia . **14:30**Eltze beroa. **15:00**Musikantoi. **15:30**Erreportajea. **14:00**Ilunpean. **14:30**Errepor ttipi ttapa. **15:00**Ur eta lur. **15:30**Eltze beroa. **16:00**Gertutik. **16:30**Marrazki bizidunak.**19:00**Jazz gauak. **19:30**Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea ttipì ttapa. **21:00** Bertsoak. **21:30**Animalia. **22:00** Astekoak. **22:15** Gertutik. **22:45**Erreportajea. **23:15** Teknopolis.**23:45**Ilunpean. **00:15** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera.


Eskaintza honek 2008ko martxoaren 13tik 22ra balio du
Produktuak
€1,
€2,
€3,
Prezioak apurtzen ditugu!!
EROSKI
zurekin

# Martxoak 14-21

**LEIRE KORTABARRIA**
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 12**

## Kontzertua



ARRASATE

**> Metal estiloko musika joko dute sei taldek Barreneko Deabrua Xtreme Fest-en**

Honakoek joko dute: Omendark (Bilbo), Dantalion (Vigo), Profundis tenebrarum (Valentzia), Cerambyx (Kordoba), Lupulo (Amurrio) eta Denial (Arrasate, argazkian). Bihar, zapatua, izango da, gaztetxean, 19:30ean. Sarrera, 5 euro.

## Antzerkia



ELGETA

**> 'Made in Xina' antzezlan surrealista egingo dute Elgetako Espaloia antzokian**

Cascai antzerki taldeak *Made in Xina* umore surrealistako antzezlana egingo du gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean. Protagonistak kalitate kontrola egiten duten langile batzuk dira: boxealari ohia, bekaduna, arduraduna…

## Kontzertua



OÑATI

**> Ganbara Txiki Abesbatzak kontzertua egingo du Madrilera joan aurretik**

Ganbara Txiki Abesbatzako 55 neska-mutikoak Madrilera joango dira abestera, baina aurretik, etzi, domeka, kontzertua egingo dute. Agustindarren elizan izango da, 20:00etan. Prestatzen dabiltzan diskoko abestiak eskainiko dituzte.

# Musika

ARETXABALETA

**> Golpe de Estado eta Sospechosos taldeen kontzertua**

Oñatiko Golpe de Estado eta Sospechosos taldeek kontzertua egingo dute Aretxabaletan. Golpe de Estadok *Mi prisión* delako diskoa grabatu berri du, eta horko abestiak joko dituzte, batik bat.

Gaur, egubakoitza, Haizea tabernan, 21:30ean.

BERGARA

**> Hardcore kontzertua egingo dute bi taldek gaztetxean**

AHTren aurkako jardunaldien barruan, hardcore kontzertua egongo da: Afganistan ye-yes (La Roca, Bartzelona) eta Burux Lee (Zarautz) taldeek joko dute.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean.

ESKORIATZA

**> Never Surrender taldeak kontzertua egingo du**

Never Surrender taldeak punk-oi estiloko musika joko du gaur, egubakoitza.

Inkernu tabernan, 22:30ean.

OÑATI

**> Bartzelonako Gracia auzoko abesbatza eta Pake Lekukoa**

Pake Lekuko Aloña abesbatzak eta Bartzelonako Gracia auzoko abesbatzak –Orfeo Gracienc delakoak– batera kantatuko dute.

Martitzenean, hilak 18, Santa Ana antzokian, 18:30ean.

ARRASATE

**> Leyenda Urbana, ZTK Rap, Puto Punki eta DJak, 3.60an**

Hip hop gaua egingo dute 3.60 aretoan. Horren barruan, hainbat talderen kontzertua egongo da: Leyenda Urbana, ZTK Rap, Puto Punki eta Al Rojo Vivo Sound Systemako hainbat disko-jartzaile. 3.60 aretoan joko dute. Sarrera 5 euro da.

Bestalde, zapatu goizaldean, 04:00etan, Orlando (kimetz) disko-jartzaileak emanaldia egingo du.

Bihar, zapatua, 22:30ean.

# Antzerkia

ARRASATE

**> 'Inalanbrikak' antzezlana egingo dute bihar, zapatua**

Inalanbrikak taldearen entsegu orokorra ikusiko dute ikusleek. Bat-batean, kantarien artean aurreneko zalantzak eta beldurrak sortuko dira. Eta desafinatzen baute? Eta ikusleen gustuko ez badira? Ondo dantzatuko dute…? Azkenean, musikari eta hiru nesken arteko adiskidetasunari esker, zalantza guztiak gaindituko dituzte.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

ARRASATE

**> Antzezlan musikala egingo dute gaur Iamai kafetegian**

Gorka Aginagalde eta Luis Moreno *Pirata* aktoreek antzezlan-show musikala egingo dute. Gag-ak eta abesti alai eta umoretsuak bateratzen dituzte.

Gaur, egubakoitza, Iamai kafetegian, 00:00etan.

ARETXABALETA

**> 'Hitzen lapurra' bertso ikuskizuna egingo dute**

Hitzen lapurra delako bertso ikuskizuna ikusteko aukera egongo da. 3-8 urte bitarteko umeei zuzenduta dago. Sarrera doan da.

Gaur, Kurtzebarri eskolan, 18:00etan.

LEINTZ GATZAGA

**> 'Zai beti zai' antzezlana eskainiko du Oihulari Klownek**

Virginia Imazek egin eta zuzendu duen *Zai beti zai* antzezlana egingo dute Oihulari Klowneko pailazoek Leintz Gatzagan. Hainbat emakumek jasotako heziketa afektiboaren gaineko parodia egiten dute lan horretan.

Gaur, egubakoitza, 19:00etan, kultura etxean.

ANTZUOLA

**> 'Los cuentos de la bruja Arruguitas' ipuin kontaketa**

Mercedes Carrion ipuin kontalariak *Los cuentos de la bruja Arruguitas* izeneko emanaldia egingo du. Antzuolako ikastetxean egingo du, gaztetxoei zuzendutakoa da-eta.

Gaur, egubakoitza, Antzuolako ikastetxean, 11:00etan.

PROPOSAMENA

BERGARA

### > Erramu Eguneko azoka egingo dute bihar, zapatua

Erramu Eguna ospatuko dute. Azoka egingo dute goizez erdigunean: San Martin, Munibe, Fraiskozuri eta Simon Arrieta plazetan eta Seminarioko jolasparkean. Horrez gain, bestelako ekintza batzuk ere egongo dira: trikitilarien eta zanpantzarren kalejirak, txorimalo erakusketa eta lehiaketa, baserriko saiheski-dastatzea, herri bazkaria, umeendako zezentxoak eta bertsolariak.

Bihar, zapatua, 09:30ean hasita, egun osoan.



# Erakusketak

ESKORIATZA

**> 'Hondakinak: amesgaiztorik ez!' delako erakusketa dago**

Mankomunitateak antolatuta, hondakinen, beroien kudeaketaren eta gaur egungo egoeraren inguruko erakusketa dago. Helburua da jendeari hausnarketa eragitea, gaur egungo ohiturak eta egoera aldatzeko daukagun aukeraz ohartarazteko. Ibarraundi museoan dago.

Martitzenetik egubakoitzera: 09:00-14:00 eta 17:00-19:00; zapatuan, 17:00-20:00; eta domekan, 12:00-14:00 eta 17:00-20:00.

BERGARA

**> Cele Otañoren erakusketa osatuena ikusteko aukera**

Cele Otaño Bergaran hilobiratua dagoen artistaren erakusketa dago Aroztegi aretoan. Karikaturak, oliozko margoak, grabatuak eta kolonaurreko zeramikak dira. Astelehenetik domekara bitartean dago zabalik; domekan, goizez bakarrik.

Hil osoan egongo da zabalik.

BERGARA

**> Kute Erdabideren margolanak daude Nahikari tabernan**

Kute Erdabidek 14 lan ipini ditu erakusgai Nahikari tabernan. Akuarelak dira, eta Euskal Herriko txokoak hartu ditu gaitzat. Ricardo Azkargortarekin dihardu ikasten. Beart Bergarako arte elkartearekin hainbat taldeko erakusketatan parte hartu du, eta honakoa da bere lehenengo bakarkako erakusketa.

Masterreka kaleko Nahikari tabernan.

DONOSTIA

**> Manu Muniategiandikoetxearen erakusketa**

Manu Muniategiandikoetxea bergararraren Begar gorria. Primavera azul delako erakusketa bisitatzeko aukera dago. Art Basel Miami Beach delako azokarako 2004an egindako proiektua, Burgosko Kutxaren arte zentroko bakarkako erakusketa eta 2007ko Iruñeko Baluarten oraingo hamarkadako artista espainiarren taldeko erakusketa izan dira honako erakusketaren oinarri.

Koldo Mitxelenako erakusketa aretoan, honako ordutegian: martitzenetik zapatura, 10:30-14:00 eta 16:00-20:30; astelehen, domeka eta jaiegunetan, itxita.

ELGETA

**> Elgetako emakumeen argazki erakusketa**

Martxoaren 26ra arte egongo da Elgetako emakumeek egindako argazki erakusketa zabalik.

Espaloian dago erakusketa.

ELGETA

**> Emili Cadiñanosen eskulanak ikusteko aukera dago**

Emili Cadiñanosek eskulan erakusketa ikusgai dago Espaloia kafe antzokian.

Hil osoan egongo da erakusketa bisitatzeko aukera.

# Lehiaketak

BERGARA

**> Mendekoste jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa**

Bergarako Mendekoste jaiak laster iritsiko dira. Hala, jaietako programaren azala egiteko lehiaketa martxan jarri du kultura zerbitzuak. Kartelak Bergarako kultura etxean aurkeztu beharko dira, apirilaren 7ko 13:00ak baino lehen. Lehiaketa honetan Bergaran bizi edo erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte.

Lanak aurkezteko epea apirilaren 7an bukatzen da.

# Bestelakoak

BERGARA

**> Hainbat ekintza, Aranzadiren Kultura Astea bukatzeko**

Kultura Asteko azken ekintzak egingo dituzte gaur, egubakoitza, Aranzadin. Haur Hezkuntzakoek, 10:00etan, tailerrak: moldeaketa, antzerkia, mozorroak, eskulanak, margolanak, bitxigintza… izango dituzte; 11:00etan, jolasaldia egingo dute eta aurpegia margotuko dute; 15:00etan, film emanaldia izango dute. Lehen Hezkuntzakoek kantu eta dantza emanaldiak, zinema eta mahai jokoak izango dituzte. DBHkoek ginkana eta bazkaria izango dituzte; eta DBHOkoek, ikastaroak, klima aldaketaren gaineko bideoa eta bazkaria.

Gaur, egubakoitza.

BERGARA

**> Ilargia, Saturno eta Marte ikusteko teleskopioak**

Aranzadi ikastolak eta Ilatargi Astronomia Taldeak Ilargia Saturno eta Marte ikusteko teleskopioak jarriko dituzte ikastolako jolaslekuan.

Gaur, egubakoitza, 19:30ean.

BERGARA

**> AHTren gaineko jardunaldietan, parodia eta bazkaria**

AHTren inguruko informazioa emango dute bihar, zapatua, goiz osoan zehar, eta parodia bat ere antzeztuko dute. Gero, 14:30ean, baba-jana egingo dute gaztetxean.

Bihar, zapatua; kanpoko ekintzak, plaza inguruan; bazkaria, gaztetxean.

OÑATI

**> Oñatiko V. Bertsolari Txapelketako jardunaldia**

Herriko txapelketako hirugarren kanporaketa jokatuko dute. Honakoek parte hartuko dute: Arantzazu Sagarzazu, Egoitz Atxaga, Endika Ruiz, Iñaki Igartua eta Beñat Alberdi.

Bihar, Pako tabernan, 18:00etan.

# Zinema




## Buda explotó por vergüenza ***

**Zuzendaria:** Hana Makhmalbaf.
**Aktoreak:** Nikbakht Noruz, Abdolali Hoseinalian.
Iran, 2007.
81 min. Denondako.

Donostiako azkeneko zinemaldian, *Buda explotó por vergüenza* Iran eta Frantziaren arteko ekoizpenak epaimahaiaren sari berezia eskuratu zuen. Egileak, Hana Makhmalbafek, 19 urte zituen filma egin zuenean, eta badu meritua lortutako emaitzak, nahiz eta hasiberrien akats batzuk ere badituen filmak: eszena batzuk gehiegi luzatzen ditu eta baita gauzak gehiegi errepikatu ere.

Afganistanen kokatzen den istorio honek eskolara joan nahi duen neskatila baten bidaia erakusten digu: eskolarako tresneria biltzeko egin behar duen guztia, eskolarako bidean topatzen dituen mutikoen gerra-jokoak eta talibanen ideiak jarraitzen, eta eskolan dituen eragozpenak..

Makhmalbaf zuzendaria oso ausarta da, jorratzen dituen gaiak gaur egungoak dira: Ameriketako Estatu Batuek egindako inbasioa, talibanen pentsaera totalitarista eta horien tartean emakumeek jasaten duten tratu diskriminatzailea.

Irango zinemagile askok oso istorio txikietan edo pasadizoetan oinarritzen dituzte euren lanak, eta *Buda explotó por vergüenza* talde horretan sar daiteke. Zuzendariak errealitatea ipuin baten sartzen du. Definizio handiko kamerarekin filmatuta dago, eta baliabide murritzekin. Teknika horrek eta haur guztien naturaltasunak –neska protagonistaren lana benetan distiratsua da– filmari errealismo sentsazioa ematen diote. Tamalez, orain, gaztelaniazko bikoizketarengatik, sentsazio hori oso murriztuta geratzen da; Irango film bat baino gehiago, *Heidi* marrazki bizidunak entzuten garela ematen du.

Oro har, *Buda explotó por vergüenza* zuzendari gazte baten lan freskoa eta ausarta da.

Antonio Zabala

### ARRASATE
**AMAIA ANTZOKIA**

**La soledad**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Mr. Magorium y su tienda mágica**
Domeka: 17:00.

### BERGARA
**AGORROSIN**

**Conversaciones con mi jardinero**
Zapatua eta domeka: 16:30, 19:30.

**GAZTETXEA**

**Mad Max**
Domeka: 18:00.

### ELGETA
**ESPALOIA ANTZOKIA**

**Unibertsolariak, munduaren ertzaren bila**
Domeka: 17:30.

**Clerks 2**
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI
**KULTURA ETXEA**

**Expiación**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**El arca de Noé**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

### EIBAR
**UNZAGA**

**10.000**
Egubakoitza: 19:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30.

**La torre de Suso**
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**10.000**
17:30, 20:00, 22:30.

**Horton**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**El mejor de los males**
17:00, 19:45, 22:30.

**Mi monstruo y yo**
17:00.

**Cerrando el círculo**
17:30, 20:00, 22:30.

**No es país para viejos**
17:30, 20:00, 22:30.

**27 vestidos**
17:00, 19:45, 22:30.

**Pozos de ambición**
19:15, 22:00.

**FLORIDA-GURIDI**

**Buda explotó de vergüenza**
18:00, 20:15, 22:30.

**Juno**
18:00, 20:15, 22:30.

**Cometas en el cielo**
17:00, 19:45, 22:30.

**Al otro lado**
17:00, 19:45, 22:30.

**Nuestro pan de cada día**
Domeka: 17:00, 20:30.

**Los falsificadores**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**Los perros dormidos mienten**
18:00, 20:15, 22:30.

**Lo mejor de mí**
18:45, 20:15, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**10.000**
12:15, 15:45, 17:00, 18:00, 19:15, 20:15, 21:30, 22:30, 23:45, 00:45.

**Enfrentados**
22:40, 00:50.

**Mi monstruo y yo**
12:15, 15:55, 18:10, 20:25.

**En el punto de mira**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Las hermanas Bolena**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Jumper**
20:10, 22:10, 00:10.

**No es pais para viejos**
12:15, 15:35, 17:50, 20:05, 22:25, 00:45.

**27 vestidos**
12:15, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**Franklin (infancia)**
12:15, 16:25, 18:25.

**Horton (infancia)**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Las crónicas de Spiderwick**
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Ahora o nunca**
22:35, 00:35.

**Juno**
20:05, 22:05, 00:05.

**Astérix en los Juegos Olímpicos**
12:15, 15:50, 18:05, 20:20.

**The eye**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**Mortadelo y Filemon**
12:15, 15:45, 17:45.

**La guerra de Charlie Wilson**
19:45, 21:45, 23:45.

**Alvin y las ardillas**
12:15, 16:05, 18:05.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**10.000**
15:50, 17:00, 18:10, 19:30, 20:30, 22:20, 22:45, 01:00.

**Mi monstruo y yo**
17:00, 19:30.

**En el punto de mira**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**27 vestidos**
15:50, 18:10, 20:30, 22:45, 01:00.

**Las hermanas Bolena**
17:00, 19:30, 22:15, 00:45.

**Horton**
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

**La guerra de Charlie Wilson**
22:00.

**Jumper**
16:15, 18:15.

**Sweeney Todd**
20:15, 22:40.

**Astérix en los Juegos Olímpicos**
16:15.

**No es país para viejos**
19:00, 22:00.

**Las crónicas de Spiderwick**
16:00, 18:10, 20:20, 22:35, 00:45.

**The eye**
16:15, 18:20, 20:20, 22:25, 00:30.

**Vaya par de productorex**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Sweeney Todd** ****
AEB, 2006. Zuzendaria: Tim Burton. Aktoreak: Johnny Depp, Helena Bonham-Carter.
116 min. 13 urtetik gorakoendako.
Benjamin Barker kartzelara eramaten dute modu bidegabean. 15 urte eta gero, bizargin moduan bueltatzen da, mendekua hartzeko asmoz.

**Las hermanas Bolena** ***
Erresuma Batua-AEB, 2007. Zuzendaria: Justin Chadwick. Aktoreak: Natalie Portman, Scarlett Johansson, Eric Bana.
115 min. 18 urtetik gorakoendako.
Bolena ahizpak, Ana eta Maria, euren familiaren askoguraren biktima dira, eta euren artean lehiatuko dira Enrique VIII.a erregearengatik.

**Pozos de ambición** ****
AEB, 2007. Zuzendaria: Paul Thomas Anderson. Aktoreak: Daniel Day Lewis, Paul Dano.
158 min. 13 urtetik gorakoendako.
Plainview-k, isilpeko informazio bati esker, mendebaldeko herrixka baten petrolio-itsaso bat deskubriten du, eta H.W. semearekin joango da Little Boston-era zorte bila. Han, Eli Sunday apaizaren Mendekoste Eliza dago.

**La guerra de Charlie Wilson** ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Mike Nichols. Aktoreak: Tom Hanks, Julia Roberts.
97 min. 13 urtetik gorakoendako.
Charlie Wilson AEBetako Kongresuko kidea afganiar gerlariei laguntzen hasten da Sovietar Batasunaren inbasio garaian.

**10.000**
Zeelanda Berria-AEB, 2007. Zuzendaria: Roland Emmerich. Aktoreak: Camilla Belle, Steven Strait, Cliff Curtis.
109 min. 7 urtetik gorakoendako.
D'Leh ehiztari gazteak mendiko tribu baten aurkitu du pasioa. Gerrako jauntxo batzuek bere herria suntsitu eta bere maitea bahitu dute.

**Cometas en el cielo**
AEB, 2007. Zuzendaria: Marc Forster. Aktoreak: Khalid Abdalla, Homayoun Ershadi.
112 min. 13 urtetik gorakoendako.
Gerra zibilaren atarian dagoen herri baten, Amir eta Hassan betirako banantzeko zorian daude.

**27 vestidos**
AEB, 2007. Zuzendaria: Anne Fletcher. Aktoreak: Katherine Heigl, James Marsden.
107 min. Denondako.
Jane emakume idealista eta erromantikoa da. Hainbat ezkontzatan izan da, baina berea inoiz iritsiko ez dela ematen du…

**Buda explotó por vergüenza**
Iran, 2007. Zuzendaria: Hana Makhmalbaf. Aktoreak: Nikbakht Noruz, Abdolali Hoseinali.
81 min. Denondako.
Bakhtay neskatila afganiarra da eta 6 urte ditu. Bizilagunen semeak alfabetoak irakurtzen ditu, eta eskolara joatera bultzatzen du Bakhtay.

**nire aukera**



Joseba Lasagabaster
Bertsozalea
Oñati

## "Edozeinek irabaz dezake txapelketa"

Realeko bazkide naiz, eta Realak etxean jokatzen duenean, partidura joatea gustatzen zait; oraingo aste bukaeran, adibidez, halaxe tokatzen da. Bestalde, zapatuetan herrian irteten naiz, edo, noizean behin, kanpora joaten naiz erosketaren bat egitera. Horrez gain, lagunekin edo bertso eskolakoekin afariren bat suertatzen da noizbehinka.

Hori ohiko plana da; baina, azkenaldian, Oñatiko Bertso Txapelketaren inguruan ere banabil. Nik kantatu nuen; eta oraindik ez dakit biharko kanporaketa ikustera joango naizen.

**Inguruan bertso ekitaldirik dagoenean joango zara, bada?**
Bai, aukera edukita eta gustukoa izanez gero, joaten naiz, bai. Aurrekoan, adibidez, *Gu ta gutarrak* ikustera joan nintzen. Gustatu zitzaidan.

**Txapelketarako zelan ikusten duzu zure burua?**
Aurreko baten, poto egin nuen eta arantza horrekin geratu nintzen; orain, ateratzeko gogoarekin nago. Baina uste dut edozein lehiakidek irabaz dezakeela.

**Parrandazalea bazara?**
Bai, banaiz, aste bukaera guztietan ez irten arren; gustukoago dudan tabernarik ere ez daukat. Sagardotegira ere, urtean bi edo hiru aldiz joaten gara.

**Esan duzu futbola ere gustuko duzula…**
Hala da; eta herriko futbol txapelketan ere banabil, Xaguxahar taldearekin. Orain, gainera, ligarako sailkatu gara, eta beharbada partidu gehiago izango ditut aurrerantzean; hortaz, beste konpromiso bat izango dut aste bukaeretan.

**Eta bestelako kirolik?**
Txirrindularitza gustatzen zait bereziki. Nire kontura irteten naiz bizikletan. Orain, lagunak gabiltza klasikaren bat-edo egiteko gogoarekin.

**Goienkaria**
**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2008-03-14

# Balio dutelako, finalera

**'TÚ SÍ QUE VALES'** Tele5 kateko saioan parte hartu du Bergarako 'break dance' talde batek

**ENTSEGUAK** Samu Crew taldeko hiru kide Bergarakoak dira, baina Irunen egiten dituzte entseguak

**FINALA** Gaurko saioan jakingo da hilaren 28ko finalean egongo den edo ez Samu Crew taldea

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

*Tú sí que vales* telebista saioan izan dira Bergarako hiru gazte. *Break dance*-a egiten dute eta Irungo beste lagun batzuekin batera Samu Crew taldea osatzen dute. Lagun batek animatuta aurkeztu ziren Donostiako hautaprobara: "Otsailaren 23an Donostiako Arantzazu hotelean egin genuen hautaproba. 200 lagunen artean aukeratu gintuzten", gogoratu du Angel Alcaraz Bergarako taldekideak.

Donostiatik Bartzelonara joan ziren. Hantxe, beste probintzia batzuetatik joandako artistekin batera saioa grabatu zuten. Eta, hain zuzen ere, joan den egubakoitzean eman zuten saioa telebistan.

**IRITSIKO OTE DIRA FINALERA?**

Telebistan gaur emango dute beste artista batzuekin grabatutako saioa; eta aurreko asteko artisten eta gaurkoen artean erabakiko da finalera zeintzuk iritsiko diren: "Finalera iristeko hautagaiak gara; hala, gaurko saioaren ondoren jakingo dugu hilaren 28ko finalean izango garen edo ez", dio Alcarazek.

Telebistako esperientzia ezin hobea izan dela azaldu digu bergararrak: "Jende asko ezagutzeko aukera izan dugu; eta, bide batez, jendeak musika nola bizi duen ikusi dugu". Orain, artisten lanari gehiago begiratzen diote, eta baita txalotu ere, Alcarazen esanetan.

Samu Crewk parte hartu zuen saioan, Los Morancos anaiek, Noemi Galerak eta Angel Llacerrek osatu zuten epaimahaia: "Oso jatorrak dira", dio Angel Alcarazek.

**ENTSEGUAK, ASTEAN BI ALDIZ**

Taldea zabalagoa izan arren, telebistara sei bakarrik joan ziren: Jose Mari eta Imanol Peso (Oreta), Yerandi Macias (Irun) eta Bergarako Angel eta David Alcaraz eta Amaia Vernal.

Martitzen eta eguaztenetan egiten dituzte entseguak, Irunen. Hala ere, Alcarazek esan digu berak egunero egiten duela dantza, gehienetan anaiekin.



**TALDEKIDEAK** Samu Crew taldea Bartzelonan hartutako irudian. ANGEL ALCARAZ

## ahobero

### "Jokalariek egiten dituzten oihuak ez dira beharrezkoak eta gogaitu egiten dute; hortaz, tenis agintariek debekatu egin beharko lituzkete"

**Martina Navratilova** >
Tenis jokalari ohia

Beharbada, gogaikarri samarrak izan daitezke; baina hori gauza bat da eta beste bat da oihu egitea debekatzea. Berak ez zuen oihurike egiten?

## iturri onetik

### La Txusma Arrasateko rock gogorreko taldea bueltan dator berriro disko berriarekin

Ia 10 urte isilik egon ostean, berriro bueltan datozela jakinarazi dute La Txusma arrasatearrek. Berrizko Estoldetan estudioan grabatu berri dute diskoa; guztira hamar abesti, denak gazteleraz.

Johnny, Gotzon, Piraña eta Oskar taldekideen asmoa apiril hasierarako diskoa kalean egotea da. Gero, kontzertuak ematen hasiko dira; baina oraindik zehaztu barik dute kontzertuen egutegia.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Innobasque politikan

Egoera bihurriak utzi ditu igandeko hauteskunde saioak Hegoaldean. Espainiako aginte banaketari dagozkion korapiloak joango dira askatuaz hurrengo asteetan. Eta hor hartuko zaio lehen traza legealdiko jardunari. Batez ere, zein Zapatero ikusiko dugun hurrengo hilabeteetan.

Gure bihurriak zuzentzen zailagoak izango dira. Alderdi abertzaleek onartu beharko dute iporrot kolektiboa izan zutela, botoetan bezala abstentzioan ere. Eta diagnostikoa egiterakoan, ondo kontuan hartu NaBai bakarrik salbatu dela; baita herritarron botoa gero eta mugikorragoa dela ere. Datu horiekin, estrategia garaileak adostu beharko dute, egun erakusten duten txikikeriaren gainetik. Berrikuntzarako ordua iritsi zaie, lehengoak ez die balio.

## ai, ene!



### Bi aurpegi dituen gizona: aurrean eta atzean

Tatuajeak egitea modan dago; baina buruan egitea ez da ohikoa. Are gutxiago, irudikoa bezalakoa egitea. Originala, bada!

www.dogguie.com




Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, GIPE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, GIPP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, GIPL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, GIPJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (2 sms)
Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) I AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) I AIZKO
Amore amore (Karidadeko benta) I AMORE
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) I ASKATA
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) I BEGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) I BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) I DUB
Egunero (Hertzainak) I EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) I SUKAR
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) I ELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) I ENAMO
Entzuidazu (Aterking's) I ENTZU
Etorkizuna (Etsaiak) I ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) I EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) I GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) I BELAIR
Haizea (Ken7) I HAIZEA
Hegal egiten (Itoiz) I HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) I IKUSI
Ilargia (Ken 7) I KEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) I INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) I JOKIN
Kaixo (Urtz) I KAIXO
Lau Teilatu (Itoiz) I ITOIZLAU
Laztana (Latzen) I LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) I LOTUTA
Loretxoa (EXKIXU) I LORE
Marea Gora (Itoiz) I MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) I MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) I NICA
No time for love(Hertzainak) I NOTIME
Salve (La Polla) I SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) I SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) I SORGIN
Txatxo (Zarama) I TXATXO1
Txus (La Polla) I TXUS

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) I SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) I BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) I BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) I BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) I EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) I EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) I EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) I POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) I FURRA
Galiziara noa (Oskorri) I GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) I GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) I HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) I IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) I LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) I MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) I NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) I NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) I OIAMA
Tirauki (Oskorri) I TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) I TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) I TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) I ZAINDU

LOGOAK (2 sms)
KODEA




OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

# Ezkontzak

Egubakoitza / 2008ko martxoaren 14a / **Arduraduna:** Iker Barandiaran / **Maketazioa:** Oxel Arrieta / **Publizitatea:** Mireia Larrañaga




Argazkian Joxe Mari Azpitarte eta Nagore Zubizarreta

ARGAZKILARIA: ANE IDIGORAS - BEGIRA ARGAZKILARITZA



Jean Louis David POLIT EGOTEKO

TRADITION
Ibargarai 43 • 20570
BERGARA • Tel.: 943 76 22 48

DIFFUSION
Garbera Merkataritza etxea 23 aretoa
20017 DONOSTIA • Tel.: 943 39 45 86

DIFFUSION
Lakua Merkataritza etxea 05 aretoa
01010 GASTEIZ • Tel.: 945 17 91 50

DIFFUSION
QUICK SERVICE
Magdalena 16 • 01008
GASTEIZ • Tel.: 945 13 47 26

DIFFUSION
Urbil Merkataritza etxea B7 aretoa.
20170 USURBIL • Tel.: 943 36 08 17

BULEGO ZENTRALA
TRANING CENTER
Gasteiz Etorbidea 84
01012 GASTEIZ • Tel.: 945 21 42 38

Jean Louis David-ek L'ORÉAL PROFESSIONNEL
produktuak erabiltzen ditu


UDABERRI – UDA
2008
TROKO
Erdiko kale 14 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 94


xarma
edertze zentroa
• Ile-apaindegia
• SPA manikura eta pedikura
Olarte 8 bis | Arrasate
Tel.: 943 79 91 25
xarma_7@hotmail.com
Ordutegia
Astelehena - Ostirala: 09:30 - 19:00
Larunbata: 08:00 - 13:30
Astelehenean, otsailak 18 zabalik
Bihar, larunbata, otsailak 16 inaugurazioa 18:00etan

■ ZERTARAKO EZKONDU?

# Ezkondu edo izatezko bikote egitea, hortxe zalantza

IKER BARANDIARAN

**Bikote asko zalantzan egoten dira ezkondu, izatezko bikote egin edo bestelako paperak egin. Askok ez dute ezkondu gura izaten, baina etorkizunean gerta daitekeenagatik duda handiak sortzen dira: seme-alabak, alargun pentsioak, herentziak, etxearen banaketa eta beste.**

Gure gurasoek egiten zutenaren kontrakoa aukeratzen dugu askotan, tradizioarekin apurtzearren eta guk geuk aukeratzeko hautua izatearren. Horrez gain, batzuetan loturek, betirako loturek, atzera egiten dute; eta elkarrekin beste modu baten, askeago baten, bizi izatea aukeratzen dute askok.

Baina, heltzen da momentu bat beste gauza batzuk kontuan hartzen hasten direna: bikotekide bat hil eginez gero, zer laguntza edo konpentsazio jasoko luke beste kideak; bikotea banatuz gero, seme-alabak zelan geldituko dira babestuta, eta beste asko.

### BIKOTE IZAERA ARAUTU

Hala, bikote izate hori erregulatzeko edo arautzeko asmoarekin, hainbat bikote ezkondu edota izatezko bikote egiten dira. Eta hor beste zalantza bat sortzen da: goian aipatutako ezusteen aurrean zer formularekin gelditu daitezke babestuago?

Ezkondu eta izatezko bikote egitearen artean uste baino desberdintasun gehiago daude. Hala, figura hori, izatezko bikotearena, sortu zuten ezkondu bariko familien gutxieneko eskubideak bermatzeko. Baina, aldiz, konpentsazio pentsioak, elkarbizitzagatik kalte-ordainak eta elkarrekin bizi artean batutako ondasunen likidazioa ez dituzte ezkondutako bikoteen parera babesten.



Bikote izaera arautu edo formalizatzeko kezka izaten dute bikote askok. GOIENKARIA

**Edozein ezbehar edo ezusteren aurrean babestuta egoteko bikote izaera arautu**

**Izatezko bikoteen zein ezkondutako bikoteen kasuan seme-alabak babestuta daude**

**Izatezko bikoteen legeari aldaketak egitea aztertzen dabiltza azken hilabeteotan**

### HERENTZIA ETA TESTAMENTUA

Herentzien kasuan, esaterako, hildakoak testamentua egin barik badauka, izatezko bikoteetan bizikideak ez du ezer jasoko. Seme-alabek, berriz, %100 jaso dezakete. Baina, bikotea ezkonduta balego, bizikideak ondasunen herena jasoko luke.

Hala, esan dezakegu bi kasuetan seme-alabak babestuta daudela, baina izatezko bikoteko bikotekidea ez horrenbeste.

Hildakoak testamentua eginda badu, berriz, izatezko bikoteko bizikideak aukera izango luke ondasunen heren bat edo gehiago eskuratzeko.

### PENTSIOEN BABESA

Elkarrekin bizi den bikoteko kideetako batek etxea eta seme-alabak zaintzeko lana uzten badu, harremana etetean ez luke ezer jasoko, izatezko bikote bada. Ezkonduta balego, berriz, pentsioa jasoko luke. Alargun pentsioari dagokionez, ezkondutakoek hori ziurtatuta izango dute. Izatezko bikoteek, ordea, ez. Baina bada salbuespen bat: bikote horrek ezkontzeko traba legalak eduki izana.



■ JOERA: EMAKUMEA

# Emaztegai naturala modan, gehiegikeriatik ihesi

MAIDER ARREGI

**Joera klasikoa alboratzen dabiltza Debagoieneko emaztegaiak. Jantzi modernoagoak aukeratzen dituzte; hori bai, ukitu klasikoarekin. Gerrian estu jantzten dira soineko horiek, eta gerri altukoak izan ohi dira; hala, gerritik behera soinekoek bolumen handia hartzen dute. Dandar (kola) gero eta laburragoak erabiltzen dira.**

Emaztegaien soinekoetan modernora eta *vintage*-ra joateko tendentzia dago aspaldian; baina, betiere, erromantizismo kutsuari eutsita. Hau da, jantzi modernoak, baina ukitu klasikoa daukatenak. Modernoena eta seriotasuna edo dotoretasuna uztartuta.

Bestalde, beloak ia alboratuta daude gaur egun. Horren ordez, diadema eta loreekin apaintzen dute burua. Erabilitako ehunei dagokienez, berriz, tulak, gasak, *organzak* eta bordatuak ere erabiltzen dituzte.

Koloreei dagokienez, zuria da oraindik nagusi, baina horri bestelako tonalitate leunak gehitu dizkiote: zuri-apurtua, krema, urdina eta berdea, esaterako.



## KLASIKOA, GEHIEGIKERIA GABEKOA ETA EROSOA

**Setazko soineko klasikoak ez dira inoiz modaz kanpo gelditzen. Kutsu barrokoa duten soinekoetatik ihes eginda, argazkikoa aukeraketa ona da dotore eta eder egon gura duen emaztegaiarendako. Gehiegikeria barik eta eroso egon gura dutenendako soineko aproposa. Horrez gain, gerriko apaingarriak ukitu dotorea ematen dio soinekoari. Xanpain koloreak modan egoten jarraitzen du eta egokia da ilehoriendako nahiz azal iluna dutenendako. Ebaketa sinpleko soinekoa da, baina emaztegaiaren edertasuna nabarmentzen duena.**



## HARRIBITXIAK, SOINEKOARI DOTOREZIA UKITUA EMANEZ

**Ebaketa erromantikoko soinekoek arrakasta handia daukate emaztegaiaren aukeraketetan. Bolumen txikiko eta gasazko soinekoek Olinpoko jainkosen estiloa gogora ekartzen dute, eta horrexegatik aukeratzen dute gero eta emaztegai gehiagok ezkontzeko orduan. Bestalde, kolore zuriak kontraste bikaina egiten du soinean apaingarri moduan dauzkan harribitxiekin. Izan ere, horren batuketak ukitu dotore eta gaztea ematen dio soinekoari; askok bilatu gura izaten dutena. Aukeraketa aparta, natural jantzi gura dutenendako.**



## AUSARTENENDAKO ETA MODERNOENENDAKO APROPOSA

**Emaztegai ausart eta modernoenendako soineko aproposa da argazkirako aukeratu duguna. Gorputzean estu eta justu helduta doa, emakumearen kurbak gehiago markatzeko eta nabarmentzeko. Bolumen handia behealdean, tul eta zeta konbinazio bikainarekin. Lazoak detaile polita eta, gainera, ukitu dotorea ematen dio soinekoari. Zuri-zuria izan barik, krema kolorearen ukitua dauka soinekoak. Argazkian ikusgai dagoen jantzia tirante bariko eskoteak eta sorbaldak nabarmendu gura dituztenendako egokia da.**


Argazkia: Kiñu

KIZKUR
Ile apaindegia • Estetika
Zure ezkontzarako behar duzun guztia
Andregaientzako bonuak
(%10eko deskontua zerbitzu guztietan)
www.kizkur.com
Bolu kalea 51, Tel.: 943 76 50 32 BERGARA



LANDETXEA - CASA RURAL
EGUZKITZA
Eibarreko errepidea z/g
Tel. eta faxa: 943 78 90 84 Poltsikokoa: 679 41 66 97
e-posta: casaeguzkitza@hotmail.com






ETA ORAIN ZERBITZU BERRIEKIN:
ZELULAK BIRSORTZEKO KAPSULA ETA MASAJEAK

■ JOERA: GIZONA

# Txaketa eta alkandora ilunak eta gorbatoiak bistan

I.B.

**Gizon askok ezkontzerakoan dotore janztea aukeratzen dute. Orokorrean traje ilun luzeak ibiltzen dituzte, gehienek beltzak. Horrez gain, korapiloa eginda dakarren gorbatoiak betiko gorbata alboratu du ia. Bestalde, alkandora zuriak gero eta gutxiago ikusten dira; horien ordez marroiak, beltzak eta beste erabiltzen dira.**

Aspaldiko ohitura zen senargaiaren alkandora emaztegaiaren soinekoaren kolore berekoa izatea; hau da, zuria. Baina tendentzia hori zeharo aldatu da. Oraindik neska asko –lehen baino gutxiago– ezkontzen dira zuriz, baina mutil gutxik janzten dute kolore horretako alkandora.

Txalekoak, oraindik, asko erabiltzen dira, eta gerrikoak barrutik eraman ohi dira. Bueltan datozen beste osagarri batzuk mahuka-bikiak (gemeloak) dira. Mahuka-bikiak eta gerrikoak konbinatuta joaten dira.

Txaketako poltsikoan zapi bat sartu ohi dute. Poltsikorik ez badu, lore bat jarri ohi dute. Prakak, berriz, gero eta estuagoak izaten dira.



### KLASIKOARI KOLORE BIZIAGOAK BATZEKO JOERA

Joera klasikoenen artean poliki-poliki hasi dira koloreak sartzen. Esaterako, mutil horrek lila koloreko txaketa jantzita darama, eta txalekoa apur bat kanpora aterata. Horretan saiatzen dira diseinugile eta, batez ere, bezero gazte asko: klasikoari ukitu informal txiki bat ematen, gaur egungoagoa. Horrez gain, mutil horrek gorbatoia deritzona darama lepoan. Aspaldian asko erabiltzen dira gorbaten ordez. Korapiloa eginda dakar, eta ukitu modernoagoa ere badauka. Bi arrazoi horiek nahikoa dira gazteen artean nagusitzeko.



### MARRAK ETA DISTIRAK, BAINA HANKA BAT KLASIKOAN

Honako hau da argazkietara ekarri dugun modeloetatik klasikoena, baina ez merkatuan dagoen klasikoena. Kolore biziak baztertuta, bestelako itxura eman gura du hala jantzi denak. Gris perla da mutil horrek aukeratu duen kolorea, eta esan dezakegu klasikoan kokatuta egon arren, ñabardurak dituela. Hala, marrek eta distirek beste ñabardura bat ematen diote. Bestalde, gorbatoiaren ordez, beti ezagutu dugun gorbata darama jantzita. Azken finean, askok eta askok oinarri klasikora jotzen dute.



### MARRAK ETA KOLORE MARROIA, BERRITASUNAREN BILA

Begi bistan dago honako hau dela hiruetatik modelo modernoena. Mutil horrek, beltzetik aldenduta, marroia aukeratu du. Alkandora kolore horretakoa da, baita prakak ere. Are gehiago, prakek marrak ere badituzte, konjuntuari seriotasun apur bat kenduz. Nahiz eta orain arte txaketa eta txalekoetan beltza nagusitu, hasi da joera aldatzen; eta hori igartzen hasi da. Bestalde, eta bitxia badirudi ere, gorbatoia beharrean gorbata klasikoa, betikoa, dauka jantzita. Kontraste horrek oso efektu berezia lor dezake, eta askok gustuko dute.


Sastreria Mujika
Presta zaitez ezkontzarako!
Jantziak neurrira egiten ditugu
Barrenkale 1 • Tel.: 943 76 29 91 • BERGARA


lenceria Kuttun
Lentzeria
eta
Korseteria
Bidebarrieta kalea 19
Tel.: 943 78 34 44
ONATI



■ EZKONTZA ZIBILAK ETA DIBORTZIOAK

# Ezkontza zibilak egiteko ohitura indartzen dabil

IKER BARANDIARAN

**Oñati, Leintz Gatzaga eta Aramaion izan ezik, ibarreko beste herri guztietan ezkontza zibilak elizakoak baino gehiago izan ziren 2007an. Bestalde, dibortzioei dagokionez, iaz Bergarako epaitegian 126 tramitatu zituzten. Horien artean, Debagoieneko, Legazpiko, Urretxuko eta Zumarragakoak.**



Dibortzioen datuek erakusten duten moduan, ezkontza batzuk ez dira betirako izaten. GOIENKARIA

Joan den urtean 300 bat ezkontza egin zituzten Debagoienean. 300 bat diot, Antzuolako datuak lortu barik, gainontzeko herrietakoak batuta 288 zenbatu ditugulako. Antzuolako Bake Epaitegia egun bakarrean dago zabalik, eta ezin izan genuen egun horretan deitu.

Zenbatutako 288 ezkontza horietatik 170 zibilak izan ziren eta gainontzekoak, 118, elizatan ospatu zituzten.

**OÑATI, GATZAGA ETA ARAMAIO**

Oñatin, Aramaion eta Leintz Gatzagan izan ezik, ibarreko beste herri guztietan ezkontza zibilak elizakoak baino gehiago izan ziren. Oñatin, joan den urtean ospatutako 75etik 30 zibilak izan ziren, eta gainontzekoak, 45, elizakoak.

Leintz Gatzagan, berriz, zortzi ezkontza egin zituzten iaz, eta guztiak elizan egin zituzten. Eta Aramaion hamarretik sei elizan egin zituzten.

Aretxabaletan egin zituzten ospakizun zibil gehien: 34tik 27 egin zituzten elizatik kanpo. Bergaran, berriz, ezkontza zibilen kopurua elizan egindakoen bikoitza izan zen: 42 zibilak eta 24 elizakoak, hain zuzen ere. Arrasaten diferentzia ez zen hain handia izan: 49 zibilak eta 30 elizakoak. Elgetan aukeraketa borobila egin zuten: iazko bi ezkontzatatik biak zibilez egin zituzten; Elizari ez zioten lanik eman gura izan.

**Iaz 126 dibortzio tramitatu zituzten Bergaran: Urola Garaikoak eta Debagoienekoak**

Bukatzeko, Eskoriatzan 14 ezkontzetatik zortzi zibilak izan ziren eta sei elizakoak.

**GERO ETA DIBORTZIO GEHIAGO**

Jende asko ezkontzen den arren, dibortzioak ere asko dira gure artean. Ez, Espainiako Estatuko hedabideek argitaratutako datu ikaragarriak beste, baina bai handiak. Hain zuzen ere, hedabide batzuek emandako datuen arabera, Espainian 3,7 minutuko dibortzio bat tramitatzen da.

Hala ere, egia da 2005ean Espainiako gobernuak *dibortzio espres* legea onartu zuenetik askoz dibortzio gehiago egiten direla. Hain zuzen ere, lege horrek erraztasunak ematen die bikotekideei dibortzioa azkar egiteko eta seme-alaben zaintza partekatua lortzeko, besteak beste.

**126 DIBORTZIO GUREAN**

Bergarako epaitegian jakinarazi digute Debagoieneko (Aramaio ezik), Legazpiko, Urretxuko eta Zumarragako dibortzio datuak batuta, joan den urtean 126 kasu tramitatu zituztela, horien artean adostutakoak ere bai.




Gure Ametsa
Jatetxea
ezkontzatarako areto handi eta erosoak
aparkaleku pribatu handia
aperitiboendako terraza
sukaldaritza zaindu eta paregabea
aurrekontu guztietarako menuak
943 71 49 52
gatzaga

■ ARGAZKI ALBUMA

# Betirako argazkiak leku eder

IKER BARANDIARAN

**Ezkontzako eguna ospakizuna da askorentzat, ospakizun berezia. Arrazoi horregatik, egun hori betikotzeko asmotan, argazki on eta dotoreak egiten dituzte bikote askok. Eliza, udaletxe edo epaitegietako irudiez gain, ohitura da beste nonbaitera jo eta bestelako testuinguruan bikotearen argazkiak egitea.**

Ezkontzea erabakitzen duten bikote askok egun berezi hori betikotzeko argazki dotoreak egiten dituzte. Ibarrean argazkilari asko eta onak daude, eta eskaintza oso handia da.

Lehen ezkontzatako argazki gehienak eliza edo udaletxe kanpoan edota inguruko zelai edo lorategi baten egiten zituzten. Gaur egun, berriz, horretan ere aldatu dira ohiturak.

Argazkilariek kontrastez edo ñabardurez betetako argazkien bila jotzen dute, eta horretarako bestelako testuinguruak erabiltzen dituzte, ezohikoagoak: industria guneak, hondartzak, animaliekin eta beste.



KIÑU ARGAZKIAK

### EVA LARRAÑAGA ETA RUBEN RODRIGUEZ

**Bergarako Eva Larrañaga eta Ruben Rodriguez joan den urteko urriaren 27an ezkondu ziren Zumarragako Antiguan. Argazkiak ezkontzako egunean egin zituzten, goizean, lehenengo orduan. Evaren gurasoak Donostian bizi direla-eta, Haizearen Orrazian egin zituzten argazkiak, eta eguraldi oso ona izan zuten. Bazkaria, berriz, Zumarragako Etxeberri jatetxean egin zuten; eta horren ostean, Hego Afrika, Namibia eta Maurizio irlak bisitatu zituzten.**



BEGIRA ARGAZKILARITZA

### VIRGINIA PANDO ETA LORDI ZUAZUBISKAR

**Arrasateko Lordi Zuazubiskar eta Aretxabaletako Virginia Pando iazko maiatzaren 26an ezkondu ziren Loiolako santutegian. Ezkondu ostean egin zituzten argazkiak. Argazkilariaren eta senar-emazteen asmoa zen argazkiak Mirandaolan egitea, baina eguraldi txarra izan zuten eta asmoa aldatu behar izan zuten. Hala, azkenean, Loiolako arkupeetan egin zuten agindutako lana, baina senar-emazteak oso gustura gelditu ziren. Horren ostean, AEBetara eta Polinesiara jo zuten ezkonbidaian.**



# rretan profesionalen eskutik




KIÑU ARGAZKIAK

## GEMMA SAINZ ETA JOXE BALANTZATEGI

Bergarako Gemma Sainz eta Joxe Balanzategi joan den urteko urriaren 20an ezkondu ziren Bergarako udaletxean. Argazkiak egun berean egin zituzten epaitegian, San Martzialen eta Labegaraietan. Ezkontzaren eta bazkariaren ostean, Argentinara jo zuten ezkonbidaian. Eta, handik bueltan, Debako hondartzara joan ziren bestelako argazkiak egitera: uretan, hondarrean, surf taularekin eta abar.




BEGIRA ARGAZKILARITZA

## AINARA IRIBAR ETA EÑAUT ARANTZETA

Elgetako Ainara Iribar eta Eñaut Arantzeta Asentzion (Elgeta) ezkondu ziren joan den urteko ekainaren 2an. Euren asmoa zen argazkiak Asentzion bertan egitea, baina eguraldi txarra izan zuten. Horregatik, Urkulura jo zuten argitasun bila. Urkulun Elgetan baino zeru argiagoa aurkitu zuten eta baita behiak ere, bikotea zelaian jartzerakoan, behiak hurbildu egin zitzaizkien-eta.




BEGIRA ARGAZKILARITZA

## NAGORE ALMENAR ETA FELIPE PINEDA

Arrasateko Nagore Almenar eta Bergarako Felipe Pineda joan den urteko ekainaren 9an ezkondu ziren Monterronen (Arrasate). Ezkontzaren aurretik, baina, Larrinora jo zuten argazkiak egitera. Kontatu digutenez, egun horretan sargori handiegia izan zuten, eta argazkiak egiten bero pasatu zuten. Horren ostean, lagun eta senitartekoekin bazkaldu, eta New York eta Jamaikara joan ziren bidaian.



SEXU BEREKO EZKONTZAK

# Normaltasuna bikote homosexualen ezkontzetan

JASONE ZABALA/MIREIA BIKUÑA

**Bikote homosexualen arteko ezkontzak ahalbidetzen duen legea duela hiru urte onartu zuen Espainiako Kongresuak. Ordutik gay eta lesbianen arteko ezkontza kopuruak gora egin du. Gurean, Aretxabaletako udaletxean ezkondu zen lehen bikote homosexuala, Angel Irure aretxabaletarra eta Javi Gil andaluziarra.**

Gay eta lesbianen arteko ezkontza ahalbidetzen duen legea 2005eko apirilaren 21ean onartu zuen Espainiako Gobernuko Kongresuak. Legeak aldeko 183 boto jaso zituen, eta 136 kontra, besteak beste, PPko, Unio Democratica de Catalunyako eta EAJko kide batzuk kontra bozkatu zuten. Legearen onarpenaren ondoren gay eta lesbianen arteko ezkontza kopuruak gora egin du Espainiako estatuan.

Euskal Autonomi Erkidegoan, Gasteizko Udala izan zen bikote homosexualak eta heterosexualak erregistratzeko aukera eman zuen lehena.

### BAILARAKO LEHEN EZKONTZA

Debagoienean mota honetako lehen ezkontza Aretxabaletan eman zen, hain justu ere, Aretxabaletako Angel Irure eta Cadizeko Javi Gil ezkondu ziren. "Gu duela bi urte ezkondu ginen eta guretako oso garrantzitsua izan zen, ezkontzak familia tradizionalen modura bizitzeko aukera eman digu-eta. Era berean, bikote kideetako bat hiltzen denean, legeak babestu egiten du alargun geratzen dena. Gainera, semealabak adoptatzeko aukera ere badugu", azaldu zigun Angel Irurek. Dena dela, legea askoz lehenago onartu behar zela uste du Aretxabaletan ezkondu zen bikoteak. "Europako iparraldean, Holandan esaterako, lege honi dagokionez, gu baino aurreratuago daude. Duela urte asko ezkontzen dira bikote homosexualak".

### FAMILIA-LIBURUAN ALDAKETAK

Irure eta Gil ezkondu zirenean ez zuten inongo oztopo administratiborik izan beraien bikote egoera legeztatzeko. Arazo bakarra familia-liburuarekin izan zuten. "Orain ez dakigu nolakoak diren familia-liburuak, baina gu ezkondu ginenean, ezkontza tradizionala erregistratzeko liburuak ziren, hau da, *don* eta *doña* agertzen ziren izenak jartzeko tokietan", dio Irurek. "Gure kasuan, bi gizonezko ginenez, familia-liburuan aldaketak egin behar izan zituzten. Bikote tradizionalen antzera, Irurek eta Gilek ezkonduko zituen zinegotzia aukeratzea posible izan zuten. "Aretxabaletako udaletxean ezkondu ginen, eta hango zinegotzi Felis Beltran de Herediak ezkondu gintuen. Guri ez ziguten oztoporik jarri, alderantziz, laguntza jaso genuen alkatearen eta zinegotzien aldetik". Homosexualen arteko ezkontzak ahalbidetzen duen legea onartu zenetik, etorkizuna argiagoa ikusten dute gay eta lesbianek. "Halako portaera sexualak tabu izan arren, beti egon dira. Normaltasunera iristea da helburua".



Argazkian Angel Irure eta Javi Gil Aretxabaletako udaletxean egin zuten ezkontza ospakizunean. GOIENKARIA






NINIKA
L O R A D E N D A
• Andregaientzako lore-sortak
• Eliza eta jatetxeen dekorazioa
• Lorategi eta terrazen diseinua
• Paisajismo estudioa
Ramon Maria Lili 8 20570 Bergara
Tel. / Faxa: 943 76 10 01



■ ZER KOSTU DAUKA EZKONTZA BATEK?

# Kontuan hartu eta ordaindu beharreko detaile ugari

IKER BARANDIARAN

**Ezkontzeko modu edo aukera asko daude: sinpleak, sofistikatuak, jende askorekin, gutxirekin, luxu handikoak... Horren arabera, diru gehiago edo gutxiago gastatu beharko dute ezkongaiek. Guk gutxi gorabeherako aurrekontu batzuk eskatu ditugu, zelako kostua izan daitekeen aurreikusteko.**



Argazki erreportajeak, gonbidapenak, jatetxea, ezkonbidaia... gauza asko antolatu eta ordaindu behar dira ezkonduz gero. KIÑU ARGAZKIAK

Ezkontzeko modu edo aukera asko daude, baina kasu gehienetan diru askotxo gastatu behar izaten da egun horren inguruko detaile eta kapritxo guztiak prest egon ahal izateko.

Guk, hainbat negoziotara jo dugu ohiko ezkontza batek gutxi gorabehera zenbat diru kosta dezakeen jakiteko.

**AURRERAPENAREKIN ENKARGATU**
Lehenik eta behin, ezkongaiek jatetxean bazkaltzeko lekua hartu behar izaten dute aurrerapen handiarekin. Azaldu digutenez, 84 euro inguru kosta dezake menu ertain bakoitzak.

Horren ostean, ezkontzarako gonbidapenak enkargatu beharko dituzte. Askok aurrefabrikatutako gonbidapenak aukeratzen dituzte, baina aspaldian ezkongaiak gonbidapenak propio diseinatzeko joera aukeratzen dabiltza. 500 eta 600 euro bitartean ordainduta, 150 bat gonbidapen eskura daitezke, ezkongaiek gura duten argazki edo marrazkiekin.

Ezkontza egunean dotore janzteko ohitura handia dago oraindik. Hala, emaztegai soinekoak 1.100 euro inguru kosta dezake gutxienez. Gizonezkoen kasuan, berriz, 500 eta 700 euro bitartean eskura daitezke kontxuntu osoak.

Hitzordu horretan hain ohikoak diren argazki erreportajeen truke, berriz, 1.300-1.600 euro ordaindu beharko dituzte.

Bestalde, batzuek dantzariak edota abesbatzak kontratatzen dituzte. Zaila da horien tarifak neurtzea, baina inoiz dantzariek 40 euro eskatu izan dute, eta abesbatzek 600 bat euro.

Bidaiei dagokionez, aste beteko guztia barne ereduak Mexikon edo Dominikar Errepublikan pertsonako 1.200 euro kosta dezake. Bidai handiago batek, berriz, 1.500 euro, pertsonako.






EZKONBIDAIAK

# Atzerria bisitatzeko aukera paregabea

IKER BARANDIARAN

**Gaur egun Debagoienean ezkontzen diren bikoteak abentura zaleagoak dira: gehienek bidaia Internet bidez, euren kabuz, antolatzen dute. Horrez gain, bidaiaren zati bat atsedenhartzeko baliatu arren, euren asmoa izaten da ahalik eta gauza gehien ikusi, eta egun berezi horiek leku ezezagunak ikusteko baliatu.**

Orain dela gutxi arte, topikoa izan da ezkondu berri diren bikoteak oporretan leku lasai eta eguzkitsuetara joatea, ezer egitera, botata egotera. Horrez gain, joera izan ohi da bidai agentziara joan eta guztia lotuta eramatea: hegaldia, lo-lekua, jatorduak... eta zenbait kasutan guztia barne aukera hartzen dute halakoetan.

Baina, hori aldatzen dabilela esan dezakegu. Nahiz eta oraindik halako kasu asko dauden, guk elkarrizketatu ditugun bikoteetatik gehienek euren kabuz prestatu dute bidaia. Are gehiago, kasu gehienetan turismoa eta ibilaldiak hondartzekin edota atsedenarekin uztartu dituzte.

Horren haritik, Zeelanda Berriko eta Argentinako paisaia ikusgarri eta anitzak aukeratu dituzte batzuek; eta nabarmendu dute herrialde horiek duten lasaitasuna eta edertasuna.

Beste batzuek, aldiz, Thailandia hartu dute jomuga. Gauza berriak eta natura-gune ederrak bisitatu eta ikusteaz gain, lurralde horrek aukera ematen du leku paradisukoak ezagutu eta atsedena hartzeko. Gainera, thailandiarrak abegitsuak eta oso esker onekoak direla jakinarazi digute.



## ZEELANDA BERRIA, LASAIA ETA EDERRA

**Oñatiko Naiara Urizar eta Xabier Mugartza Zeelanda Berrian izan ziren iaz ezkonbidaian. Herrialde horretako agentzia batekin jarri ziren harremanetan Internet bidez, eta bidaia antolatu zuten. Hegoaldeko irlak bisitatu ostean, auto-karabana hartu eta irla osoa zeharkatu zuten. Gehien gustatu zitzaiena da hango "lasaitasun eta bakardadea" eta Zeelanda Berriak daukan aniztasuna: "fiordoak, sumendiak, hondartzak... denetatik dago han".**



## THAILANDIAKO IRLAK ETA IPARRALDEA

**Antzuolako Izaskun Fernandez eta Iker Irizar iazko ekainean ezkondu ziren. Ekainean ezkondu arren, bidaia urrian egin zuten. Thailandiara joan ziren, eta bidaia euren kabuz antolatu zuten lagun batzuek emandako aholkuekin. Bidaiak aurrera egin ahala, Internet bidez ibilbidea antolatzen joan zen bikotea. Antzuolarrak Thailandiarekin maitemindu ziren, eta kostaldeko paisaiak eta iparraldeko mendi eta oihanak gustatu zitzaizkien gehien.**

Zumelaga
JATETXEA
66 urte zuen zerbitzura!
*Familia eta lagun artean ospatu nahi duzulako...*



San Antonio 5 BERGARA Tel.: 943 76 20 21
E-posta: restaurantezumelaga@zumelaga.com www.zumelaga.com



## ARGENTINARA BUELTATZEKO MODUAN

Arrasateko Izaskun Del Fresnok eta Iñigo Zabalok joan den urteko urrian 22 egun egin zituzten Argentinan ezkonbidaian. Euren kabuz antolatu zuten bidaia, Argentinako agentzia batekin harremanetan jarri ostean. Ia herrialde osoa zeharkatu zuten, hainbat hegaldi eginez eta ibilaldia inprobisatzen joan ziren. Argentina kontrastez betetako lurraldea dela azaldu digute eta txundituta gelditu direla: "Iguazuko ur-jauzietan oso epel zegoen, eta aldiz, Perito Moreno glaziar ikusgarrian fresko handia zegoen, baina hori guztia ikusteak merezi zuen, jakina". Hainbeste gustatu zitzaien, egonaldi luzeago bat egiteko ere prest egongo liratekee-la: "Han denbora luzeagoa egingo genuke, pentsatzekoa da".



## THAILANDIARRAK ABEGITSUENAK

Bergarako Sonia Davila eta Igor Basauri Thailandian izan ziren iazko irailean. Aurretik zalantza izan zuten AEBetara edo Thailandiara joan, baina Asiako herrialdea aukeratu zuten "deneta-tik ikusi eta egin" ahal izateko: trekkingak, tenpluak, irla paradisu-koak... Euren kontu antolatu zuten bidaia, Internet bidez, eta mota askotako garraio publikoa erabili zuten. "Thailandiarrak oso bereziak dira: oso abegitsuak dira, eta beti daude irribarretsu".



## ARGENTINAKO JENDEA ETA PAISAIAK, ONENA

Elgetako Maite Mandalunitz eta Jabi Larrañaga joan den urtean ezkondu eta Argentina-ra joan ziren ezkonbidaian; 17 egun egin zituzten han. Bidai agentzia baten bidez antolatu zuten egonal-dia, eta Argentinan bertan hainbat hegaldi egin zituzten. Iguazu, Buenos Aires, Bailoche, Andeetako muga, Perito Moreno glaziarra eta beste hainbat leku bisitatu zituzten. Elgetarrek nabarmendu dute paisaia ederrak ikusi zituztela, eta argentinarrak beti laguntzeko prest zeudela.




Laser bidezko depilazioa
Milesman
Diodo laserra
EMAITZA EZIN HOBEAK
- Bigarren mailako efekturik gabe
- Saio gutxi batzuetan emaitza iraunkorrak (3 eta 6 saio bitartean)
- Hiru hilean behin saio bakarra

dOr
dOr Estetika
Errementari 5
20560 Oñati
Tel.: 943 53 36 47

2008an ezkonduko zara?
Gurean duzu aukera zabala
- Manikura
- Pedikura
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko peelinga
- Masaje lasaigarriak
- Makillajea
Ezkongaientzat kit bereziak, deskontu handiekin.

■ EZKONTZA AGURRAK

# Herritik kanpora, lagunekin ezkontza agurra ospatzeko

GOIENKARIA

**Irudimen handia erabiltzen dute batzuek lagunen ezkontza agurrak antolatzeko. Herrian bertan egindako bazkari edo afari bat egiñaz ospatzen zuten lehen ezkontza aurreko lagunen arteko ospakizuna, baina gaur egun herritik kanpora joaten dira gehienak eta mozorroa jantzita ibiltzen dira batera eta bestera.**

Lagun arteko afaria edo bazkaria bai, baina ez edonon eta edonola. Herritik kanpora eta kontzientziaz antolatutako eguna edo asteburua egiten dute senargai eta emaztegai askok euren lagunekin ezkondu egin behar direla ospatzeko.

Aretxabaletako Aitor Izarzuagari, adibidez, lagunek ez zioten ezer esan ezkontza agurreko eguna heldu zen arte. "Egunean bertan enteratu zen", dio Iker Isasmendi bere koadrilako lagunak. "Lekeitiora joan ginen asteburu bat pasatzera. Hara heldu ginenean jakin zuen gaua hango aterpetxe baten egingo genuela. Sorpresa izan zen eta ondo hartu zuen berak. Asko disfrutatu zuen", gogoratzen du Ikerrek. "Lekeitiora iritsi ginenean neskaz mozorrotu genuen Aitor eta beste guztiok, 19 mutil eta neska bat, egun horretarako propio egindako kamisetak jantzi genituen", gehitu du.

Bergarako Eider Iturbek eta Ekiñe Bilbaok ere ez zekiten Bilbora joango zirenik ezkontza agurra egitera. "Bilbora heldu ginenean, kolore biziko dutxarako gorro bana eman genien biei eta horrelaxe ibili ziren. Jatetxe mexikar batean bazkaldu eta dantzatu genuen, eta goizaldean bueltatu ginen Bergarara", kontatu du euren laguna den Mireia Larrañagak. Koadrila askok ezkontza agurraren egunean bertan ematen diete oparia senar edo emaztegaiari. Bergarako neskei, ostatuetan gastatzeko taloi bana oparitu zieten, eta Aretxabaletako Aitor Izarzugazari bidaia bat. Horri, ordea, ezkontza egunean bertan eman zioten oparia. Lasturrera zezenen aurrean korrika egitera edo Errioxara edo Londresera asteburu pasa joatea aukeratu dute ibarreko beste koadrila batzuek. Adibidez, euren lagunen ezkontza agurrak egiteko. Senar edo emaztegaiak disfrutatuko duen agurra antolatzen saiatzen dira lagunak, nahiz eta garestiak atera batzuetan, eta askotan lotsa etxean utzi.


Elgetako Jabier Larrañaga 'Marijaiaz' jantzi zuten lagunek bere ezkontza agurrean. FAKAFAKA

## EZKONTZAKO ALTXORRAREN BILA

**Altxorraren bila jolasa eredu hartuta ere antolatu izan dituzte ezkontza agurrak: lagunek jarritako pistak jarraituta helduko dira ezkongaiak bukaerara arte. Bukaera zer eta non izango den ez du jakiten ezkontzera doan bikoteak eta hara heltzeko zenbat eta zelako probak pasa beharko dituzten ere ez. Mahai inguruan otordua antolatzeak baino lan handiagoa ematen duten arren, horrelako ezkontza agurrak gehitzen ari dira.**







OMU
KERAMIKAK
ERAKUSKETA: Ignazio Zuloaga 4
Tel./Faxa: 943 79 07 20
ARRASATE
omu@telefonica.net
ZERAMIKA
BAINUAK
ERAIKUNTZARAKO
MATERIALA


Ilargi plaza 1
Aretxabaleta
tlf: 943 53 49 45
(Ane Idigoras)
Begira
argazkilaritza
50mm f1:2.8
www.fotobegira.com



**250**
*lagunentzako*
*jantoki berritua!*

# LASA jatetxea

Ozaeta jauregia
Tel.: 943 76 10 55
**BERGARA**









